XI.Legealdia
2016-2020

# Gobernu Programaren Jarraipenaren laburpena

## 2017. Urtea

# A D E N D A

*2017. Urtean burututako ekimen Garrantzitsuenen sailez-sail Eginiko sailkapena*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## AURKEZPENA

2017.urtean, Eusko Jaurlaritzak eta osatzen duten sailek, 2.132 ekimen garatu eta publikatu dituzte, 2016-2020ko XI. Legealdiko Gobernu Programaren barruan, betetzeko dauden 175 konpromiso eta 655 ekimenetan.

Adenda honetan **ez dira jaso egin diren ekimen guztiak, baizik eta** parametro homologagarriak dituztenen arteko **esanguratsuenak** eta urtean zehar burutu direnak edo eta emaitzak izan dituztenak.

Edozein kasutan, ondorengo laburpen-taula honetan jaso dugu Gobernu Programari lotutako konpromiso eta ekimen guztiei buruzko Gobernuaren jarduera.

Laburpen honetatik atera dezakegun ondorioa da, aurten, Gobernu Programaren % 100 konpromisoek jarduerak izan dituztela (175/175) eta % 85 ekimen baino gehiago (565/655) landu direla.

| SAILA | Gobernu Programaren konpromisoen zenbatekoa | Argitaratutako jarduerak dituzten konpromisoak |
|---|---|---|
| **Lehendakaritza** | **19** | 19 |
| **Gobernantza Publikoa eta Autogobernua** | **12** | 12 |
| **Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak** | **20** | 20 |
| **Enplegua eta Gizarte Politikak** | **21** | 21 |
| **Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza** | **12** | 12 |
| **Hacienda y Economía** | **6** | 6 |
| **Hezkuntza** | **18** | 18 |
| **Osasuna** | **26** | 26 |
| **Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa** | **5** | 5 |
| **Kultura eta Hizkuntza Politika** | **17** | 17 |
| **Segurtasuna** | **7** | 7 |
| **Lana eta Justizia** | **12** | 12 |
| **GUZTIRA** | **175** | **175** |

| Gobernu Programaren ekimenen zenbatekoa | Gobernuak hasitako ekimenen zenbatekoa | Ekimenei loturiko jardueren zenbatekoa | Garatutako ekimenen portzentaia |
|---|---|---|---|
| **655** | **565** | **2.132** | **% 86** |

**AURKIBIDEA SAILKA**


1. Lehendakaritza 07-18
2. Gobernantza Publikoa eta Autogobernua 19-23
3. Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak 24-40
4. Enplegua eta Gizarte Politikak 41-51
5. Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza 52-60
6. Hacienda y Economía 61-65
7. Hezkuntza 66-82
8. Osasuna 83-100
9. Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa 101-106
10. Kultura eta Hizkuntza Politika 107-118
11. Segurtasuna 119-123
12. Lana eta Justizia 124-130

| LEHENDAKARITZA | | Konpromisoak: 1<br>21- 24<br>145- 147<br>161- 171 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **1. Konpromisoa. Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa** | **Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. ekimena. Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu .** | |
| 1 | "Euskadi 2020" Ekonomiaren Susperraldiaren eta Enpleguaren aldeko Esparru Programa onartu da. | |
| | **21. Konpromisoa. Basque Country nazioartekotzeko estrategia globala garatu, eremu publiko eta pribatuarekin elkarlanean** | **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Euskadi-Basque Country marka indartzeko nazioartekotzeko estrategia bateratua garatu.** | |
| 2 | XI. Legealdiko "Euskadi 2020" Gobernu Programa estrategia hauekin lerrokatu da: "Europa 2020" Estrategiarekin eta garapen jasangarria sustatzeko "2030 Agenda" mundu-estrategiarekin. | |
| 3 | Lehendakariak bidaia ofiziala egin du, Kolonbiara,, 60 enpresarekin baino gehiagorekin batera. Iberoamerikako Estatuen Erakundeko zuzendariarekin bildu da Kolonbian, bakeari buruz hitz egiteko. Kolonbiako presidentearekin ere bildu da. Kolonbiako presidenteak Bakearen Nobel saria jaso du. | |
| 4 | Lehendakariak bidaia ofiziala egin du Quebec eta Ottawara hirietara, kultura-, erakunde- eta ekonomia-arloko loturak estutzeko. | |
| 5 | Lehendakariak harrera egin die Indiako, Suediako, Txipreko, Turkiako, Belgikako, Ukrainako, Filipinetako, Erresuma Batuko enbaxadoreei, Errumaniako Atzerriko Inbertsioetako ministroari eta EAEn aritzen den Saharako ordezkariari. | |
| | **2. Ekimena. Kanpoko sare integratu batekin jardun, eta Euskadiren atzerriko ordezkaritzen eta bulego sektorialen sarea indartu.** | |
| 6 | Madrilgo Ordezkaritzan bilerak egin dira hainbat enbaxadatako ordezkarirekin, honako gai hauek jorratzeko: "Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana 2017-2020", "BIND 4.0: 4.0 industria azeleratzeko programa" ekimena eta Euskadi E2030 Energia Estrategia. | |
| 7 | Kanpo-harremanen alorrean profesionalak espezializatzeko beken deialdia egin da, 2018-2019 aldiko. (160.000.- €) | |
| | **3. Ekimena. Bazkide estrategikoekin harreman handiagoa izan, EAEko kanpo-harremanak proiektatzeko; horretarako, nazioarteko erakundeekin eta estatu azpiko entitateekin lankidetza-hitzarmenak sinatuko dira, eta *learning tour* ekimena indartuko da.** | |

| | |
|---|---|
| 8 | EAEko Gobernuaren Aliantza Estrategikoen Sarean Kolonbiako Cundinamarcako Saila eta Quebec sartu dira. |
| 9 | Lehendakariak eta Iberoamerikako Estatuen Erakundeko idazkari nagusiak elkar ulertzeko memorandum bat sinatu dute, honako gai hauek elkarlanean sustatzeko: hezkuntza, zientzia eta berrikuntza, kultura eta giza eskubideen arloko hezkuntza. |
| 10 | Estatu Batuetako ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu du, “Learning Tour 2017” ekimenaren esparruan. |
| 11 | ORU/FOGAR Eskualde Batuen Erakundearen Batzar Nagusia eta Eskualdeen Mundu Foroa Gasteizen egin dira. |
| | **22. Konpromisoa. Europako erakundeetan parte-hartze aktiboa eta zuzena izan** — **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. EAEk erabaki-esparru komunitarioetan duen parte-hartzea ahalik eta gehien indartu; Europar Batasuneko Kontseiluan eta Europako Batzordearen batzorde teknikoetan batik bat.** |
| 12 | Lehendakaria Europako Batzordeko presidentearekin bildu zen Bruselan. Bilera berean honako hauek ere bildu zen: Gai Ekonomiko eta Finantzario, Zerga eta Aduanen europar komisarioarekin, “brexit”a Europako Legebiltzarrean kudeatzeko ordezkari izendatuarekin eta ALDE taldeko buruarekin. |
| 13 | 2017ko lehenengo seihilekoan ECOFIN Ekonomia eta Finantzak Kontseiluko lantaldeetan parte hartzen jarraitu da. |
| 14 | Europako Batzordeko presidenteordea, Energiako komisarioa eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua Euskal Autonomia Erkidegoan batzartu dira. |
| 15 | Lehendakaria eta Eskualdeetako Lantaldeko presidentea Euskal Autonomia Erkidegoan batzartu dira. |
| | **2. Ekimena. Euskadi-Estatua bitariko batzordea berreskuratu, Europako gaiak eta kanpo-harremanak aztertzeko.** |
| 16 | Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak Europar Batasunaren inguruko gaietarako konferentziaren 56. bileran parte hartu zuen, eta Europako gaiei eta kanpo harremanei buruzko Euskadi eta Estatuaren arteko aldebiko batzordea biltzeko eskatu zuen. |
| | **3. Ekimena. EAEko eragileek sare, ekimen eta proiektu transeuroparretan parte hartzea sustatu.** |
| 17 | “Vanguard Initiative” Europar eskualdeen elkartera era formalean atxikitzea, industria-hazkundea pizteko. |
| | **4. Ekimena. Europako nazioekin eta eskualdeekin duen harremana indartu.** |
| 18 | Bavariako erakundeetako ordezkariek Euskal Autonomia Erkidegoa bisitatu dute. Bavariako Parlamentuko konstituzio, zuzenbide eta legebiltzarreko gaiei buruzko batzordearen ordezkaritza batek EAE bisitatu du, ekainaren 26tik 28ra. Harrera egin diote Lehendakariak, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak eta Erakundeen, Segurtasunaren eta Gobernantza Publikoaren Batzordeko zenbait kidek. Halaber, Gernika, Batzarretxea eta Gernikako udaletxea |

| | |
|---|---|
| | bisitatu dituzte, baita Gernikako Bakearen Museoa ere, bonbardaketaren 80. urtemuga dela eta. Donostia bisitatu dute, eta hango alkatearekin bildu dira. Azken egunean Bilbo bisitatu dute. |
| 19 | Lehendakaria Petrescu jaunarekin, Errumaniako Atzerriko Inbertsioen ministroarekin, bildu zen maiatzaren 26an, ministroa EAE bisitatzen ari zela eta. |
| 20 | Eskualdeen lantaldeak antolatutako "Science meets regions" hitzaldia egin da, Donostian. |
| 21 | Bavariako Gobernuarekin adierazpen bateratu bat sinatu da, polizien arteko lankidetza areagotzeko. |
| 22 | EAEko Batzordea eratu da, *brexit*aren jarraipena egiteko. |

| | | |
|---|---|---|
| | **23. Konpromisoa. Euskal euroeskualdearen lurralde-antolaketa indartu** | **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Euskadi-Nafarroa-Akitania euroeskualdea finkatu.** |
| 23 | Urtarrilaren 1etik aurrera, Akitania-Euskadi Euroeskualdeak beste kide bat du: Nafarroako Foru Erkidegoa. Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea izena aldatu, eta, harrezkero, Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea deitzen da. |
| 24 | 2017ko martxoan eta apirilean egin dira aginduzko bi batzar nagusiak, eta ekitaldi berrirako aurrekontua onartu da. Bestalde, aginduzko batzorde betearazleak ere bildu dira. |
| 25 | Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako, 2016an onartu ziren bi proiektutan aurreikusitako jarduerak abiarazi dira. Proiektu bat mugaz gaindiko enpleguari buruzkoa da; eta bestea, Transfermugari (mugikortasunari) buruzkoa. |
| 26 | Hendaiako Euskotren geltokia guztiz birmodelatzeko proiektua aurkeztea (ikus 38. konpromisoko 2. ekimena). Aurrekontua: 5,8 milioi euro. Gauzatze-epea: 14 hilabete. |
| | **2. Ekimena. Mugaz gaindiko lankidetza indartu, eta lankidetza-hitzarmenak sustatu EAEren, Nafarroaren eta Iparraldeko Mankomunitatearen artean.** |
| 27 | Lehendakaria eta Euskal Hirigune Elkargoko presidentea Baionan elkartu ziren otsailaren 1ean, bi lurraldeen arteko lankidetzari ekiteko. |
| 28 | 2017ko lehen deialdian, Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeak 23 proiektu hautatu ditu, kultura-, hezkuntza-, gazteria-, eleaniztasun- eta kirol-arloetakoak. Zenbatekoa: 400.000 euro. |
| 29 | Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen 2017ko bigarren proiektu-deialdia abiarazi da, “Ezagutzaren ekonomia – berrikuntza – enpresen lehiakortasuna” alorretan. Zenbatekoa: 300.000 euro. |
| 30 | Ikus 152. konpromisoaren 1. ekimena: premialdi, larrialdi, erreskate eta natura-hondamendi egoeretan koordinatuta jarduteko mugaz gaindiko lankidetza-sarea garatzeko proiektua. Europar Batasunak EAEri emandako diru-laguntzaren zenbatekoa: 540.428 euro. |

| | | |
|---|---|---|
| | **24. Konpromisoa. Euskal komunitate globala sustatzea, atzerriko euskal komunitateekiko harremanak estututa** | **Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Euskal Diasporak egindako ekarpenaren berri eman Euskadin, ekonomiari, kulturari eta euskal gizarte globalaren garapenari egin dion ekarria ezagutarazteko.** | |
| 31 | Gaztemundu programaren 2017ko deialdia egin da. Gaztemundu programaren helburua Euskal Etxeetako gazteek Euskadin egonaldi bat egitea. Zenbatekoa: 50.000 euro. | |
| 32 | Euskal etxeentzako ekonomia-prestazioak eskatzeko 2017ko deialdia, euskal gizataldeetan premia larrian dauden pertsonen beharrei erantzuteko. Zenbatekoa: 202.000 euro. | |
| | **2. Ekimena. Euskal Etxeen sare fisikoa indartu eta zabaldu.** | |
| 33 | 2017ko deialdia, Euskal Etxeek diru-laguntzak eska ditzaten Zenbatekoa: 902.000 euro. | |
| | **3. Ekimena. “Basque Global Network” sare birtuala sendotu.** | |
| 34 | Aplikazioaren hobekuntza teknikoak. Web-aplikazioak Smartphone eta Apple sistemetarako garatu Hedapen-kanpaina. | |
| | **145. Konpromisoa. Emakumeen eta gizonen areko berdintasuna bultzatu, garapen jasangarria lortzeko funtsezko zutabea den aldetik** | **Emakunde Zuzendaritza** |
| | **1. Ekimena. Balio aldaketa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.** | |
| 35 | Emakumeen elkartegintza sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan emakumeen parte-hartzea indartzeko diru-laguntzak. (376.000.- €) Deialdia EHAAn argitaratu da | |
| 36 | Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako bekak eskatzeko 2017ko deialdia (69.999.- €) 2017-03-30ean: deialdia, EHAAn argitaratuta | |
| 37 | Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko ikerketak egiteko hiru beka eskatzeko 2018ko deialdia onartu da (2017-11-21ean). Guztira 70.000 euro izango dira. | |
| 38 | Emakumeen elkartegintza sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru guztietan emakumeen parte-hartzea indartzeko 2018ko diru-laguntzen ematea arautu da. (376.000.- €)(2017-12-20) | |
| 39 | Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, koadrila eta mankomunitateentzako 2018ko diru-laguntzen ematea arautu da, eta dagokien deialdia egin da, beharrezko laguntza teknikoa izan dezaten emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko edota berdintasunerako planak egin, ebaluatu eta egokitzeko. (360.000.- €)(2017-12-20) | |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena. Hezkuntza-sisteman berdintasunaren sustapena bultzatu, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.** |
| 40 | Nahiko hezkidetza-programa: Berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezarako hezkidetza programa da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta. 2017-06-05: 2015-2017 aldian 3.000 ikasle inguruk parte hartu dute parte Nahiko! programan. 2017-2019 arteko ikasturteetan, Lehen hezkuntzako 4.000 ikaslek baino gehiagok hartuko dute parte Emakunderen Nahiko hezkidetza-programan (aurreikuspenen arabera). |
| | **3. Ekimena. Berdintasunerako Gobernantza hobetzea, genero-berdintasuneko politikak sustatzeko eta koordinatzeko mekanismoak indartuz.** |
| 41 | "Berdinsarea"ren hamargarren urteurrena: Emakunde-k eta Eudel-ek nahi dute sarea eredu izatea Europan. Berdinsarea: 2016-12-20: |
| 42 | Emakundek eta EUDELek EAEn egin dituzten bi proiektu Banco Inter-Americano de Desarrollo (*Inter-American Development Bank*) bankuak hautatu ditu, berdintasunaren aldeko jardunbide egokiak direlako (2017-04-27an). |
| 43 | EAEko udalerriei, koadrilei eta mankomunitateei 2017an diru-laguntzak eman zaizkie, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak sortu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko. (360.000.- €) (2017-07-03). |

| | | |
|---|---|---|
| | **146. Konpromisoa. Lan-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatu** | **Emakunde Zuzendaritza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea enpresa, erakunde eta gizarte-agenteetan berdintasun-programen bidez, Euskadi berdintasunaren arloan Europako lehenengo lau herrialdeen artean kokatzea lortu arte.** |
| 44 | Sexu-jazarpenaren eta sexu-arrazoiengatiko jazarpenaren aurkako protokoloa: Arriskuen prebentzioko neurriekin zera lortu nahi da: ahal den neurrian, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena izateko arriskua saihestea edo desagerraraztea eta, prebentziozko neurriek huts egiten dutenean, salbuespen gisa, protokoloa aplikatzea. 2017-1-13: Laneko sexu-jazarpenaren eta genero-jazarpenaren kontrako protokoloaren eredu eguneratua argitaratu du Emakundek. |
| 45 | Berdintasuna, kudeaketa aurreratuan: 2017-11-06: Emakunde-k eta EUSKALIT-ek hitzarmen bat sinatu dute, kudeaketa aurreratuan genero-ikuspegia txertatzeko. 2017-11-06: "Berdintasuna kudeaketa aurreratuan" gaiari buruzko jardunaldia, EUSKALITek antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astean. 2017-11-16. "Berdintasuna kudeatzeko gako berriak" jardunaldia, Ertzaintzak aurkeztua, EUSKALITek antolatutako Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astean. |
| 46 | Enpresei laguntzak ematea onartu da, berdintasunari buruzko diagnostikoak eta planak egin ditzaten. (80.000.- €) (2017-11-28) |

| | | |
|---|---|---|
| | **147. Konpromisoa. Emakumeen kontrako biolentzia desagerrarazi** | **Emakunde Zuzendaritza** |
| | **1. Ekimena. Gaur egungo berdintasunerako legeak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzeko aurreikusten duen esparru juridikoa eguneratzea, eta ebaluatzea ea egokia den lege-proiektu bat gauzatzea emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko.** | |
| 47 | Emakumeen aurkako indarkeriari ematen zaion erantzuna hobetze aldera, araudia berrikusteko EAEKO prozesu bat abian jarri da. Diagnostiko bat egingo da, lege-aldaketak proposamen berrira egokitzeko. Hauxe da proposamena: nazioko, nazioarteko eta erkidegoko araudia berrikustea. | |
| | **2. Ekimena. Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko gizarte osoari zuzendutako prebentzio- eta sentsibilizazio-jarduerak indartu; batez ere, gazteei begira.** | |
| 48 | Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideak prebenitzeko eta/edo sentsibilizatzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei zuzendutako diru-laguntzen deialdia (240.000.- €) (2016-12-12an: deialdia, EHAAn argitaratuta | |
| 49 | "Beldur-Barik" Programa: Gazteen arteko indarkeria sexistaren prebentziorako urteko programa, Emakundek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiekin eta EUDELekin batera bultzatua. | |
| 50 | Diru-laguntzak aratu eta deialdia egin da, 2018. urtean emakumeen aurkako indarkeriazko portaerei buruz sentsibilizatzeko eta/edo halakoak prebenitzeko jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakundeek, elkarteek eta fundazioek laguntza eska dezaten. (240.00.- €)(2017-12-21ean) | |
| 51 | Jabetuz Prestakuntza Programa Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzen dieten profesionalak prestatzeko programa da. | |
| | **3. Ekimena. Neurri zehatzak ezarri emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei ordain ekonomikoa eta morala eta aitorpen soziala emateko.** | |
| 52 | Genero-indarkeria jaso duten emakumeei laguntzak emateko deialdia abiarazi da, genero-indarkeria jasan duten emakumeek laguntzak eska ditzaten, baldin eta diru-baliabide nahikorik ez badute, eta laneratzeko zailtasun bereziak badituzte. (700.000.- €) (2017-03-08) | |
| 53 | EBAZPENA, 2017ko uztailaren 19koa, Gizarte Zerbitzuen zuzendariarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako diru-laguntzetarako zuzkidura argitara emateko dena. Urriaren 29ko agindu horren bitartez, honako prozedura hau ezarri zen: Genero Indarkeriaren aurkako Babes Integraleko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei diru-laguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura. 1.100.000.- € (400.000.- € gehiago) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **4. Ekimena. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimenganako arretaren efizientzia eta eraginkortasuna sustatzea, erakundearteko koordinazioaren bidez.** | |
| 54 | 118/2017 EBAZPENA, azaroaren 9koa, zeinaren bidez xedatzen baita argitaratzea Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eta Mexikoko Estatu Batuetako Gobernazio Idazkaritzaren arteko Memoranduma. Helburua da emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko eta guztiz desagerrarazteko ideien eta esperientzien trukea sustatzea eta sendotzea | |
| 55 | Lankidetza, Nazio Batuen Elkartearekin: **Nazio Batuen Mundu Programa**, indarkeria jaso duten emakumeei eta neskei ezinbesteko zerbitzuak emateari buruz. Honako hauek dira ekimenaren parte hartzaileak: UN Women, UNFPA, Osasunaren Mundu Erakundea, PNUD eta ONUDD. Genero-indarkeria jaso duten emakumeei eta neskei lagundu nahi zaie kalitatezko eta ezinbesteko zerbitzuak eta sektore anitzeko zerbitzuak erabiltzen, zerbitzuak multzo batean koordinatuta. | |
| | **5. Ekimena. Emakumeen aurkako indarkeria goiz antzemateko planak ezarri, gaitz sozial hori aldez aurretik prebenitzeko.** | |
| 56 | Buruko gaixotasuna duten emakumeen aurkako indarkeriari buruzko azterlanaren aurkezpena. (2017-06-14) | |
| | **161. Konpromisoa. Indarkeriaren amaiera ordenatua** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. ekimena. Bizikidetza eta Giza Eskubideen Plana egin eta ezarri.** | |
| 57 | 2017-2020 Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana onartzeko erabakia (2017-10-10ean) | |
| 58 | "Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren gaineko Hezkuntza Programa Osagarria 2017-2020" aurkeztu da. (2017-06-29) | |
| | **2. Ekimena. ETAren armagabetzea eta desegitea. Behin betiko armagabetzeko egutegia ziurtatzea babestu. Aldez arretik ETAk adierazpen bat egin behar du, non azaldu behar baitu armagabetzea atzeraezina eta baldintzarik gabekoa dela, desegiteko borondatearen seinale.** | |
| 59 | Otsailetik apirilera: 2017ko apirilaren 8ko armagabetzea eragin zuen prozesuan laguntza-zereginetan era aktiboan parte hartzea. | |
| | **4. Ekimena. Iragana argitu, 1960tik eta 2010era gertatutako giza eskubideen urraketei eta haien biktimei dagokienez.** | |
| 60 | "ETAk enpresa-munduaren aurka egindako indarkeriari eta estortsioari buruzko txostena" argitaratu da. Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuaren Zentroak egin du. (2017ko martxoan). | |
| 61 | "Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egoera eguneratua" jendaurrean aurkeztu zen. Giza Eskubideen serieko lehen txosten da. Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin lankidetzan, txosten monografikoak eta kasuen azterketak sustatu nahi dira. (2017-05-17an). | |
| 62 | "Euskadin gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua (1960-2014)" txostena jendaurrean aurkeztea. Kriminologiaren Euskal Institutuak egin du, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **162. Konpromisoa. Egia-, justizia- eta erreparazioa- eta elkartasun-politika publikoak ezarri biktima guztiekin.** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Terrorismoaren biktimei dagokienez, jarraitu bultzatzen, indarrean dauden arauei eta bereziki 4/2008 Legeari jarraikiz, azken legegintzaldiko politikak, laguntza-, aitorpen- eta erreparazio-gaietan.** | |
| 63 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, terrorismoaren biktimei arreta, elkartasuna eta babesa eskaintzea bultzatzen duten erakundeek eta elkarteek eska ditzaten (260.000.- €).(2017-06-21ean) | |
| | **2. Ekimena. Arrazoi politikoengatiko indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta ordaina emateari buruzko 12/2016 Legea garatu (Eusko Legebiltzarrak 2016ko uztailaren 28an onartua).** | |
| 64 | "Oinarri politikodun indarkeria-testuinguruetan giza eskubideen urraketa edo bestelako sufrimendu bidegabeak pairatu dituzten biktimei buruzko Balorazio Batzordearen txostena 1960-1978" aurkeztea. (2017-06-26an) | |
| 65 | Estatuko Gobernuak errekurtsoa aurkeztu, eta 12/2016 Legearen legezkotasuna zalantzan jarri du. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak Konstituzio Auzitegian defendatu du biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko 12/2016 Legearen erabateko legezkotasuna. (2017-09-12a) | |
| | **3. ekimena. Batera konpromiso-agirian oinarrituta, biktimen eta gizartearen arteko batasuna bultzatzen duten jarduera-lerroak bultzatu, bai eta haren partaidetza etorkizunaren eta bizikidetzaren eraikuntzan ere.** | |
| 66 | Terrorismoaren biktimak gizartean eta erakundeetan aitortzeko ekitaldia egin zen Gasteizen. Hona hemen ekitaldiaren leloa: "Memoria eta etorkizuna". Elkarrekin eraiki". Egun hori Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna izan zen. (2017-03-10) | |
| | **163. Konpromisoa. Memoria kritikoa, terrorismoaren edo indarkeriaren edozein formaren legitimazioa, konpentsazioa edo minimizazioa arbuiatzen oinarrituta** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren 2017- 2020 Plan Estrategikoa ezarri.** | |
| 67 | Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendariak Gogoraren 2017- 2020 Jardun Plan Estrategikoa onartu du. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **2. Ekimena. Memoria historikoaren arloan, zehaztu memoria historikoaren egia argitzeko eta euskal erakundeek aitortzeko eta biktimei ordaina emateko prozesu baten edukia.** | |
| 68 | Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko diru-laguntzen 2017ko deialdia argitaratzea (105.000.- €). (2017-06-28) | |
| 69 | Seihilekoan: Matxitxakoko batailan hil ziren pertsonak omendu eta oroitzeko ekitaldi bateratua egin zen. Durangoko bonbardaketaren 80. urteurrena zela-eta, oroimen-ekitaldia antolatu zen, eta lehendakariak parte hartu zuen. Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena oroitu eta omentzeko ekitaldiak. Santurtzin EAEko hainbat portutatik gerratik ihesean ontziratu behar izan zuten 20.000 haurrak oroitzeko eta omentzeko ekitaldiak egin ziren. Gerra Zibilaren ostean, **Gurs-eko kontzentrazio-esparruan** konfinatuta egon ziren pertsonak oroitzeko ekitaldi instituzionala (Nafarroako Gobernuarekin batera antolatuta). | |
| 70 | Turtzioz-eko Manifestuaren 80. urteurrena ospatzea. | |
| 71 | Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiekin eta lurralde bietako udalekin lankidetza-protokoloa sinatzea, Burdin Hesia zaintzeko eta nabarmentzeko. (2017-09-26a) | |
| | **164. Konpromisoa. Espetxe-politika, legezko printzipio hauetan oinarrituta: indibidualizazioan, humanitatean, sortutako kaltearen aitorpenean eta birgizarteratzean** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Espetxe-politika berrorientatzeko oinarri-proposamen bat bultzatu, zeinaren helburu nagusia izango baita birgizarteratzea, eragin humanitario handieneko arazoei lehentasunezko arreta ematea, presoen hurbilketa erraztea eta espetxe eskumena EAEri eskualdatzeko eskatzea.** | |
| 72 | Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak eskatuta, Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutuak egin duen "Urruntzeko espetxe-politikak presoen familiengan duen eraginari buruzko txostena" aurkeztea. (2017-11-24a) | |
| | **165. Konpromisoa. Memoria kritikoa, terrorismoaren edo indarkeriaren edozein formaren legitimazioa edo minimizazioa arbuiatzen oinarrituta** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **5. Ekimena. Elkartasuna sustatu, giza eskubideei dagokienez hauskortasun handiko egoerak antzemateko mekanismoak bultzatuz, herritarren eta elkarteen inplikazioa erraztuz eta errefuxiatuei eta migratzaileei harrera eta elkartasuna ematea ahalbidetuz.** | |
| 73 | Lehendakaritzan ekitaldi eta aitorpen instituzionala egin zen, errefuxiatuen egoerari lotutako europar krisi humanitario larria dela eta. | |
| 74 | "Eusko Jaurlaritzaren esparru-txostena, **errefuxiatuek Europako mugetan** bizi duten krisi humanitarioari ematen zaion erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailartekoa modu partekatuan bideratzeko" aurkeztu zen. Errefuxiatuen egoerari erantzun bat emateko lan-mahaian parte hartzen duten erakundeek eta gizarte-elkarteek ere txostena egiten jardun dute. | |

| | | |
|---|---|---|
| 75 | 150.000 euroko laguntza eman zion Itsas Laguntza Humanitarioari pertsona errefuxiatuak erreskatatzeko. (2017-07-11) | |
| | **166. Konpromisoa. Bake- eta bizikidetza-kultura, giza eskubideen eta pluralismoaren errespetuan oinarrituta** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Bizikidetzarako heziketa- eta giza eskubideen heziketa indartzeko programa bat garatu, honako hiru ardatz hauek erabilita: indarkeriarik eza eta giza eskubideak; aniztasuna eta giza eskubideak; eta elkartasuna eta giza eskubideak.** | |
| 76 | Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuak programaren 2017ko deialdia (250.000.-€). (2017-06-21). | |
| | **2. Ekimena. Bizikidetzarako heziketa- eta giza eskubideen heziketa indartzeko programa bat garatu, honako hiru ardatz hauek erabilita: indarkeriarik eza eta giza eskubideak; aniztasuna eta giza eskubideak; eta elkartasuna eta giza eskubideak.** | |
| 77 | René Cassin sariak "Sexual Minorities Uganda" erakundeari eman zitzaizkion, 2017an. | |
| | **3. Ekimena. Elkarte-mugimenduan parte hartzea eta harekin lankidetzan aritzea bultzatu, edo tokiko eremuan giza eskubideen alde egiten diren jarduerak babestu.** | |
| 88 | 2017ko deialdia, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan, toki-erakundeek garatzen dituzten programak eta ekimenak diruz laguntzeko. EHAA, 49. zk. (2017-03-10). | |
| 79 | 2017ko deialdia, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak garatzen dituzten erakundeei eta gizarte-mugimenduei diruz laguntzeko. (600.000 €) 80. zenbakiko EHAA. (2017-04-27a). | |
| 80 | Elkarrekin Bonuak programaren deialdia, udal arloan eta Elkarrekin Bonuak programaren deialdia, gizartearen parte-hartze arloan (2017-06-01a). | |
| | **5. Ekimena. Giza eskubideen gaian lankidetzan aritu nazioarteko erakundeekin.** | |
| 81 | 200.000 euroko laguntza eman da, Bulgariako harrera-esparruetan dauden adinez txikikoei laguntzeko (2017-10-17a). | |
| 82 | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Addameer Prisoner Support and Human Rights Association delakoak hitzarmen bat sinatzea baimentzeko akordioa. Hitzarmenaren xedea: Palestinako lurralde okupatuan palestinar preso politiko eta atxilotuen eskubideak babesteko proiektu bat finantzatzea. | |
| 83 | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Asociación Comunitá di Sant'Egidio-ACAP elkarteak hitzarmen bat sinatzea baimentzeko akordioa. Xedea: Mozambikeko erregistro zibilaren sistema indartzea. | |
| 84 | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta "Fundación Fondo Centroamericano de Mujeres" fundazioak hitzarmen bat sinatzea baimentzeko akordioa. Hitzarmenaren xedea: Erdialdeko Amerikan giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen ikuspegia eskualdean indartzeko proiektu bat finantzatzea. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **167. Konpromisoa. Elkarrizketa eta akordioa, funtsezko lanabes demokratikoa, bizikidetza-kultura sustatzeko.** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean Euskadiko Memoriari eta Bizikidetzari buruzko batzorde txostengile espezifiko bat sortzea sustatu.** | |
| 85 | Eusko Legebiltzarreko Giza eskubideen eta Berdintasunaren Batzordean agerraldia egin zen, Bizikidetza eta Giza Eskubideen 2017-2020 Planaren proposamena aurkezteko. (2017-06-21). | |
| | **168. Konpromisoa. Garapenerako lankidetzari buruzko politika finkatu, eta euskal lankidetza-eredua gaurkotu** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Euskal eragile publikoek lankidetza-arloan duten harremana areagotu** | |
| 86 | Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak "Euskadiko Gazteak Lankidetzan" programaren deialdi berria antolatzea onartu du. Lankidetza-programa horretan 22 eta 30 urte arteko 100 euskal gaztek lekualdatzeko eta beste herrialde batzuetako lankidetza-jardueretan parte hartzeko aukera dute, Gobernuz Kanpoko Erakundeekin kolaboratuz. (150.000.- €) (2016-12-07a) | |
| 87 | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Emakunderen eta Munduko Landagunearen familia nekazaritza eremuko lankidetza sendotzeko esparru-hitzarmena formalizatu da. (2017-01-24a) | |
| 88 | Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bitartez (GLEA), diru-laguntzak ematea onartu du EAEko GGKEek larrialdietako eta ekintza humanitarioko proiektuak gara ditzaten munduko hainbat lekutan. (4,5 milioi euro) (2017-07-26a) | |
| | **4. Ekimena. Garapenerako lankidetzako tresna berrikusiak eta berrituak eskura izan, eta estrategia espezifikoen ezarpena bultzatu.** | |
| 89 | Ekintza humanitariotarako laguntzen deialdia egin da; zehazki, 4.700.000 eurokoa. Garapenerako Lankidetzan zorpetuko da. 2017ko apirilaren 11ko Ebazpena, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarena. Ekintza humanitarioetarako laguntzen deialdira bideratutako diru-zuzkiduraren zenbatekoa handitzen da, garapenerako lankidetzaren kargura, 2017ko ekitaldirako: 4.700.000 euroren ordez (2017-04-11ko ebazpena), 5.400.000/ 700.000 euro gehiago; eta 5.400.000 euroren ordez, 5.493.924 euro (2017-09-17a). | |
| 90 | Garapenerako lankidetza proiektuetara bideratutako laguntzen deialdia egin da. 2017an, 35 milioi eurokoa da. 2017-05-17ko Ebazpena; eta 2017-09-26ko Ebazpena.<br>Laguntza horien bidez, hiru modalitatetako proiektuak finantzatuko dira:<br>1. Garapenerako lankidetza-proiektuak, hegoaldeko herrialde pobretuetan pobreziaren aurkako borrokarako lagungarriak. (32.750.000.- €).<br>2. Ekoizpen-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak, hegoaldeko herrialde pobretuetan pobreziaren aurkako borrokari zuzenean lotuak (1.200.000.- €).<br>3. Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako garapenerako hezkuntza-proiektuak, munduan desberdintasunak sortzen dituzten kausen ulermena sustatzeko eta herritarren inplikazioa eta konpromisoa pizteko egungo gizarte-ereduen eraldaketarekin. (6.050.000.- €). (2017-10-18a) | |
| 91 | (H)ABIAN 2030 - Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia aurkeztu zen jendaurrean. Esparru-dokumentu bat da, Euskal erakunde publikoak, GGKEak eta Euskadiko | |

| | | |
|---|---|---|
| | beste erakunde eta mugimendu batzuk giza eskubideetan eta botere-harreman zuzenetan oinarrituta egongo den eta globalaren eta bertakoaren arteko lotura bat sorraraziko duen gizarte bat eraikitzeko ekimenak bultzatzeko. (2017-03-03) | |
| | **169. Konpromisoa. Ebaluazio-kultura sustatu, lankidetzari dagokionez.** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **2. Ekimena. Lankidetza-gaietan ebaluazio-eta etengabeko hobekuntza dinamikak bultzatu.** | |
| 92 | Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana (2014-2017) ebaluatu da. Ebaluaketari esker lortutako ikasketa eta gomendioak, IV. Gida Planaren lanketan erabiliko dira. | |
| | **170. Konpromisoa. Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren gaitasunak indartu, garapenerako lankidetzako politika diseinatzeko eta kudeatzeko** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziaren administrazioaren modernizazioa bultzatu, kudeaketa efizienteagoa eta eraginkorragoa lortzeko, bai eta babestutako ekimenei kalitatezko laguntza emateko ere.** | |
| 93 | Ekainaren 7ko 14/2017 Dekretuaren bidez, Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortu eta arautzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zen. | |
| | **171. konpromisoa. Lankidetza-politikak koherentzia, koordinazioa eta parte-hartze handiagoa eduki** | **Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia** |
| | **1. Ekimena. Garapenerako lankidetzako politika publikoen koherentzia bultzatu, bai eta erakundeen arteko koordinazioa ere.** | |
| 94 | Bi Landa Topaketa egin dira. Landa Topaketak euskal sarearen arteko elkartrukerako topaguneak dira, landaren eta nekazaritzaren garapen jasangarria sustatzeko (munduan eta EAEn). | |
| | **2. Ekimena. Aliantzak garatzea bultzatu, Estatuan, Europan eta nazioartean, ekimen estrategikoak abian jartzeko.** | |
| 95 | Deialdia, Nazio Batuen erakundeko nazioarteko erakundeentzako eta erakunde horiei loturiko pertsona juridikoentzako laguntzak, 2017. urtean erakunde horiek herrialde txirotuetan egiten dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei bekak emateko. (300.000.- €). 2017-06-01eko EBAZPENA. | |

| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | Konpromisoak: 56-63 172-175 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **56. Konpromisoa. Enplegu publikoaren arau-esparrua zerbitzu publiko gehiago eta hobeak eskatzen dituen gizartearen beharretara egokitu. Euskal Enplegu Publikoko Legea.** | **Funtzio Publikoaren Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartzea.** | |
| 1 | Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2017-10-16ko Aginduaren bidez, euskal enplegu publikoaren lege-proiektua aurretiaz onartu da. Hori baino lehen, herritarrei kontsulta publikoa egin zaie, legea diseinatzeko prozeduraren barne. | |
| | **57. Konpromisoa. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen osotasun etikoa ziurtatu** | **Funtzio Publikoaren Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. EAEko sektore publikoko kargu publikodunek “Etika eta jokabide onaren kodean” jasotako estandar etikoak beteko dituztela zaindu.** | |
| 2 | Etika eta Jokabide Kodeari atxikitako pertsonei zuzendutako prestakuntza jardunaldien zikloa: “Etika publikoa Gobernu Irekiaren erronken aurrean” (2017ko ekainaren 14an); “Instituzioen integritatea: kargu publikoak, zuzendaritzako langile publikoak eta funtzionarioak” (2017ko abenduaren 20an) | |
| 3 | Eusko Jaurlaritzako Etika Publikorako Batzordearen 2016ko Memoria argitaratu da (2017ko uztailean). | |
| | **2. Ekimena. Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak ezartzen dituen betebeharren jarraipena eta kontrola egiteko “Langileen Erregistro Zerbitzua” bultzatu (1/2014 Legeak Kargu publikodunen Jokabide Kodea eta haien interes gatazkak arautzen ditu).** | |
| 4 | Eusko Legebiltzarrari txosten bat bidali zaio, honako azterketa hau bertan bilduta: kargu publikodunek noraino bete dituzten Kargu Publikodunen Jokabide-kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean ezarritako betebeharrak. (2017ko ekainean) | |
| | **58. Konpromisoa. Euskal enplegu publikoa erronka berrietara egokitu** | **Funtzio Publikoaren Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Enplegu Plana garatu.** | |
| 5 | Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioentzat erreserbatzen diren III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C berariazko osagarridun lanpostuak hornitzeko lehiaketa orokorraren deialdia eta oinarriak. | |

| | | |
|---|---|---|
| 6 | Ebazpena, 2017ko urriaren 18koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, zerrendan ageri diren entitateei laguntzak esleitzen dizkiena, bertan jarduten duten pertsonen prestakuntza finantzatzeko. (1.488.097.- €) (2017-10-23) | |
| 7 | 2017ko lan-eskaintza publikoa onartu da: enplegu publikoko 4.583 lanpostu eskaini dira, EAEko Administrazio osorako (BOPV). (2017-12-26) | |
| | **2. Ekimena. Administrazio Orokorreko Berdintasunerako I. Plana garatu.** | |
| 8 | Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehenengo planaren barruan, Berdintasunerako batzorde iraunkorra eratu da. Halaber, Batzordearen Funtzionamendu araubidea garatu da (2017ko martxoan). | |
| | **3. Ekimena. Lanpostu-zerrendaren beste balorazio bat egin, euskal administrazio moderno, telematiko, zero papereko eta gardenari egokitzeko, eta hizkuntza-eskakizunak egokitzen eta eguneratzen jarraitzeko.** | |
| 9 | "Administrazio-ereduari buruzko herritarren eskariaren eta proiekzioaren analisia (Administrazio-ereduari buruzko analisi prospektiboa)" izeneko proiektua jarri da abian. | |
| | **59. Konpromisoa. Sektore publikoa sinplifikatu.** | **Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Euskal Sektore Publikoaren Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Legea onar dadin bultzatu.** | |
| 10 | Euzko Abertzaleak eta Euskal sozialistak Legebiltzarreko taldeek Legebiltzarrean Lege proposamen bat erregistratu zuten autonomia erkidegoaren sektore publikoaren eraginkortasuna indartzeko. Administrazioen mendeko erakundeak eta organismoak beste era batera antolatzea proposatzen zuten. (2017-09-15) | |
| 11 | "Sektore Publikoaren Antolaketari eta Funtzionamenduari" buruzko Lege Proposamenaren aldeko jarrera hartu zuen Eusko Jaurlaritzak. (2017-10-03) | |
| | **60. Konpromisoa. Efizientzian eta berrikuntzan oinarritutako administrazio publiko hurbilagoa bultzatu.** | **Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetza eta Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** |
| | **3. Ekimena. Paperik gabeko administrazioa eta administrazioen arteko benetako elkarreragingarritasuna burutu.** | |
| 12 | Eusko Jaurlaritzak papera erabiltzeari utzi dio EAEn erregistraturik dauden elkarteekiko harremanetan (2017-05-01) | |
| 13 | Gobernu Kontseiluak "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zehapen-prozedurak elektronikoki izapidetzeko" jarraibidea onartu du gaur. Hemendik aurrera, administrazio-erakunde guztiek "Tramitagune" informatika-tresna erabili beharko dute. Tresna hori prozeduren barne-kudeaketa elektronikoa egiteko erabiltzen da. | |

| | |
|---|---|
| 14 | EAEko Administrazioen arteko Elkarreragingarritasuneko eta Segurtasuneko Nodoa abian jarri da. Administrazio guztiak lotzen dituen plataforma da, EAEko sektore publikoko administrazioen eta erakundeen artean datuak trukatzeko. (2017ko uztailean). |
| 15 | Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseiluak ekin dio elkargo ofizialen arrazionalizazioa egiteari, sektore publikoan erredundantziarik egon ez dadin. |
| | **4. Ekimena. "Konbergentzia Plan Orokorra IKTen arloan" ekintza-planaren neurriak ezarri. Halaber, egokitu egingo da informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretua.** |
| 16 | Datuak Prozesatzeko Zentroak bateratzeko lehenengo urratsak egin dira. Erandioko Datuak Prozesatzeko Zentroak, EJIEkoak eta Eustatekoak jarduketak egin dituzte. |
| | **5. Ekimena. Gobernu digitalaren estrategia sustatu; horretarako, EAEko administrazioen arteko elkarlana eta plataforma digital konpartituak garatzea bultzatuko da, eta ekintza publiko-pribatuan sortutako datu digitalek sortutako aukerak aprobetxatuko dira zerbitzu publiko berriak optimizatu, aldatu edo sortzeko. (Digital Moments).** |
| 17 | EAEko tokiko erakundeekiko lankidetza-hitzarmena argitaratu da. Herritarrek izapide gutxiago egin beharko dituzte, Euskadiko udalekin harremanetan jartzeko (2017-05-10eko EHAA). |
| 18 | Belaunaldi berriko banda zabaleko sareak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleguneetan zabaltzeko laguntzen deialdia argitaratu da. 10 milioi euro. 2017. urtean: 1.500.000 euro. 2018. urtean: 4.505.000 euro. 2019. urtean: 3.995.000 euro. EHAA |
| | **6. Ekimena. Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura teknologikoak prestatu, IoT-tik datozen aukerak aprobetxatu ahal izateko (Gauzen Internet).** |
| 19 | Sofia2ri buruzko IoT-en plataforma pilotu bat prestatu da. |
| | **7. Ekimena. "Open data" datu irekien plan operatiboa garatu.** |
| 20 | Open Data Euskadiren datuen katalogoa Euskadiren datu irekien bestelako ekimen publikoen datuak ematen hasi zen iragan den martxoan. Gaur egun, hiru administraziok datuak aldi berean federatzen dituzte, Open Data Euskadi erabiliz. Honako hauek dira:<br>- Gipuzkoako Foru Aldundia: Gipuzkoa Irekia katalogoan 350 datu-multzo baino gehiago argitaratuta daude.<br>- Bilboko Udala: Bilbao Open Data katalogoan 150 datu-multzo baino gehiago argitaratuta daude.<br>- Gasteizko Udala: Open data Vitoria-Gasteiz katalogoan 100 datu-multzo baino gehiago argitaratuta daude. |
| | **8. Ekimena. EAEko Administrazio Orokorreko maila anitzeko erakundez osatuta dauden kontseiluak aztertu, eta identifikatu horietatik zeinen zereginak bete ditzakeen "Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua"k.** |
| 21 | 2017-06-21ean: "Tokiko Politika Publikoen Euskal Kontseilua" sortu da. Elkargune eta langunea izango da. EAEko hiru maila instituzionalak barne hartzen ditu. |

| | | |
|---|---|---|
| | **61. Konpromisoa. Gardentasuna eta herritarren partaidetza sustatu.** | **Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskal Sektore Publikoaren Gardentasuna, Herri Partaidetza eta Gobernu Oneko Legea onar dadin bultzatu.** | |
| 22 | 2017ko Urteko Araugintza Plana argitaratu da. Dekretu-maila duten eta ekitaldi horretan onartu nahi diren xedapen orokor guztiak biltzen ditu (guztira 94 dekretu). | |
| 23 | Gardentasunaren, Herritarren Partaidetzaren eta Gobernu Onaren lege-proposamena erregistratu da, Legebiltzarrean izapidetzeko. (2017-07-20). | |
| | **2. Ekimena. Gardentasunaren Sailarteko Batzordea eratu Eusko Jaurlaritzan.** | |
| 24 | Gobernantzaren, Gardentasunaren eta Herritarren Partaidetzaren Sailarteko Batzordea eratu da (2017-07-11). | |
| | **7. Ekimena. Eusko Jaurlaritzaren informazio osoaren publizitate aktiboa sustatu modu proaktiboan.** | |
| 25 | “2016ko balantze txostena: EAEko Administrazio Orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko txostenaren berri eman da, eta gardentasuna eta gobernu ona sustatzen jarraitzeko neurriak onartu dira”. Txosten horren arabera, EAEko Administrazio Orokorrak guztiz betetzen ditu erregelamendu horren xedapenak, eta EAEren sektore publikoa osatzen duten erakundeek ere betetzen dituzte (Gobernu Kontseiluaren 2017ko martxoaren 28ko akordioa). | |
| | **62. Konpromisoa. Gobernantza publikoan berritzailea den Europako eskualde gisa sendotu Euskadi** | **Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa onartu, Gobernu Programa honetan administrazio publiko berritzaile, ireki eta parte-hartzailea eraikitzeko jaso diren konpromisoen lana planifikatzeko.** | |
| 26 | “Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko 2020 Plan Estrategikoa” onartu da, eta 71,6 milioi euroko inbertsioa egingo da Euskadi 2020. urtean gobernantza publikoaren arloan, Europako eskualde berritzaile gisa sendotzeko (2020-12-12) | |
| | **63. Konpromisoa. Hiriburutza dela-eta, Gasteizekin hartutako erantzukidetasun-konpromisoari eutsi** | **Erakunde Harremanetarako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gasteizen hiriburutza-kanona areagotu, erakunde komunen egoitzak izateagatik hiriak duen zama konpentsatzeko elementua baita.** | |
| 27 | Eusko Jaurlaritzak eta Vitoria-Gasteizko hiriak lankidetza hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren bidez, 40 milioi euro zuzentzen zaizkio hiriburuari, herritarren ongizatean eta bizi-kalitatean erreferente izaten jarraitzeko. (2017-06-07) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **172. Konpromisoa. Autogobernu aitortuaren defentsa eta eskakizuna** | **Araubide Juridikoaren Sailburuordetza** |
| | **4. Ekimena. Estatuaren arau-ekimenen legalitate konstituzionalari eta Gernikako Estatutuarekiko errespetuari buruzko txostenak egin.** | |
| 28 | 2017ko irailean Eusko Jaurlaritzak bi txosten onartu zituen, eta Eusko Legebiltzarrari bidali zizkion. Txosten horietan Gernikako Estatutuari zor zaion errespetuaren eta legezkotasun konstituzionalaren arteko harremana sakon aztertzen zen. | |
| | **173. Konpromisoa. Eskuratzeke dauden Gernikako Estatutuko eskumenen transferentzia burutzeko eskatu** | **Araubide Juridikoaren Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Eusko Legebiltzarrean eratutako Autogobernuaren Batzorde Txostengileak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak proposamen bat bidaliko dio Ganberari, non oraindik egiteke dauden transferentzien katalogoa gaurkotzeaz gain, zehatz-mehatz islatuko baita Gernikako Estatutua amaitutzat eman ahal izateko EAEri legez aitortutako baina oraindik gauzatzeke dagoen autogobernu formalaren quantuma.** | |
| 29 | Eusko Jaurlaritzak onartu eta Eusko Legebiltzarreko Autogobernuaren Batzorde Txostengileari bidali zizkion Euskadiren Autogobernua eguneratzeari buruzko bi txosten. Txosten bat egiteke dauden transferentziei buruzkoa zen; eta bestea, EAEn benetan baliatu ahal diren eskumenen arabera, EAEko erakundeek politika publiko zehatz batzuk zehazteko ahalmenari buruzkoa. | |
| | **174. Konpromisoa. Hobetu barrura begirako autogobernua Egungo erakunde esparruari buruzko proposamenak** | **Araubide Juridikoaren Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Euskal zuzenbide zibilaren garapena bultzatu.** | |
| 30 | Euskal Zuzenbide Zibileko Batzordea sortu da, arlo horretako ikerketak eta ebaluazioak egiteko, baita Eusko Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari aholku emateko ere. (2017-11-29) | |
| | **175. konpromisoa. Estatutu-ituna eguneratu** | **Araubide Juridikoaren Sailburuordetza** |
| | **1. ekimena. Legebiltzarreko batzorde txostengilearekin lankidetzan aritu, estatutu-ituna eguneratzeko.** | |
| 31 | Eusko Jaurlaritzak onartu eta Autogobernuaren Batzorde Txostengileari bidali zizkion, batzordeak eskatutako bi txosten. Txosten bat egiteke dauden transferentziei buruzkoa zen; eta bestea, EAEn benetan baliatu ahal diren eskumenen arabera, EAEko erakundeek politika publiko zehatz batzuk zehazteko gaur egungo ahalmenari buruzkoa. (2017-09-22) | |

| EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA | | Konpromisoak: 12-20<br>25- 27<br>33- 40 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **12. Konpromisoa: "Basque Industry 4.0". Euskal industriaren aldeko plan integrala** | **Industria Sailburuordetza** |
| 1 | 2017-2020 "Basque Industry 4.0" Industrializazio Plana onartu da. **Zenbatekoa:** 1.225 euro, 2017-2020 aldiko; eta urtean ia 1.000 milioi euro, bermeen eta beste finantziazio tresna batzuen bidez. | |
| | **13. Konpromisoa. ETEei lagundu eta zailtasunak dituzten enpresak berregituratu** | **Industria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskal enpresa txikiek eta ertainek inbertsio produktiboan eta finantzaketan dituzten beharrei laguntzeko finantzabide eta abal publikoak bultzatu.** | |
| 2 | Elkargi SGR sozietateari diru-laguntza eman zaio, Zuzkidura teknikoen funtsa indartzeko. Gehieneko kopurua: 1.000.000 euro. | |
| 3 | 221/2017 DEKRETUA, irailaren 19koa, enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresaburuentzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren 2017ko programa garatzen duena. Zenbatekoa: 600 milioi euro, maileguetan. | |
| | **2. Ekimena. "Bideratu" programa sendotu, zailtasunak dituzten enpresak berregituratzeko tresna gisa.** | |
| | **5. Ekimena. Lan Merkatuari buruzko Informazio Sistema Integrala bultzatu.** | |
| 23 | "Future Lan" tresna abian jarri da, EAEko enplegu eta lan joeren prospektiba behatokia. Tresna horretan 2030era arte EAEn ekonomia- eta okupazio-sektoreetako enplegu-proiekzioak biltzen dira. | |
| | **4. konpromisoa. Prestakuntza eta birziklatze profesionala hobetu** | **Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Prestakuntza eta birziklatze profesionala sustatu.** | |
| 24 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntza-ekintza estrategikoak gauzatzeko. Zenbatekoa: 3.140.000. | |
| 25 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunez langile landunek lan-prestakuntza jaso dezaten. Zenbatekoa: 12.560.000 euro. | |
| 26 | Prestakuntza-ekintzak, langile landunei lehentasuna emanda. Lanbidek Hezkuntza Sailari egindako gomendioa. Zenbatekoa: 2.099.818 euro. | |
| 27 | Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren artekoa, EAEko pertsona langabeentzako eta landunentzako nekazaritzako, elikagaigintzako eta itsasoa eta arrantzako arloetako prestakuntza-programazioa gauzatzeko kudeaketa-gomendioari buruzkoa. Zenbatekoa: 354.994,50 euro. | |
| 28 | Gomendioa, Lanbideren eta Hezkuntza Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioa, EAEko langile langabetuei eta landunei zuzendutako prestakuntza-programazioa egiteko (2017-11-28). | |
| | **2. Ekimena. Enplegurako lanbide-heziketaren kudeaketa osoa Lanbiden bateratu, Hobetuz ere barne hartuta.** | |
| 29 | Enplegurako lanbide-heziketaren kudeaketa osoa Lanbiden bateratze aldera, Hobetuzen funtzioak ere erakunde autonomoan sartu dira. | |
| | **4. Ekimena. Enplegurako zeharkako trebetasunak eskuratzea bultzatu.** | |
| 30 | Ikus 1. ekimeneko deialdiak: Enpleguaren 2017-2020 Plan Estrategikoa onartu | |
| | **5. konpromisoa. Gazteen laneratzea sustatu.** | **Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gazteentzako enplegu-plan bat sustatu.** | |
| 31 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, ikas-ekinezko Hezibi programarako. Programa hori lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei laguntzeko pentsatuta dago, haien lanbide-gaitasunak profesionaltasun-ziurtagiria eta lanbide-heziketako titulua ikas-ekineko modalitatean eskuratuz hobetzeko. Zenbatekoa: 1,47 milioi euro. | |

| | |
|---|---|
| 32 | Eusko Jaurlaritzaren, EAEko hiru unibertsitateen, lanbide-heziketako zentro publikoen IKASLAN elkarteen eta HETEL gizarte-ekimeneko lanbide-heziketako zentro pribatu-itunduen elkarteen arteko esparru-akordioa, hezkuntza-eremutik lan-eremurako trantsizioa eta ikasle eta tituludunen ekintzailetza sustatzeko. 4 milioi euro urtean, 1.500 ikasle gazte edo tituludun, urtero, lan-munduan lehen aldiz sartu ahalko dira, eta, halaber, 150 proiektu ekintzaile sortzen lagunduko da. |
| 33 | 2017ko laguntzen deialdia, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko.Lehen Aukera programa. 2017an espero da 872 praktika-kontratu eta mugagabeko 90 kontratu finantzatzea. Zenbatekoa: 4 milioi euro. |
| 34 | Txanda-kontraturako 2017ko laguntzen deialdia, 30 urtetik beherako pertsona batek erretiro partziala hartzen duen pertsona bat ordezteko. 6.000 euro diru-laguntza, kontratatzen den pertsona bakoitzeko. Zenbatekoa: milioi 1 euro. |
| 35 | 2017ko laguntzen deialdia, euskal enpresek atzerrian dituzten lantokietan gazte langabeak praktiketan kontratatzeko. Zenbatekoa: 1.010.000 euro. |
| 36 | Gazteak itzultzeko laguntzen 2017ko deialdia, gazteak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzeko xedez. Zenbatekoa: 1.766.667 euro. |
| 37 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, langabezian dauden gazteak kontratatzeko edo haiei prestakuntza emateko, 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan. Zenbatekoa: 10.000.000 euro. |
| 38 | Gaztelan programa erabilgarri egongo da, 2017ko urritik 2018ko uztailera. Programa honen xedea Sestaoko 120 gazte langabe laneratzea. Zenbatekoa: 720.000 € (532.594 €, Europako Gizarte Funtsaren gazten enpleguaren 2014-2020 programa operatiboaren bitartez; eta 187.406 €, udal aurrekontutik). |
| 39 | Eusko Jaurlaritzak, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek, Confebaskek, ASLEk eta Konfekoop-ek lankidetza-protokolo bat sinatu zuten, gazteak itzultzeko programaren hedapenerako. |
| | **125. konpromisoa. IV. Gazte Plana onartu (Gazte Plana 2020)** — **Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. IV. Gazte Plana onartu (Gazte Plana 2020)** |
| 40 | Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana 2020 onartu arte, aldi baterako neurriak onartzen dituen akordioa. |
| 41 | III. Gazte Planaren 2016ko jarraipenari buruzko txostena aurkeztu. Inpaktuaren ebaluazioa. |
| 42 | “Auzolandegiak” programaren deialdia, gazteek EAEko lurrean, beste erkidego autonomo batzuetan eta atzerrian dauden auzolandegietan parte har dezaten (2017-03-21) |
| 43 | Mugikortasuna edo gazte trukea sustatzeko jarduerak 2017an garatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri da. (145.000.- €)(2016-12-26a) |
| 44 | Euskadiko Gazteak Lankidetzan programaren urteko deialdia, 2018ko edizioan. Programaren bidez, 22 eta 30 urte arteko 100 euskal gazteei lankidetza-ekimenetan parte hartzeko aukera ematen zaie, Gobernuz Kanpoko Erakundeen elkarlanean. (155.000.- €) (2017-12-19) |

| | | |
|---|---|---|
| 45 | IV. Gazte Plana egin aurretik, gazteen egoera 2017ko urtarrilaren 1ean zein den zehazteko. III. Gazte Plana osatzen duten 29 adierazleen ebaluazioa egin da, eta emaitzetan ikusi da helburuen % 75 bete direla edo joera positiboa dutela. | |
| 46 | Mugikortasuna edo gazte trukea sustatzeko jarduerak 2017an garatzeko 2017an eman diren diru-laguntzen zerrenda, 2016ko abenduaren 14ko Aginduaren babesean._(144.000.- €) (2017-10-13) | |
| | **126. konpromisoa. Diru-sarrerak bermatzeko Errenta finkatu.** | **Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Krisi ekonomikoak eragindako txirotasun-egoera berriei erantzun** | |
| 47 | Eusko Jaurlaritzak hamabost proposamen egin ditu, Diru-sarrerak bermatzeko Legearen erreformari buruzko adostasuna Eusko Legebiltzarrean bultzatzeko (2017-05-31) | |
| 48 | Diru Sarrerak bermatzeko Errentari eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari aurre egiteko gastu multzoa baimendu da, 2018an. (491,3.- M €)(2017-12-19) | |
| | **2. Ekimena. Erakundearteko batzorde teknikoa eratzea, diru-sarrerak bermatzeko errenta optimizatzeko** | |
| 49 | Gizarte Inklusioaren Erakundearteko Batzordeari bultzada berri bat eman zaio. Batzordeak hainbat ekarpen egin ditu, diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetzeko proposamenari lotuta (2017-09-20). | |
| | **3. Ekimena. Diru-sarrerak bermatzeko Errenta tramitatzeko prozesuak sinplifikatu eta normalizatu** | |
| 50 | Diru-sarrerak bermatzeko errentaren sistema eta etxebizitzaren prestazio osagarria eguneratzeko neurriak aurkeztu dira. Horren bidez, Lanbidek hobeto kudeatu, kontrolatu eta azalduko ditu pobrezia saihesten duten laguntzak; eta prestazioa jasotzen duten pertsonei erantzun azkarragoak emango dizkie (2017-03-22). | |
| 51 | Lanbide berritzeko eta modernizatzeko proposamen bat egin da. Proposamen horretan, prestazioen kudeaketa hobetzeari ere heltzen zaio. Proposamena Legebiltzarrean eztabaidatuko da. | |
| 52 | Lanbideren webgunean (www.lanbide.net) diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) interpretatzeko irizpideen dokumentua argitaratzen da. | |
| | **5. Ekimena. Gizarte-laguntzen erabilera egokia bermatu** | |
| 53 | Legebiltzarrean hamabost proposamen egin ziren, Diru-sarrerak bermatzeko Errentari buruzko Legearen erreforma adosteko. Proposamenak taldekatu ziren zenbatekoak eta eskakizunak, Lanbide-ren jarraipena eta kudeaketa eta erabilera irregularren kontrolak zehazteko taldeetan. Besteak beste, bizikidetza-unitateak zehazteko hobekuntzak proposatu dira, eta seme-alabak dituzten familiei arreta hobea eta berezia emango zaie. (2017-05-31) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **127. konpromisoa. Gizarteratzeko Plana (2017-2021) egin eta abian jarri** | **Enplegu eta Gazteria Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gizarteratzeko Plana (2017-2021) egin eta abian jarri.** | |
| 54 | Gizarteratzeko 2012-2016 VI. Planaren indarraldia amaitutakoan, ezarritako helburu estrategikoen azkeneko ebaluazioa egin da, eta 2017-2021 Gizarteratzeko Plana aurkeztu da | |
| | **128. konpromisoa. Gizarte-prestazioen eta politiken kudeaketa osoa aldarrikatu** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **2. ekimena. Hobarien sistemaren ebaluazioa, segimendua eta kontrola egin ahal izateko behar beste informazio emateko eskatu Estatuko gobernuari: modu horretan enpleguko politika aktiboen kalitatea eta efizientzia sustatu ahal izateko.** | |
| 55 | Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetza-hitzarmena, informazio-trukeari buruzkoa. Langileei eta hobarien enpresa onuradunei buruzko informazioa trukatuko da. Horrela, enplegu-politika aktiboak eraginkorragoak izango dira, eta hobarien sistemaren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola egin ahalko da. (2017-07-18) | |
| | **129. konpromisoa. Gizarte-zerbitzuen Sistema finkatu eta indartu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **4. Ekimena. Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren jasangarritasuna finkatu eta indartu, behar diren baliabideen bitartez.** | |
| 56 | Eusko Jaurlaritzak eta La Caixak lankidetza-akordioa sinatu dute, gizarte-, kultura- eta zientzia-arloei buruz. 11 milioi eurokoa da. (2017-06-13) | |
| 57 | Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen eskaintzaren urriaren 6ko 185/2015 Dekretutik eratorritako Gizarte Zerbitzuen Fondoaren banaketa onartuta dago. 14.008.000.- € (Gobernu Kontseiluaren 2017-06-20ko Akordioa) | |
| | **5. Ekimena. Gizarte-zerbitzuak ematen dihardsuten langileen gaitasun profesionala hobetu.** | |
| 58 | Desgaitasunen zein mendekotasunaren arloan eta hala egoitzetako nola etxeko esparruan, gizarte-zerbitzuak eskaintzeko dituzten langileen akreditazio profesionalerako beharrezkoak diren betebeharrak betetzen ez dituzten langileen erregistroa, betebeharrak betetzeko prozesua diseinatzeko. | |
| | **6. Ekimena. Ezagutza eta berrikuntza kudeatzeko I+G+b-ren arloko jarduerak sustatu, arreta- eta gizarte-zerbitzuak emateko ereduetan.** | |
| 59 | 450.000.- € eman dira, hirugarren sektorean jakintzaren kudeaketaren arloko jarduerak sustatzeko. (2017-07-11) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **130. konpromisoa. Gizarte-larrialdiko laguntzak bermatu** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gizarte-larrialdiko laguntzak (GLL) hobeto banatu.** | |
| 60 | Urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretua onartu da, eta dekretu horrek aldatzen du Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko 4/2011 Dekretua. Helburua pobrezia eta giza bazterkeria eragiten dituzten txirotasun-modu berriei eta ase gabeko premiei erantzutea da. | |
| 61 | Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotako gastu espezifiko bakoitzaren gehieneko zenbatekoak zehazten dira, horiei aurre egiteko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak adierazten dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzari 2017an dagokion aurrekontu-muga ezartzen da. (2017-03-20) | |
| | **2. Ekimena. Gizarte-larrialdiko laguntzen (GLL) aurrekontu-zuzkidura handitu.** | |
| 62 | 23 milioi euroko partida onartu da gizarte-larrialdietako egoeretan laguntzeko (Gobernu Kontseilua 2017-03-07). | |
| 63 | Aurrekontuaren gehikuntza izapidetu da, eta, azkenean, 4 milioi euroko gehikuntza onartu da 2017an. Horren bitartez konpentsatu nahi izan da udalek egiten duten gastua, hasieran arlo horretan esleitutakoa baino gastu handiagoa egiteagatik (Tokiko Erakundeei buruzko Legearen zortzigarren xedapen iragankorra). | |
| | **131. konpromisoa. Pobrezia energetikoari aurre egin** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Gizarte-larrialdiko laguntzen banaketa hobetu, pobrezia energetikoa pobreziaren forma berritzat jotze aldera.** | |
| 64 | Gizarte-larrialdiko laguntzei (GLL) buruzko dekretua aldatu da, eta pobrezia energetikoko egoerak aintzat hartu dira (Gobernu Kontseilua, 2017-01-17). 16/2017 Dekretua, urtarrilaren 17koa. | |
| 65 | Gurutze Gorriari diru-laguntza izenduna eman zaio, 400.000 eurokoa, gizarte-larrialdietako laguntzak hainbat arrazoirengatik eskatu ezin dituzten pertsonei laguntzeko, pobrezia energetikoaren arloan. | |
| | **132. konpromisoa. Etxegabeak artatu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Etxegabeen Euskal Estrategia (2017-2020) egin.** | |
| 66 | Bizitegi-bazterketa larria prebenitzeko eta murrizteko Euskal Estrategia (2018-2021) egin da, estrategiari atxikitako erakundeekin adostuta. Etxerik ez duten pertsonei laguntzeaz gain, prekariotzat jotzen diren etxeetan bizi direnei ere laguntzen zaie. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **133. konpromisoa. Gizarte-zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Koordinazioa eta lankidetza sustatu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren artean.** | |
| 67 | Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko Aginduan ezarritako laguntzen 2017ko deialdia argitaratu da, eta 8,2 milioi eurokoa izan da (aipatuta aginduak laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntzak arautzen ditu). (2017-05-23) | |
| | **134. konpromisoa. Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetza estua finkatu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Eredu integral baten barruan egituratu baliabide soziosanitarioak, finantziazio-eredu integratua eta koordinatua ezarriz, gizarte-zerbitzuen eskaintza eta prestazio soziosanitarioak kontuan hartuz.** | |
| 68 | Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak Arreta Soziosanitarioaren gaineko Lehentasun Estrategikoak (2017-2020) onartu ditu gaur, eta 2013-2016 arreta soziosanitarioko ildo estrategikoen betetze-mailaren ebaluazioa ere egin du (2017-11-27). | |
| | **5. Ekimena. BetiON telelaguntza-zerbitzu publikoaren mailakako garapena sustatu.** | |
| 69 | BetiOn Telelaguntza zerbitzuaren azpiegitura berriak inauguratu dira. Zerbitzuak 45.000 erabiltzaile ditu (legealdiaren hasieran baino 2.500 pertsona gehiago). 100 etxebizitzetan teknologia digitala duen lehen zabaltze bat egin da. | |
| | **135. konpromisoa. Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Zahartzeari, gaixotasun kronikoei eta mendekotasunari arreta integrala emateko politika berritzaileak sustatu.** | |
| 70 | Euskadi Lagunkoia ekimena garatu. 50 udalerri baino gehiago atxiki dira. | |
| 71 | Gobernantza ON ekimena garatu da. Gobernantza parte-hartzailearen eredua sortu nahi da, zaharrek aukera izan dezaten, haiei zuzendutako politikak zehazteko eta horri lotutako erabakietan parte hartzeko. | |
| 72 | Jakiten programa garatu da, zaintzaileei laguntzeko. | |
| 73 | "Legado" programan biltzen da hainbat pertsona zaharren lana. Adinaren araberako bazterkeriaren aurka borrokatzeko nazioarteko bederatzi jardunbide onenak hautatu ditu Osasunaren Mundu Erakundeak, eta programa hori jardunbide horietako bat da. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **136. konpromisoa. Zaintzaileak babestu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Jakiten telefono bidezko zerbitzua bultzatu, zaintzaileei orientazioa eta entzute aktiboa eskaintzeko.** | |
| 74 | 2017an jarraitu egin da zaintzaileei laguntzeko telefono hori sustatzen. Gainera, zerbitzua ezagutarazteko ekimenak ere abiatzen ari dira, zaintzaileek horren berri izan dezaten. | |
| | **137. konpromisoa. Boluntarioen lana bultzatu** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Boluntariotzako Euskal Estrategia (2017-2020) egin, partaidetza altruista, antolatua eta solidarioak betetzen duen ezinbesteko rol sozialaren balioa azpimarratzeko. Boluntariotzako Euskal Kontseiluarekiko lankidetza estuan landuko dugu estrategia hori.** | |
| 75 | Boluntariotzako Euskal Estrategian (2013-2016) ezarritako neurriak ebaluatu dira, eta Gobernu Kontseilua 2017-2020 Boluntariotzako Euskal Estrategiaren jakitun da. (2017-11-28) | |
| 76 | "BHERRIA. Herritartasun berrirako agora". Gizarte-berrikuntza bultzatzeko prozesu pilotua da. Elkargune bat eraiki nahi da, herritarren gaur egungo parte-hartzeei eta gizarte-ekintzei buruzko hausnarketa egiteko eta ikasteko. | |
| | **138. konpromisoa. Hirugarren Sektore Soziala babestu** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Elkarrizketa Zibilerako Mahaia finkatu, eta estutu harremana Euskadiko hirugarren sektore sozialeko sareak biltzen dituen elkartearekin, alegia, *Sareen Sarea*rekin.** | |
| 77 | Hiru hilez behin, Elkarrizketa Zibileko Mahaia biltzeko deia egiten da, eta aldizkako bilerak egiten dira mahaikideekin, funtzionamendu ona bermatze aldera. Elkarrizketa Zibileko Mahaia osatzen duten sareen artean, lan-mahaiak eratzen dira, hainbat gai indar eta elkarlan handiagoz lantzeko. Honako gai hauek lantzen dira, besteak beste: kontzertazio sozialeko dekretua, hirugarren sektore soziala sustatzeko estrategia, bizitoki-bazterkeria larriko estrategia, diru-sarrerak bermatzeko errenta, enplegu-plana. | |
| | **2. Ekimena. Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategia (2017-2020) egin.** | |
| 78 | Gobernu Kontseiluaren akordioaren bitartez, 4,34 milioi euro erabili dira, hirugarren sektorean esku-hartze sozialen arloko jarduerak sustatzeko | |
| 79 | 450.000.- € eman dira, hirugarren sektorean jakintzaren kudeaketaren arloko jarduerak sustatzeko. (2017-07-11) | |
| 80 | Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia onartu zuen Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiak (2017-11-28). | |

| | | |
|---|---|---|
| | **139. konpromisoa. Familien eta haurren aldeko ituna** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Erakundeen arteko estrategia sustatu, euskal gizartea demografikoki aldatzeko eta gaztetzeko.** | |
| 81 | Euskal Autonomia Erkidegoan haur eta nerabeen arreta eta babeserako udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresna eguneratzeari buruzko dekretua onartu da. (2017-05-09) | |
| 82 | Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen dekretua onartu da. (2017-05-16) | |
| 83 | Euskal Kontseiluak ondo iritzi dio "Familien eta haurren aldeko ituna"ri. (2017-12-20) | |
| | **2. Ekimena. Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak % 50 handitu.** | |
| 84 | 27,57 milioi euroko partida onetsi da, seme-alabak dituzten familientzako laguntza-programa finantzatzeko. Programak hiru jarduketa-ildo ditu: kargura dagoen seme-alaba bakoitzeko laguntza ekonomikoak, erditzeagatiko edo adopzio nazional anizkoitza egiteagatik laguntza ekonomikoak eta nazioarteko adopzioagatiko laguntza ekonomikoak (2017-03-07). | |
| 85 | Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko gastua handitu du Gobernuak: lehen 27,5 milioi eurokoa zen, eta gaur egun 30,7 milioi eurokoa da (Gobernu Kontseiluaren 2017-07-26ko bilera). | |
| | **4. Ekimena. Diru-laguntzen, pizgarri fiskalen eta neurri eraginkorren sistema hobetu erantzunkidetasunari eta familia eta lana bateragarriak egiteari dagokienez, hala lan munduan, nola zainketen eta etxebizitzaren eremuan.** | |
| 86 | Baliabide ekonomikoak esleituko dira, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren IV. Kapituluan ezarritako laguntzak 2017an finantzatzeko. Laguntzak familia eta lana bateratzeari buruzkoak dira, eta zenbatekoa 1,7 milioi eurokoa da (2017-05-23). | |
| 87 | 152/2017 Dekretua onartu da, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko BALORA tresnaren eguneraketa onesten duena. (2017-05-09) | |
| | **140. konpromisoa. Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Immigraziorako Euskal Estrategia gaurkotu, 2020. urteari begira.** | |
| 88 | 2017ko bigarren seihilekoan Immigraziorako Euskal Estrategia (2014-2016) ebaluatzeko txostena egin da, eta edukiak 2017-12-31n finkatu dira. | |

| | |
|---|---|
| | **3. Ekimena. Erakundeen barruko eta erakundeen arteko lankidetza antolatu, integrazioaren, bizikidetzaren eta aniztasunaren ildotik, berdintasunaren alde egiten den lanean.** |
| 89 | Erakunde arteko elkarlana landu eta antolatzeko Integraziorako eta Elkarbizitzako Zerbitzura (Biltzen) 920.000 € bideratu dira. |
| 90 | Ikuspegi, Immigrazioaren euskal Behatokia. 185.803 €ko partida bideratu da. |
| | **5. Ekimena. Immigranteek zerbitzu publikoak berdintasunez eskuratzeko behar diren neurriak bultzatu, osasun- eta gizarte-zerbitzuetara, etxebizitzetara, justiziara eta segurtasunera sarbide normalizatua eta ekitatiboa izan dezaten bermatuz.** |
| 91 | Immigrazioko teknikarien kontratazioaren jarraipenerako eta erakunde publikoek immigrazioaren eta kultura arteko bizikidetzaren alorrean jarduerak garatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak onartu dira, eta laguntza horietarako 2017ko deialdia egin da (Immigrazioa: (381.920.- €; Bizikidetza: 498.080.- €) (2017-07-11). |
| 92 | Etorkinei gai juridikoei laguntza ematen dien AHOLKU SAREA programa egiten jarraitu da. 586.534 euro bideratzen dira bertara. |

| | | |
|---|---|---|
| | **141. konpromisoa. Aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatu.** | **Gizarte Politiketako Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Berdindu 2016-2020 lan-plana sustatu, joera sexualaren eta genero-identitatearen ziozko diskriminaziorik ez egoteko.** |
| 93 | BERDINDU programaren esparruan, familiei laguntza emateko zerbitzu bat eratu da. Programa horrek sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako gaiei buruzko informazio- eta laguntza-zerbitzuak ematen ditu. Horren bidez, gay, lesbiana, trans, bisexual eta intersexual direnei eta beren familia eta inguruneari arreta eskaintzen zaie. (2017-07-01) |

| INGURUMEN,<br>LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA | | Konpromisoak: 41-49<br>142- 144 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERA** | |
| | **41. Konpromisoa. Karbono gutxiko ekonomia lehiakorra sustatzea** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Klima Aldaketaren Estrategia 2050-Klima 2050 ezarri.** | |
| 1 | 500.000 euro baino euro gehiago inbertitu dira, EAEn klima-aldaketara egokitzeko. Besteak beste, nabarmentzekoak dira proiektu hauek: Klimatek, Berringurumena eta klima-aldaketari buruzko irizpideak zehaztu eta lurralde-antolamenduaren gidalerroetan sartzea. | |
| 2 | EAEko biztanleek energiari eta klima-aldaketari buruz duten pertzepzioa ezagutzeko lehen azterlana egin da. | |
| 3 | Klima 2050 estrategiaren tarteko ebaluazioa egin da. | |
| 4 | Eusko Jaurlaritza eta 25 euskal enpresa #PorElClima Komunitatean sartu dira. (2017-11-29) | |
| | **4. Ekimena. Eraikuntza jasangarria indartzea, ekodiseinua sustatzea eta garraio publikoa erabiltzea sustatu.** | |
| 5 | Ihobe SA bidez, 2017an diseinu ekologikoko proiektuak sustatzeko laguntzen deialdia egin da (120.000 euro) (2017-07-13a) | |
| | **6. Ekimena. Udalekin lankidetzan aritu, klima-aldaketara egokitzeko politikak eta neurriak ezartzeko, Udalsarea 21 sarearen esparruan.** | |
| 6 | 1,8 milioi euroko diru-laguntza banatu da tokiko proiektuen artean, honako gai hauek jorra ditzaten: lurzoru kutsatuak, klima-aldaketa eta atmosfera, biodibertsitatea eta ingurumen-heziketa (2017-03-03an). | |
| 7 | Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sareak, honako plan eta programa hauek onartu ditu: 2020 Plan Estrategikoa, 2017-2020 Kudeaketa Plana, Euskal Adierazpena, Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020 programa eta Berringurumena 2017 (tokiko berrikuntza sustatzeko diru-laguntzen deialdia). | |
| | **42. Konpromisoa. Ekonomia zirkularrari laguntzea** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Hondakinak berrerabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea sustatuko duten tresna ekonomikoak bultzatu.** | |
| 8 | Ihobe SA bidez, 2017an ekonomia zirkularra erakusteko proiektuetarako laguntzen deialdia egin da. (400.000.- €) (2017-07-15a) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **43. Konpromisoa. Ingurumenari, klima-aldaketari eta natura-kontserbazioari buruzko legea** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Ingurumenari, klima-aldaketari eta natura-kontserbazioari buruzko legea.** | |
| 9 | Natura-ondarean, administrazioaren esku-hartzeetako tekniketan eta klima-aldaketan adituak diren pertsonen taldea osatu da. Administrazio publiko batzuetako araudiak berrikusi dira. Ingurumenari buruzko Legea eta Natura Ondareari eta Klima Aldaketari buruzko Legea lantzeko zirriborro bana egin dira. | |
| | **44. Konpromisoa. Enplegu berdea** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **3. Ekimena. Ikerketa eta berrikuntza bultzatu, Ekoberrikuntzaren proiektuen bidez, Ekodiseinua sustatuta, eta Unibertsitatearekin elkarlanean.** | |
| 10 | Enpresen ingurumen-aztarnaren ezarpena bultzatzen da enpresetan, Basque Ecodesign Centerren bitartez (2017-03-13an). | |
| | **45. Konpromisoa. Politika publikoetan ingurumenaren aldagaia txertatu** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Indarrean dagoen IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 garatu eta ebaluatu.** | |
| 11 | 2020 Ingurumen esparru-programaren bi urtean behingo jarraipen-txostena (2014-2016) egin da. Jarraipenaren arabera, programako ekintzen ezarpen-maila % 54 da. Gainera, programaren gainerako jarduketek planifikatutakoaren araberako garapen-maila dute. Are gehiago, batzuetan aurreikusitako garapen-maila gainditu da, eta % 9 baino ez dago ezarritako epetik urrun. | |
| 12 | Udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, toki-erakunde autonomoei, toki-garapeneko agentziei eta garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak sustatzen dituzten tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezarri dira, eta deialdia egin da (1.960.000.- €) | |
| | **4. Ekimena. Ingurumen-kudeaketako prozedurak eta izapideak sinplifikatu eta bizkortu.** | |
| 13 | Ingurumenerako sistema global berria sortzea, herritarrekiko harremanak bizkorrago egiteko, administrazio-izapideak enpresekin errazago egiteko eta mugikorretarako zein beste gailu elektroniko batzuetarako aplikazioak garatzeko. (600.000.- €) | |
| | **46. Konpromisoa. Ingurune naturalaren kalitatea hobetzea** | **Ingurumen Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Uraren kalitatea bermatzeko eta xahutzea, espekulatzea eta kutsatzea eragozteko ur politika bultzatu, URA-Uraren Euskal Agentziaren bidez.** | |
| 14 | Arabako Foru Aldundiarekin akordio bat egin da, Arabako lurralde historikoan uraren zerbitzuak kudeatzeko erakunde bakarra sustatzeko. | |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena. Plan Hidrologikoa 2015-2021 eta Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana 2015-2021 berrikusi.** |
| 15 | Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailburuaren 2017ko apirilaren 24ko aginduaren bidez, EAEko Barne Arroetako Jabari Publiko Hidraulikotik hartutako emarien kopuruen kontrol-sistemak arautu dira. |
| 16 | Urumea ibaiaren arroaren uholde-arriskua kudeatzeko Erakundearteko Batzordearen hamazazpigarren bilera egin da. Topaketan aztertu dira erakunde parte-hartzaileek azken hilotan Urumea ibaiaren arroaren uholde-arriskua gutxitze aldera egindako jarduketak. (2017-05-16a) |
| 17 | Uholdeen aurkako babes-azpiegiturak:<br>▪ Uholdeen aurkako babes-azpiegituren obren bukaera Gobela ibaian: Fadura zatia. 2,60 M €.<br>▪ Abetxukuko zubi zaharraren egokitzapen hidraulikoa eta arkitektura-egokitzapena egiteko obrak amaitu dira. (0,85 M €)<br>▪ Uholdeen aurkako babeserako obrak Urumea ibaian, Martutene. 1. fasea. 19,57 M €.<br>▪ Uholdeen aurkako babeserako obrak, Zalla herriko Kadagua ibaian (4.310.000.- €)<br>▪ Uholdeen aurkako babeserako obren lizitazioa Errotaberrin, Zarautzen. 4,45 M €.<br>▪ Urumea ibaian egin diren uholdeen aurkako babeserako obrei buruzko jendaurreko informazioa. Martutene. 2. fasea. 16,86 M € |
| 18 | URAk eta Sondikako Udalak hitzarmena sinatu dute, Asua ibaian Sondikako Industrias Alba-tik Sangroizko zubira arteko bideratze-lanak aurrera eramateko. (Lizitazio-aurrekontua 2,9 milioi eurokoa da). (2017-10-19a) |
| | **3. Ekimena. Ura hornitzeko, saneatzeko eta arazteko azpiegiturak garatu eta eraiki, dagoen plangintzaren arabera.** |
| 19 | Ingurumen-hobekuntzak eta hobekuntza hidraulikoak ibilguetan egiteko lanak abian jarri dira. Horretarako, 58 udalekin hitzarmenak egin dira, erakundearteko lankidetza antolatzeko, ibilguak garbi mantentze aldera. |
| 20 | Honako lan hidrauliko hauek egin dira: (1) Ibaizabal ibaiaren uholdetatik babesteko lanen 2. fasea: Urbi-Bengoetxe tartea; (2) Villabona-Zizkurkil-eko Oria ibaiaren uholdetatik babesteko lanak: Zubimusu zubia: (3) Gobeo zubiko sedimentuak kentzea; (4) Oiongo El Puntido industrialdeko saneamendu-obrak amaitzea. |
| 21 | Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak esparru-akordioa egin dute, Arabako Lurralde Historikoko azpiegitura hidraulikoak egiteko eta finantzatzeko. 2017-2027 Esparru-akordioan ezarritako ekintzak egiteko aurrekontua 74 milioi eurokoa da: Uraren Euskal Agentziak 50 milioi hitzartuko du; eta Arabako Foru Aldundiak, 24 milioi. (2017-07-10a) |
| 22 | Arabako Foru Aldundiak eta Uraren Euskal Agentziak 2018an milioi bat euro inbertituko dute ibaien mantentze-lanetan. Administrazio biek lurraldean egiten dituzten lanak koordinatuko dira, lanen eragina handitzeko. (URA 800.000.- €) (2017-11-16a) |

| | |
|---|---|
| | **4. Ekimena. Airearen kalitatea hobetzen jarraitu, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) emandako gomendioei jarraikiz.** |
| 23 | EAEko Ingurumen Profila aurkeztea: Azken 10 urteotan onera egin du airearen kalitateak. EAEko airearen kutsadura-mailak nabarmen egin duela behera, nagusiki krisiak eraginda instalazioak itxi direlako, industria-isuriak jaitsi direlako, teknologia garbiagoak erabiltzen dituztelako, araudia gero eta zorrotzagoa delako, eta administrazioen zaintza hobeto egiten delako (2017-05-18an). |
| 24 | Airearen kalitatearen garapen teknikoa egitea eta ikerketak ere egitea, Administrazioak EAE osoko airearen kalitatea hobeto kontrola dezan (1.000.000.- €) |
| | **6. Ekimena. Txinbadia+ Europako proiektua sustatu. INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra Europako Programaren esparruan sartzen da, lurraldeen arteko elkarlanean gauzatzen da, eta lurralde mugakideen garapen jasangarria sustatzeko sortu zen.** |
| 25 | INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra Europako Programa sustatu da, eta Plaiaundiko Txingudiko naturgunea zabaltzeko lanak eta jarduketak zehaztu dira. Gaur egungo esparru degradatuak berroneratu ondoren, hegazti migratzaileak hartzeko naturgune erabilgarriak handituko dira. |
| | **7. Ekimena. Ingurumen-hezkuntzako politikak indartu, eta aurrera egin herritarrek ingurumena babesteko eta zaintzeko duten benetako erantzukidetasunaren arloan, Ekoetxeen zeregin aktiboaren bidez.** |
| 26 | Eskolako Agenda 21 programak garatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak jasotzeko oinarri arautzaileak ezarri eta laguntza horien deialdia egin da, 2017-2018 ikasturterako. 640.000.- € (2017-05-23) |
| 27 | Ekitaldian, ekoetxeen eginkizuna indartu da. Ekoetxeak funtsezko tresnak dira ingurumen-hezkuntzarako. Urdaibaiko, Peñas Negras-eko eta Txingudiko ekoetxeetako azpiegiturak hobetu dira, eta Azpeitiko Ekoetxearekin konpromisoa berritu da; horretarako, beste hitzarmen bat sinatu da Udalarekin. Meatzaldeko ekoetxe berria sarean sartzeko lanak egiten ari dira. Añanako Gatz Harana Ingurumen Hezkuntzako ekipamenduen sarean txertatu da, hitzarmen bat sinatu ondoren. Hitzarmenaren bitartez, aire zabaleko ibilbide ekologikoa sortuko da. |
| | **9. Ekimena. Euskadin Natura 2000 Sarea osatzen duten espazioak antolatzeko planak egin, eta sinergiak indartu beste politika batzuekin: basogintzari, nekazaritzari eta arrantzari buruzko politikekin, besteak beste.** |
| 28 | 3/2017 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Armañon Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia onartzen duena, eta Armañon Kontserbazio Bereziko Eremurako (KBE) eta Parke Naturalerako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana eta Kudeaketarako Jarraibide eta Jarduketen Dokumentua osorik argitaratzea agintzen duena. |
| 29 | Salburuko Ramsar hezegunearen mugak Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) azalera osora zabaldu dira. Horrela, eremu horren hasierako azalera % 25ean handitu da, Natura 2000 Sareak aitortutako 217,4 hektareako azalera eduki arte. Bateratze horrek Vitoria-Gasteizko hezeguneko habitatak eta espezieak hobeto kudeatzea eta kontserbatzea ahalbidetuko du. (2017-06-06). |

| | |
|---|---|
| 30 | Euskal kostaldeko geoparkearen ingurumen alderdiak 2020a arte sustatu dira. Kostaldeko Zumaia, Deba eta Mutriku udalerriek partekatzen duten espazio horren kontserbazio- eta sustapen-jarduerak bultzatzeko eta garatzeko neurriak bultzatu dira, kontuan hartuta kostaldeko *flysch*a dutela erakargarritasun nagusi. (280.000.- €) (2017-12-05ean). |
| | **47. Konpromisoa. Lurraldearen oreka. Lurralde-plangintza eta -estrategia.** — **Lurralde Plangintza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak-Lurraldea 2040 berrikusi, berariaz bultzatuz degradatutako guneak berroneratzea eta ekosistemen galera mugatuz, populazio-dentsitate handiagoak nagusitzeko, eta lurzoruaren erabilera-konbinazioa eta berrerabilera indartzeko.** |
| 31 | Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikusteko prozesuan honako jarduketa hauek egin dira, besteak beste:<br>○ Lurralde Politikako Aholku Batzordeak Aurrerapen Dokumentuaren Aldeko Txostena eman zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak Aurrerapen Dokumentua onetsi zuen.<br>○ Hiru jardunaldi egin dira. Bertan, eragile sozial, politiko, profesional, enpresako eta sektoreetakoekin tailerrak egin ziren, lurralde antolamenduaren gidalerroen edukian sakontzeko.<br>○ Administrazio, erakunde eta partikularrentzat, jendaurreko informazioaldia eta iradokizunak egiteko epea zabaldu da. |
| 32 | Alde biko bilerak egin dira hiru foru-aldundietako, EUDELeko eta administrazio sektorialetako ordezkariekin, eta lurralde antolamenduaren gidalerroetan ekarpen interesgarriak bildu dira. Bilera horiek egin izanak, dena den, ez du esan nahi berriro berrikusi eta doitu ezin daitekeenik, behin-behinekoz onartu aurretik. |
| 33 | Euskal Hiria kongresua egin da, “Euskadi lurralde bizia” lelopean. Kongresuaren barruan, bada, agiriaren edukia azaldu da, eta bereziki nabarmendu da aurrerapena onartu zenetik egon diren berritasunak eta aldaketak. |
| 34 | Hitzarmena sinatzea Deustuko Kanalean betelanak egiteko, sortuko den lurra Zorrotzaurreko garapen urbanistikorako lagatzeko. Hitzarmena erakunde hauek sinatu dute: Sustapen Ministerioak, Estatuko Portuen Erakundeak, Bilboko Portuko Agintaritzak, Bilboko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailak, Zorrotzaurreko Batzorde Kudeatzaileak eta Zorrotzaurreko 1. Jarduketa Integratuko 1. Betearazpen-unitateko Kontzertazio Batzordeak. (2017-11-07a) |
| | **2. Ekimena. Lurralde-plangintza, partziala zein sektoriala, lurralde-antolamenduaren gidalerro berrien joerara egokitu.** |
| 35 | Diru-laguntzak emateko arauak ezarri dira, eta deialdia egin da, 2017ko ekitaldirako, udal plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia integratzeko. (200.000/ 40.000 euro, 2017an; eta 160.000 euro, 2018an). (2017-09-11) |
| | **4. Ekimena. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztien koordinazioa sustatu lurralde-antolamenduaren gaian, Lurralde Antolamendurako Batzordearen bidez.** |

| | | |
|---|---|---|
| 36 | EAEko lurralde-adierazleak eguneratu dira. | |
| 37 | Ekitaldian, udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzea sustatu da, eta udalei diru-laguntzak eman zaizkie informazio geografikoa hobetu eta udal mapak egin eta zabal ditzaten. | |
| | **6. Ekimena. Paisaiaren balioa azpimarratu, herritarren bizi-kalitatean elementu garrantzitsua baita, eta lurraldearen antolamenduaren gidalerroetan eta gainerako lurralde-planetan txertatu, paisaiaren balioak kontserbatuko direla bermatzeko.** | |
| 38 | Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostialdeko Eremu Funtzionaleko udalei eremu funtzional horretako LPParen aldaketa aurkeztu zaie, bertan Paisaiaren Katalogoa sartzeko. | |
| 39 | 2017ko maiatzaren 31ko Aginduan ezarritako laguntzak eman dira. Agindu horren bidez, diru-laguntzak eman zitzaizkien Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta Arabako udalerrien kontzejuei, paisaiaren ekintza-planak egin ditzaten. (300.000.- €) (2017-09-08) | |
| | **48. Konpromisoa. Hiri-birgaitzea, -berroneratzea eta -berritzea.** | **Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Hirietan eta auzoetan esku hartzeko programa berri bat sustatu, beharrezkoa den erakunde arteko lankidetzarekin. Horrela, batetik, hiri-birgaitze, -berritze eta -berroneratzeari lotutako esku-hartzeak planifikatu ahal izango dira (“Hiri-birgaitzearen eta -berroneratzearen aldeko udalerriak” programa) eta, bestetik, Euskadi lurralde orekatu eta jasangarri batean antolatu ahal izango da, gune degradatuak murriztuta.** | |
| 40 | 2017ko deialdia, Birgaitze Integratuko Arloetan edo Bizitegi Arlo Degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko agiriak idazteko, eta lanak gauzatzeko diru-laguntzak emateko. Zenbatekoa: 3.000.000 euro | |
| 41 | Donostiako eta Eibarko udalei zuzeneko diru-laguntzak ematea, Donostiako Txomin Enea eta Eibarko Txonta auzoetan hiria berroneratzeko jarduketak egin ditzaten. (4,3 milioi euro) (2017-11-28). Jarduera pilotuak izango dira, eta 2017 eta 2021 urte artean garatu beharko dira. | |
| 42 | Birgaitze Integratuko Arloetan edo Bizitegi Arlo Degradatuetan urbanizatutako eta eraikitako ondarea birgaitzeko agiriak idazteko diru-laguntzak eman zaizkie udalei. | |
| 43 | Hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko udalentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egin da, 2017an. (3,3 milioi. Haietatik 300.000 euro, 2017ko ekitaldikoak dira; 1,8 milioi, 2018ko ekitaldikoak; eta 1,2 milioi, 2019. urtekoak) | |
| 44 | ”Auzo Bulegoa” ireki da Gasteizko Koroatze auzoan. Izan ere, VISESA sozietatearekin lankidetzan ari gara, auzo horretan esku hartzeko proiektuaren kudeaketa-prozesua beste modu batean bideratzeko. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **49. konpromisoa. Pasaiako badia berroneratu.** | **Lurralde Plangintzaren Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Erakundeen artean behar diren akordioen bitartez, Pasaiako badiaren berroneratze progresiboa garatzen jarraitu eta bere ingurunea berreskuratu.** | |
| 45 | Gipuzkoako Foru Aldundiari zuzeneko diru-laguntza emango zaio, Paisaiako badiako lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa-jarduerak egiteko eta oinarri arautzaileak onartzeko (123.830 euro). (2017ko irailaren 26a) | |
| | **142. Konpromisoa. Etxebizitzaren Legean aitortutako etxebizitza bat izateko eskubide subjektiboa garatu.** | **Etxebizitza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko bide egonkorra bermatu baliabide ekonomikorik ez duten pertsonei, edo, hala badagokio, etxebizitza hori eskuratzea bermatzen duen prestazio ekonomiko bat aitortu, Eusko Legebiltzarrak 2016ko apirilean onetsitako moduan.** | |
| 46 | Bi eraikin berezi eraikiko dira:<br>▪ Hondarribiko etxebizitza-blokea (Visesa egurrez eraikitzen ari da). Europaren hego-mendebaldean egurrez eraiki den bizitoki altuena eta handiena da. (2017-03-29a).<br>▪ Visesa 28 solairuko eraikin bat egiten ari da Boluetan (Bilbon). Energia eraginkortasun handiko eta klimatizazioko Passivhaus estandarrak betetzen ditu. 88 metroko garaiera dauka; beraz, Alemaniako Darmstadt herriko Passivhaus Institut erakundearen ziurtagiria jaso duen eraikin altuena izango da (2017-05-10a). | |
| 47 | Prozedura bat jarri da abian azalera-eskubideko erregimenean dagoen etxebizitza baten jabeei beren etxebizitzaren jabetza osoa lortzeko, gaur egun babes ofizialeko etxebizitzak diren ala ez gorabehera. (2017/02/27) | |
| | **4. Ekimena. Etxebizitza Plan Zuzentzailea (2017-2019) egin eta gauzatu** | |
| 48 | 2013-2016ko Etxebizitza Plan Zuzentzailearen 2015eko ebaluazio-txostena aurkeztu da, eta Legebiltzarrari bidali dio Jaurlaritzak. 2017-2020 Etxebizitza Plan Zuzentzailea egin aurretiko urratsa izan da. Etxebizitza Plan Zuzentzailea garatzen ari da. | |
| 49 | 2013-2016 Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralari buruzko Txostena aintzat hartzea eta Legebiltzarrari bidaltzea. (2017-11-28) | |
| | **143. Konpromisoa. Alokairu-araubidea lehenestea, baita gazteen emantzipazioa ere** | **Etxebizitza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Alokairu sozialeko etxebizitza-parkea handitu, zenbait formularen bitartez, baina etxebizitza hutsen merkatua mugitzea lehenetsita, Bizigune eta Asap programen bidez (merkatuan bitartekaritza egitekoak).** | |
| 50 | Sestao udalerriko Galindo ibarreko babes ofizialeko 52 etxebizitza alokairu-erregimenean esleitzeko prozedura hasi da. | |
| 51 | Irungo udalerriko Oinaurre eremuko babes ofizialeko 32 etxebizitza alokairu-erregimenean esleitzeko prozedura hasi da. | |

| | |
|---|---|
| 52 | Getxoko Udalarekin akordio bat egin da, babes ofizialeko 140 etxebizitza Iturribarri-n eraikitzeko, alokairu-erregimenean antolatzeko. Eragiketa osoaren zenbatekoa 18,3 M € da. Udalak lurzorua (3 M €-koa) eman du; eta, horrez gain, etxebizitza sozial bakoitzeko 18.000 euroko diru-laguntza eta babes ofizialeko etxebizitza bakoitzeko 6.000 euro ere eman ditu. |
| 53 | Txomin Enean (Donostian) erabilera lagatzeko kooperatiben modalitatearen bidez ehun etxebizitza baino gehiago eraikitzeko lurzorua erosi da. 3.720.000 euroko zenbatekoa. (2017-11-21a). |
| | **2. Ekimena. Alokairurako etxebizitzen eraikuntza edota birgaikuntza finantzatzea ahalbidetzen duten sistema berriak bultzatu, eragile pribatuei bermeak eskainiz, baita lankidetza- eredu berriak ere lurzoruen lagapenaren bidez.** |
| 54 | Jabe pribatuen etxebizitza hutsak eskuratzeko Bizigune programara 24 milioi euro bideratu dira, eta etxebizitzak alokairuan emango dira. Partida horretan bi milioi euro gehiago sar daitezke. (2017-05-23an). |
| | **3. Ekimena. Gazteak etxebizitza eskuratzea bultzatu, zuzkidura-bizitokien eta alokairuko etxebizitza babestuen bidez.** |
| 55 | Irunen 43 zuzkidura-apartamentu eraikitzeko esleipena ebatzi da. Apartamentuak gazteei zuzenduta daude (2017-06-19a). |
| 56 | Bilbon Mina del Morro esparruan 86 zuzkidura-bizitoki eman zaizkie gazteei, lehenengo etxebizitza eskuratu ahal dezaten, eta etxebizitza haien premien araberakoa izan dadin (2017-06-30ean). |
| 57 | Azpeitiko Udalarekin hitzarmen bat sinatu da, Esklaboak izeneko eraikinean 45 zuzkidura-bizitoki gehiago eraikitzeko. (3.200.000 euro) (2017-10-05a). |
| 58 | Azpeitiko Udalarekin lankidetza-hitzarmena sinatu da, Azpeitia udalerriko "Arana Ingurunea" HEn "4.3 Esklaboak-Iturzulo" hirigintza azpi eremuan zuzkidura-bizitokiak sustatzeko. (2017-12-19a) |
| 59 | Zarautzeko Udalarekin lankidetza-hitzarmena sinatu da, Zarautz udalerriko OR Salberdin 10.2 sektorean zuzkidura-bizitokiak sustatzeko. (2017-12-19a) |
| | **144. Konpromisoa. Eraikita dagoen parkea birgaitzen lagundu** — **Etxebizitza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Etxebizitzak birgaitzen laguntzeko 2017 eta 2020 urte bitarteko programa egin eta garatu, eraikinak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzeko premisarekin, Europar Batasunaren Horizon 2020 programatik ondorioztatzen diren eraginkortasun energetikoko eta irisgarritasuneko baldintzak beteta.** |
| 60 | Hainbat urtetarako 42,2 milioi euroko gastua baimendu da, etxebizitza-politikak egiteko eta etxebizitzak birgaitzeko. |
| 61 | Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzen bizitegi-eraikingintzaren sektoreko enpresei kudeaketa-sistemak ezartzeko, eraikuntza- eta arkitektura-kalitatea eta jasangarritasuna sustatzeko eta berritzen laguntzeko proiektuak bultzatzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia egin da, 2017ko Eraikal programan. (600.000 euro) (2017-09-25a) |

| | |
|---|---|
| 62 | 2017ko deialdia egin da, udalek, toki-erakunde txikiek eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuek diru-laguntzak eska ditzaten, hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak egiteko eta irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko. (3.300.000.- €) (2017-09-13a) |
| 63 | UPV/EHUri diru-laguntza ematea, eraikinen energia-birgaikuntza egiteko, energiaren kontsumo ia nulua lortze aldera. (325.000.- €)(2017-11-28a) |
| | **2. Ekimena. Eraikinen Ikuskaritza Teknikoak egitea bultzatu, arau bidez garatuz eta ekintza pizgarriak eginez.** |
| 64 | EUDELekin hitzarmen bat sinatu da udalek egin behar dituzten ikuskaritzen kudeaketa eta erregistroa hobetzeko. Horrez gain, EITei buruzko dekretu-proiektua egiten ari da. |
| | **3. Ekimena. EAEn, hiri-birgaitzeari, zaharberritzeari eta berrenoratzeari dagokienez, eragile publikoek eta pribatuek egiten dituzten jarduerak koordinatu, Europatik eutsitako eta orain dela gutxi indartutako ildoan, eta, Etxebizitza arlotik hartuta, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren egiturazko finantziazioko mekanismoak erabiliz.** |
| 65 | Etxebizitzen eta eraikinen birgaitze eraginkorrerako Renove Programako diru-laguntzen 2017ko deialdia, eraikitako ondarean esku hartzeko proiektuak lantzeko. Zenbatekoa: 5.500.000 euro. (2017. urtea: 100.000.- € / 2018. urtea: 1.800.000.- € / 2019. urtea: 2.250.000.- € / 2020. urtea: 1.350.000.- €). |
| 66 | Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzarekin lankidetza-hitzarmena sinatu da, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren Birgaitze energetikorako funtsak kudeatzeko. Bi jarraibide garatu dira, birgaitzeari buruzko gure indarreko araudian EGEF txertatzeko. Etxebizitzen eta eraikinen efizientzia energetikorako finantza-tresna bat sortzeko eskatu da. |

| OGASUN ETA EKONOMIA SAILA | | Konpromisoak: 50-55 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **50. Konpromisoa. Ekonomia Ituna eguneratu eta defendatu** | **Ogasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Estatuarekin akordioa lortu, egiteke dauden likidazioak egiteko.** | |
| 1 | Estatuarekiko akordioa. Besteak beste, funtsezkoa izan da Estatuak itzuli behar duen zenbatekoa ezartzea: 1.400 M €. Zenbateko hori kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2007-2016 epealdiko kupoa eta enplegu politika aktiboen kalkuluen gaineko desadostasunak. | |
| 2 | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2107-05-17ko bileran 11 akordio sinatu ziren. Besteak beste, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2011-2016 urteetako politika aktiboak eta behin betiko kupoak erregularizatzea eta likidatzea onartu du. | |
| 3 | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko maiatzean kupoari buruzko erabakia hartu ondoren, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak administrazioen erregulatzea adostu zuen 2017ko urriaren 11n egin zuen bileran. | |
| 4 | Gobernu Kontseiluak Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren erabakien betearazpena onartu du. Foru-aldundiei honako konpentsazio hauek emango dizkiete: 91,56 milioi euro eta 325 milioi euro (2017-11-14). | |
| | **2. Ekimena. Kupoa zehazteko Metodologiaren Bosturteko Legea (2017‐2021) onartzea bultzatu.** | |
| 5 | Estatuarekiko akordioa. Besteak beste, funtsezkoa izan da 2017ko behin-behineko kupoa ezartzea: 1.300 milioi eurokoa. Hortik 344 milioi kendu behar dira, enpleguko politika aktiboetara bideratzeko; hortaz, 956 milioi ordaintzeko daude. | |
| 6 | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bileran 11 akordio egin dira. Besteak beste, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko behin-behineko kupoa finkatu zuen. 2017a oinarri-urtea da hurrengo 2017-2021 bosturtekoan. (2017-05-17) | |
| 7 | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bileran onartu zen 2017-2021 bosturtekoan aplikatu behar den kupoa zehazteko metodologia, eta finkatu zen 2017ko behin-behineko kupo likidoa (2017a oinarri-urtea da hurrengo bosturtekoan). (2017-07-19) Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017-2021 Bosturteko Legea eta Ekonomia Itunaren Legearen aldaketak onartu ditu. | |
| | **3. Ekimena. Kontzertu Ekonomikoa eguneratu** | |
| 9 | Estatuarekiko akordioa. Ekonomia Ituna onartzen duen Legea aldatu da. Foru-aldundiek ere parte hartu dute aldaketan, eta Gorte Nagusietan onartu beharko dute. Guztira, 20 artikulu baino artikulu gehiago aldatu dira. Aldaketen ondorioz, foru-aldundiek zergak kudeatzeko duten ahalmena eta administrazioen arteko koordinazioa hobetu dira. (2017-07-13) | |
| 10 | Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen aldaketa onartu eta berretsi da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan. (2017-07-19) | |

| | | |
|---|---|---|
| 11 | Abenduaren 28ko 10/2017 Legea 2017ko abenduaren 29ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*ean argitaratuta dago. Lege horrek aldatzen du Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea. | |
| | **51. Konpromisoa. Aurrekontu-politika zorroztasunean eta jasangarritasunean oinarritzen dela eta defizit publikoaren helburua betetzen duela zaindu** | **Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskadiren defizit publikoaren muga erabaki eta beteko dela bermatu.** | |
| 12 | Ogasun Ministerioarekin aurrekontuen egonkortasuna adostea. 2016-12-05ean 2016ko defizit-helburuaren aldaketa (% 0,7) eta 2017-2019 hirurteko helburuak onartu dira. Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa berretsi zuen, 2017-05-17ko bileran. | |
| 13 | Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren bileran 2018-2020 hirurtekorako zorraren eta defizitaren helburuei buruzko akordioa berretsi da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2017-2018 Ekonomia eta Finantza Plana ere onartu da (2017-07-19). | |
| | **2. Ekimena. EAEko zor publikoaren maila egonkortu gizarte-politikei eta funtsezko zerbitzu publikoei eragin gabe.** | |
| 14 | Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legea aldatzea (abenduaren 22ko 14/2016 Legea). Aldaketaren helburua zorpetze-muga Estatuarekin 2016rako adostu den defizit-tartera egokitzea da. Hasierako aurreikuspenekin erkatuta, gehieneko zorpetze-muga berria hasieran ezarritakoa baino 324,4 milioi handiagoa da, ekitaldian konprometitutako gastuei aurre egiteko. | |
| 15 | 2017ko zorpetze-eragiketak egiteko baimena (urtarrilaren 31ko 37/2017 Dekretua). | |
| 16 | EAEko Aurrekontu Orokorren 2017ko lege-proiektua onartu da (2017-02-21ean). Izapideak egin ondoren, Eusko Legebiltzarrak ere onartu zituen (apirilaren 11ko 2/2017 Legea). | |
| 17 | EAEko Aurrekontu Orokorren 2018ko lege-proiektua onartu da (2017-10-24an). Izapideak egin ondoren, Eusko Legebiltzarrak ere onartu zituen (abenduaren 22ko 5/2017 Legea). | |
| 18 | Gobernuak EAEko Zor Publikoa jaulkitzea eta borondatezko truke baten bidez amortizatzea baimendu du (2017-11-21ean). | |
| | **3. Ekimena. Sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek kontu publikoak emateko eskura jartzen dituzten aurrekontu- eta ekonomia-gaietako informazioa areagotu.** | |
| 19 | Informazio-gardentasunaren eta kontu-ematearen helburuak betetzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak aldizkako informazioa (hilero, hiruhilero eta urtero) egin eta argitaratzen du, EAEko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei buruzkoa. Honako gai hauek jorratzen dira:<br>- Gardentasun ekonomikoa eta finantzarioaren adierazleak<br>- Hileko aurrekontuaren betearaztea<br>- EAEko aurrekontuen kitapena eta urteko kontuak<br>- Sektore publikoko erakunde guztien auditoria-txostenak eta urteko kontuak<br>- EAEri buruzko informazio ekonomikoa. Informazioa Estatuko kontabilitaterako ezarritako irizpideei jarraikiz osatzen da, Europar Batasuneko Nazio eta Eskualdeko Kontuen Europako Sistemaren arabera. | |

| | |
|---|---|
| | - EAEko Administrazio Publikoen kontu ekonomikoak<br>- Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea<br>- EAEko Administrazio Orokorraren zor publikoa<br>- Foru-aldundien diru-bilketa, itundutako tributuengatik<br>- EAEko Administrazio Orokorrak eta erakunde autonomoek emandako diru-laguntzak<br>- EAEren diru-laguntzen programei buruzko ebaluazioa<br>- EAEko Kontratuen Erregistroa<br>- EAEko sektore publikoaren eta partaidetza duten erakundeen inbentarioa, informazio ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketari buruzko informazioa jasota. |
| | **52. Konpromisoa. Zerga- eta finantza-politika hazkundearen eta elkartasunaren zerbitzura jarri** — **Ogasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Zerga-araudian egin behar diren eguneratzeak Zerga Koordinazioko Organoak egin** |
| 20 | EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak Lurralde Historikoetako zerga-araudia eguneratzeko foru-arau proiektuak aztertu ditu. |
| | **3. Ekimena. Zerga- eta sustapen-tresna egokien bidez, inbertsioak erakarri, bai jarduera eta sektore ekonomiko berriei bultzada emateko, bai gaur egungo jarduerari eusteko.** |
| 21 | EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak Lurralde Historikoetako foru-arau proiektuak aztertu ditu. Enpresa-proiektuetan inbertsioak sustatzeko zerga-tresnak biltzen dituzte. |
| | **4. Ekimena. Finantza-tresna publikoak arrazionalizatu** |
| 22 | Luzarori 50 milioi euroko abal bat ematea onartu da. ETEei mailegu parte-hartzaileak emateko erabiliko da (2017-03-07). |
| 23 | Gobernuak Elkargi SR sozietateari diru-laguntza eman dio, gehienez ere 1.000.000 eurokoa (2017-03-14). |
| 24 | Finantzen Euskal Institutuak finantzaketa-lerro bat egituratzea onartu du, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen kapital zirkulatzaileen premiei aurreko egiteko (eragileak zentro teknologikoak eta lankidetzazko ikerguneak dira). (2017-05-05). |
| 25 | Elkargi SGR sozietatearekin birfidantzamendu-hitzarmena eta hitzarmen osagarria berritzea onartu da. (2017-07-11n). Hitzarmenen luzapena ere onartu da (2017-12-26an). |
| 26 | ETEei eta autonomoei 2017an laguntzeko finantza-programa onartu da (2017-09-19an). Lehen deialdia argitaratu da (2017-10-02an). |
| 27 | Ezten eta Ekintzaile XXI arrisku-kapitaleko funtsen bategitea onartu da. Horretarako, Ezten arrisku-kapitaleko funtsak Ekintzaile arrisku-kapitaleko funtsa xurgatuko du (2017-10-10ean). |
| | **5. Ekimena. Teknologian eta nazioartekotzen gaitasuna duten euskal enpresen hazkundea eta sustraitzea bermatzeko 250 milioiko funts publiko-pribatu bat bultzatu.** |
| 28 | CAFen kapitalaren % 1,24 eskuratu da, Finantzen Euskal Institutuak egindako eragiketa finantzarioaren bidez. Lehen urratsa izan da, 250 MM-ko Funts Estrategikoa zehazteko. |

| | | |
|---|---|---|
| | **6. Ekimena. 2014-2020 Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren EAEko Programa Operatiboaren kudeaketa eraginkorra.** | |
| 29 | EAEko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboaren laugarren jarraipen-batzordea. Programaren garapen-aldi osorako, guztira, 352,9 milioi euro egikarituko dira EAEn. Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren laguntza zenbateko osoaren erdia da. Gastuaren zati handiena, 157 milioi euro, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzeko bideratuko dira. Beste lan-ildo baten ardatza sektore guztietan karbono gutxiko ekonomiara jotzea da, eta horretara gastuaren % 26 bideratuko da. (2017-06-22). | |
| | **53. Konpromisoa. Ekonomia- eta finantza-ordenamendua eguneratuta eduki** | **Ekonomia, Finantza eta Aurrekontu Sailburuordetza eta Ogasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan EAEko Tokiko Erakundeen Legearen garapena bultzatu.** | |
| 30 | Ekarpenen Legea garatu aurretik, Euskadiko Toki Erakundeen Legean ezarritako txostena landuko duen talde teknikoa eratu da, 2017ko otsailaren 10ean. | |
| | **2. Ekimena. Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2017-2021 aldian aplikatuko den metodologiari buruzko lege-proiektu berri bat onartu.** | |
| 31 | Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten erakundeek konpromisoa hartzen dute, 2018ko ekitaldian Foru Aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Finantziazioan egin behar diren Ekarpenak Zehazteko eta Baliabideak Banatzeko Metodologia berria negoziatzeko eta hitzartzeko (2017-10-11n). | |
| | **3. Ekimena. Diru Laguntzen Legea eta ordenamendu juridikoa etengabe eguneratzen jarraitu ekonomia- eta finantza-arloko gaietan.** | |
| 32 | Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzen duen dekretuaren aldaketa (martxoaren 21eko 64/2017 Dekretua). | |
| 33 | Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartu da. (2017-09-26). Eusko Legebiltzarrak baliozkotu du (2017-10-19). | |
| | **6. Ekimena. EAEko Estatistika Plana 2014-2017 bukatu eta 2018-2021 EAEko Estatistika Planaren Legearen onarpena bultzatu.** | |
| 34 | Gobernuak 2017ko Urteko Estatistika Programa onartu du (azaroaren 7ko 243/2017 Dekretua). | |
| | **54. Konpromisoa. Zerga-iruzurraren aurka borrokatu** | **Ogasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Foru-aldundien lankidetza eta koordinazioa bultzatu.** | |
| 35 | Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak hartutako akordioaren bidez sortu zen Zerga Iruzurrari Aurre Egiteko Batzordea. Besteak beste, enpresaburuek edo profesionalek fakturatzeko erabiltzen dituzten gailuak kontrolatzeko sistemak ezartzeko proiektuaren garapena egiten jarraitu du (TicketBAI proiektua). | |

| | | |
|---|---|---|
| | **2. Ekimena. Urtero, Zerga Koordinaziorako Organoan, Zerga-iruzurrari aurreko egiteko Plan Integral Bateratua egin.** | |
| 36 | Abian dago Euskadin Iruzur Fiskalaren aurka borrokatzeko Lehenengo Plan Bateratua. Maiatzean onartu zen, eta Legebiltzarrari bidali zitzaion. Plan horrek ezartzen ditu irizpide orokorrak eta 2017. urtean egiteko diren ekintza koordinatuak. | |
| 37 | 2016. urtean EAEko Iruzur Fiskalaren Kontrako Borrokarako Plan Bateratuaren esparruan garatutako jardueretako emaitzei buruzko txostena. (2017-07-28) | |
| | **3. Ekimena. Erakunde arteko informazioa trukatzeko sistemekin jarraitu eta optimizatu.** | |
| 38 | Informazioa trukatzeko jarduera espezifikoak egin dira zenbait arlotan: esaterako, EAEko Turismo Enpresen Erregistroa edo Elkarteen eta Fundazioen Erregistroak. | |
| | **4. Ekimena. Apurka-apurka, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Hezkuntza Sailarekin eta Foru Ogasunekin elkarlanean zerga-heziketa ezarri.** | |
| 39 | Gobernu Kontseiluaren eta hiru foru-aldundien arteko lankidetza-hitzarmen bat sinatu da, hezkuntza-programa bat garatzeko. Programaren bidez, ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komun bat ezarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan. Ekimena Iruzur Fiskalaren aurkako Borrokarako Plan Bateratuan jasota dago. | |
| 40 | Bilera egin da EAEko irakaskuntza-elkarte nagusiekin —EHI, KRISTAUESKOLA, BIHE, ERKIDE eta COAS elkarteekin—, zergei buruzko hezkuntza-modulu zibiko berriaren gaineko informazioa emateko. Ikastetxeek hurrengo ikasturtean izango dute erabilgarri (2017-06-27). Hezkuntza-moduluan interesa duten ikastetxeen izena emateko epea zabaldu ondoren, 101 ikastetxe atxiki dira programara. | |
| | **55. Konpromisoa. Gizarte-erantzukizuna zaindu kontratazio publikoan** | **Ogasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Kontratazio publikoko prozesuetan klausula espezifikoak txertatu, kontratazio publikorako gizarte- eta ingurumen-irizpideen euskal araudian xedatutakoaren arabera.** | |
| 41 | Gobernu Kontseiluak baimena eman du Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena sinatzeko, Arabako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa “Kontratazio Publikoa Euskadin” plataforman sartzeari buruz (2017-06-06). | |

| HEZKUNTZA SAILA | Konpromisoak: 90- 107 |
|---|---|

| Zk. | JARDUERAK | |
|---|---|---|
| | **90. Konpromisoa. Hezkuntza Ituna bultzatu, Hezkuntzaren Euskal Lege berri bat sortzeko** | **Hezkuntza Saila** |
| | **1. Ekimena. Hezkuntza-ituna lortu, guztien artean euskal hezkuntza-sistema egituratzeko eta indartzeko akordioak eta erabakiak lortzeko.** | |
| 1 | Hezkuntzaren aldeko akordioa bultzatzeko lehenengo bilera. | |
| 2 | "Hezkuntza aldatzea, mundu aldakor baterako" jardunaldia | |
| 3 | Hezkuntzako sailburua Eusko Legebiltzarrean agertzea, berak eskatuta, Hezkuntzaren aldeko Akordioa erdiesteko helburuarekiko hausnarketa eta parte hartze prozesuaren berri emateko. 22-11-2017 | |
| | **3. Ekimena. Egitura arinagoak eta gertuagoak bultzatu, Hezkuntza Administrazio berritzailea optimizatu ahal izateko.** | |
| 4 | Aurrerapen teknologikoak sailarekiko izapideetan eta harremanetan. beken eta garraioaren aplikazio informatiko berriek, kudeaketa arindu eta eraginkorrago egiteaz gain, gure hezkuntza komunitatera gerturatuko gaituzte. Beken izapideak bizkortu dira, eta urtearen bukaera baino lehen % 79 ebatzi dira. | |
| 5 | Plataforma berria aurkeztu da, familien eta ikastetxeen arteko komunikazioa sustatzeko. | |
| | **91. Konpromisoa. Eskola inklusiboaren, ekitatiboaren eta berritzailearen alde egin, bikaintasunerantz aurrera egiteko.** | **Hezkuntza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Hezkuntza-kalitatea eta gizarte-berdintasuna integratzen dituzten politikak bultzatu** | |
| 6 | Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek ekonomiaren eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat sartu dute ikastetxeetan. Iruzur Fiskalaren aurkako Borrokarako Plan Bateratuaren zati da proiektua. Zerga Hezkuntzarako 190.000 €ko inbertsioa egingo dute Eusko Jaurlaritzak (Ogasuna eta Ekonomia Saila) eta foru-aldundiek. | |
| 7 | "Hamaika Esku" programa garatu eta bultzatzea, programan parte hartzen duten ikastetxeetako gizarte-berdintasuna eta hezkuntzaren hobekuntza lantzeko. 53 ikastetxe. | |
| 8 | Hauspoa: Curriculumeko ikaskuntza eta gaitasunak indartzeko eta ikastetxeen autonomia sustatzeko proiektua. 2016-2017 ikasturtean, 28 ikastetxe. | |
| 9 | Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxeen titular diren irakaskuntza-kooperatibei zuzendutako laguntzen 2017ko deialdia. Zenbatekoa: 33.000 euro. | |
| 10 | 2017ko deialdia, Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarteek eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteek laguntzak eska ditzaten, salbu Haur Hezkuntzako lehenengo ziklokoek. Zenbatekoa: 500.000 euro. | |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena. Euskal Hezkuntzako Eredu Pedagogikoa garatu** |
| 11 | Prestakuntza-ekimen globala egitea eta abian jartzea. Ikasturte hauetan garatuko da: 2017-18, 2018-19 eta 2019-20 ikasturteetan. Ekimen horren helburuak bi dira: gure ikasleen emaitzak hobetzea eta ikastetxe guztietan gaitasunen garapenean eta ebaluazioan oinarritutako irakaste- eta ikaste-prozesuak gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak bermatzea. |
| | **3. Ekimena. Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatzea** |
| 12 | XV. Eduardo Chillida Matematika Olinpiadaren sariak banatu dira. 2017ko ekainaren 2an. |
| 13 | “MUSIKALDIA”n EAEko 46 musika-eskolatako 3.800 ikaslek parte hartu dute (maiatzaren 20an): jaialdia Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolatzen du, urtean bitan, eta, horietan, ikasleek zein irakasleek musikaren, dantzaren eta euskal kulturaren alde egiten duten lana erakusten dute. |
| 14 | EIO Txiki orkestra abiarazi da, 8 eta 12 urte arteko 100 kiderekin. Musika-eskola eta kontserbatorioetako 300 ikaslek parte hartzen dute guztira. |
| 15 | Dantzerti Eskolarekin eta Euskal Ikasleen Orkestrarekin batera aritzea, hainbat kontzertutan. |
| 16 | Berrikuntzako eta prestakuntza zientifikoko, teknologikoko eta ekintzailetzako proiektuak garatzea, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako 117 ikastetxetan |
| 17 | 2017ko deialdia, udal titulartasuneko musika-ikastegiei diru-laguntzak emateko. Zenbatekoa: 7.517.245 euro. |
| 18 | 2017ko deialdia, musika-ikastegi pribatuei diru-laguntzak emateko. Zenbatekoa: 2.017.131 euro. |
| | **4. Ekimena. Ebaluazio-kultura eta emaitzen hobekuntza bultzatu** |
| 19 | Hezkuntzako Ikuskaritzako lantaldea sortzea, irakasleen ebaluazioren eta gaitasun-esparruaren inguruko Erasmus+ europar proiekturako. |
| 20 | PISAk ebaluatutako ikastetxeetako zuzendaritzekin bilerak egitea, informazioa jasotzea eta lortutako emaitzen inguruko pertzepzioaren analisia egitea. |
| 21 | 2017ko Ebaluazio Diagnostikoa egitea ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe guztietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan. |
| 22 | Etapa amaierako ebaluazio diagnostikorako proba pilotua egitea (Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 4. mailan). |
| 23 | Ikastetxe eta familia guztiei informazio idatzia ematea (EHIGE, BIGE, BAIKARA, DENON ESKOLA) seihilekoan gauzatutako ebaluazio-jardueren berri emateko. |
| 24 | 2016-17 ikasturteko emaitza akademikoei buruzko adierazleak argitaratzea |
| 25 | Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskatzailetza estatuan erreferentea da, bere estrategia eta plangintzarengatik eta zuzendaritza-zereginaren ebaluazioarengatik. |
| 26 | Prest_Gara **Planean** irakasleentzako prestakuntza-ikastaro berriak sartu dira, ikasleekin irakurketaren ulermena eta gaitasun matematiko eta zientifikoa lantzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| 27 | “Eskala Handiko Ebaluazioak: PISAren kasua eta beste diagnostiko-ebaluazioak” jardunaldiak, UPV/EHUrekin batera antolatuta. | |
| 28 | Ikuskatzailetzari buruzko hiru urtez behingo plana onartzea eta argitaratzea 2017-2020. 2017an egindako hobekuntza-ekintzen jarraipena. | |
| | **5. Ekimena. Tratamendu espezifikoa eskaintzea ikasteko zailtasun handiagoak dituzten ikasleei, eta programa espezifikoak garatzea gaitasun handiak dituzten ikasleei behar bezalako arreta emateko.** | |
| 29 | Eskola inklusiboaren esparruan, aniztasunari erantzuna emateko II. Plana egiten ari da; aurreko planaren ebaluazioaren bidez. | |
| 30 | Gaitasun handiko ikasleentzako II. Jarduera Plana egiten ari da; lehenengo planaren ebaluazioaren bidez hori ere. | |
| 31 | Bikaintasunerantz programaren deialdiaren barruan, curriculuma aberasteko proiektuak sustatu eta bultzatuko dira. Helburua maila hauxe da: goreneko gaitasunak izan edo ez, ikasle guztien gaitasun bikainak edo berariazko talentuak detektatzea, ulertzea eta aberasteko jarduera-programak garatzea, ikasteko eta lorpen pertsonalen nahiz kolektiboen gaineko motibazioa pizteko. | |
| 32 | Deialdia, hezkuntza-premia bereziko ikasleak eskolatzen dituzten eta 2017-2018 ikasturterako hezkuntza-laguntzako espezialistak kontratatu behar dituzten ikastetxe itundu pribatuetarako laguntzetarako. Zenbatekoa: 11,7 milioi euro. | |
| 33 | Laguntzak, 2017-2018 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzekoak Zenbatekoa: 1.029.996 euro. | |
| 34 | Hezkuntza-premia espezifikoei aurrea hartzeko eta dagokien esku-hartze egiteko arreta goiztiarrari buruzko programa bat ezartzea. | |
| | **92. Konpromisoa. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan** | **Hezkuntza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Oreka, gizarte-kohesio, kulturartekotasun eta bizikidetza handiagoa lortu gure ikastetxeetan.** | |
| 35 | Bizikidetza positiboa sustatzeko eskola-jazarpenaren aurkako ekimen integrala diseinatzea: BIZIKASI, 2017-2018ko ikasturtean txertatzeko (1.000 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute) | |
| 36 | Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko 2016-2020 II. Plana abian jartzea | |
| 37 | Deialdia, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek 2017-2018ko ikasturterako curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa-taldeak baimentzea eska dezaten. CA: 94 ikastetxe, 116 irakasle | |
| 38 | Deialdia, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoek 2017-2018ko ikasturtean Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Proiektuak (HBSP) egiteko eskaerak egin ditzaten. HBSP: 100 ikastetxe | |
| 39 | Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoentzako deialdia, 2017-2018ko ikasturtean BIDELAGUNA egiteko eskaerak egin ditzaten. Eskola-ordutegitik kanpoko laguntza. BIDELAGUNA: 250 ikastetxe, 1.581.300 €. | |

| | |
|---|---|
| 40 | Deialdia, EAEko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako itunpeko ikastetxeentzat, hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduera-proiektuak egitea eskatzeko, zehazki, 2017-2018, 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetarako. Hezkidetza. 50 ikastetxe |
| 41 | Garatzen ari den proiektua garatzea eta lider izatea: Zorrotza, gizarte-hezkuntzazko proiektua: Bilboko Udalaren konpromisoaz gain, Zorrotzako hiru zentro publikoen, gurasoen elkarteen, auzoko eragile eta erakundeen eta Hezkuntza Sailaren konpromisoa ere hartuta. Helburua auzoko hezkuntzaren kalitatea hobetzea da, aipatutako eragile guztien indarrak eta ahaleginak batuz. |
| 42 | Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe itundu pribatuei dei egitea, ituntzeko unitateak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hezkuntza berezi irekian, hezkuntza-indargarri espezifikoko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan eska ditzaten, 2017-2018 ikasturterako. 2017ko ekaina |
| 43 | Irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi dei egitea, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2017-2018 ikasturtean. Zenbatekoa: 435.890 euro. |
| 44 | Diru-laguntzak eskatzeko deialdia, kulturartekotasuna sustatzeko programetarako, ikasle etorkizunei zuzenduak eta sartu berri diren ikasleei hizkuntza-indargarria emateko baldin badira. Zenbatekoa: 1.698.000 euro. |
| 45 | Deialdia, aniztasuna sustatzeko programa espezifikoak garatzeko 2017ko ezohiko diru-laguntzak emateko. Zenbatekoa: 350.000 euro. |
| | **3. Ekimena. Balioetan oinarritako heziketa, inklusiboa, eta aniztasuna errespetatzen duena bultzatu, pertsonen garapen integrala lortzen laguntzeko.** |
| 46 | Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin lankidetzan, garapenerako hezkuntzako "(H)ABIAN 2030" Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia aurkeztu da. |
| 47 | ISEI-IVEIk (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) ekainaren 7an "Ikaskideen arteko Tratu Txarrak 2016" txostenaren aurkezpena egin zuen. |

| | | |
|---|---|---|
| | **93. konpromisoa. Eleaniztasuna bultzatu eskolan** | **Hezkuntza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Elebitasuna, hezkuntza eleaniztunaren esparruan** | |
| 48 | Ulibarri programa, hizkuntza-normalizaziorako, ikastetxe itunduei eta ikastetxe publikoei zuzendua, 2017-2018 ikasturterako. | |
| 49 | Laguntzak, 2017an, eskola-ordutegiaren barruan, Irale programaren euskara-ikastaroetan parte har ditzaten irakasleak liberatu nahi dituzten ikastetxe pribatuei edo gizarte-ekimeneko ikastetxeei zuzenduak. | |
| 50 | 2017-2018ko deialdia, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoek ele anitzeko hizkuntza-proiektuak garatu ditzaten eta proiektu horiekin lotutako atzerriko hizkuntzako prestakuntza jaso dezaten. Deialdira 117 ikastetxe aurkeztu dira. | |
| 51 | 2016-2017ko ikasturtean onartutako proiektuak 320 ikastetxetan garatu dira; horietatik 108 publikoak dira, eta 212, itunduak. | |
| 52 | Laguntzen deialdia, 2017ko udan eta 2017-2018 ikasturtean garatuko diren Irale prestakuntza-programaren ekintzetan parte hartzeko. Ikastaro horietan parte hartzeko tokia esleitzeko prozedura ere ezartzen da. | |

| | |
|---|---|
| 53 | Laguntzen deialdia, Ikastetxe itundu pribatuek 2017-2018 ikasturtean eskola-esparrua euskalduntzeko. |
| 54 | Unibertsitateaz bestelako mailetan euskara-material didaktikorako diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa, guztira: 760.000 euro (liburuak eta gainerako ikasmaterial didaktiko inprimatuak (EIMA I) 460.000 euro; unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak (EIMA 2.0) 200.000 euro; unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak (EIMA 4) 100.000 euro). |
| 55 | Euskara EAEko eskola-eremuan erabiltzeari buruzko Arrue Proiektuaren emaitza nagusien gaineko txosten teknikoa. |
| 56 | Euskal girotze barnetegiak, euskaraz mintzatzeko ohitura eskolatik kanpo sustatzeko. 200 ikastetxe inguruko 3.000 ikaslek parte hartu dute. |
| 57 | Eskolako eta eskolaz kanpoko jarduera indargarriak (800 ikastetxe inguru, mintzamena hobetzeko eta euskaraz beste jarduera batzuk egiteko). |
| 58 | Euskaraz irakurtzeko ohitura bultzatzea, "Idazleak Ikastetxeetan" programaren eta "Urruzonotarrak gehituz literatur saria"ren bidez. |
| | **2. Ekimena. Irakasleak hizkuntzetan egunean jartzea bultzatzea, bai eta hizkuntzen didaktikaren gaineko prestakuntzan ere, irakasleen Hizkuntza Prestakuntzarako eta Metodologiarako Plana sustatuz.** |
| 59 | 2017-2018 ikasturterako deialdia, hizkuntza-proiektu eleaniztunak dituzten ikastetxe itunduetako irakasleek atzerriko hizkuntza bat ikas dezaten. |
| 60 | ELEANIZTASUNERANTZ Deialdia. Diru-laguntzak, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuek hizkuntza-proiektu eleaniztunak garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, irakasleek atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko 2017-2018 ikasturtean. |
| 61 | Euskal Girotze Barnetegietan 2017-2018 ikasturtean egingo diren egonaldi-txandak esleitzeko deialdiaren ebazpena |
| 62 | Mintegiak antolatzea, batez ere hizkuntzen tratamendu integratuaren eta integralaren inguruan, irakasleen Hizkuntza Prestakuntzarako eta Metodologiarako Plana sustatzeko. |
| 63 | Prest_gara programaren ikastaroen bidez, irakasleei hizkuntza-prestakuntza eskaintzea. |
| 64 | UPV/EHUk irakasleei prestakuntza espezifikoa eman die, hizkuntzen trataera integratu eta integralaren gainekoa. Antolatutako bi aldietan, 101 irakaslek parte hartu dute. |
| | **3. Ekimena. Ingelesaren prestakuntza zabaltzea nabarmenki bultzatzea** |
| 65 | Plazen eskaintza, ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek ingelesean murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten. Plazen kopurua: Murgiltzea: Eskaerak aurkezteko epea: ekainaren 9an bukatu zen. Ebazteko zain (uztailaren 1a baino lehen). Tokien kopurua: 2196. Aurrekontua: 383.800€ |
| 66 | Hezkuntza-laguntza ematea mintzapraktikako laguntzaileei, beste hizkuntzetako ahozko praktika indartzeko. Sailak 115 laguntzaile kontratatzen ditu; eta Ministerioak, 53. Ingelesa gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza da; atzetik frantsesa eta alemana daude. |

| | | |
|---|---|---|
| 67 | Mintzapraktikako laguntzaileen kopurua 115 izatetik 160 izatera igo da, 2017-2018 ikasturtean. Helburua ikasleen ahozko gaitasuna atzerriko hezkuntzan hobetzea da. | |
| 68 | Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak 2018ko udan egiteko plazetarako deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoez finantzatzen diren ikastetxeetan matrikulatuta dauden Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleek eska dezaten. Zenbatekoa: 847.038 euro. | |
| | **4. Ekimena. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehenengo zikloan bigarren kanpoko hizkuntzaren ikaskuntza bultzatu** | |
| 69 | Iazko deialdiari dagokionez, ikastetxe publikoei zuzendutako proiektu eleaniztunen deialdiko aurrekontu-zuzkidura handitu egin da. | |
| 70 | UPV/EHUk prestakuntza espezifikoa eman du, hizkuntzen trataera integratu eta integralaren gainekoa. Antolatutako bi aldietan, 101 irakaslek parte hartu dute. | |
| 71 | Ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak atzerrian, DBH 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat; 2016-2017 ikasturtean 552 ikaslek hartu dute parte. | |
| 72 | Sailarteko lankidetzaren barruan, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako ordezkariekin lehen bilera egin da, mugatik gertu dauden ikastetxeetan frantsesa irakastea bultzatzeko. | |
| | **94. Konpromisoa. Hezkuntza-sisteman sartzeko aukera berdinak bermatu** | **Administrazio Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Hezkuntza-sistemak oztopo sozioekonomikoak gainditzen lagundu eta kohesioa bermatzea bultzatu.** | |
| 73 | Diru-laguntzetarako deialdia:<br>- Bekak emateko 2016-2017ko deialdia eta ebazpena. 158.000 eskabide inguru erantzun dira, eta haietako 125.000 eskatzailek beka lortu dute. Deialdi horretako aurrekontua 55 milioi eurokoa da.<br>- 2017-2018 deialdia. 163.243 eskabide aurkeztu dira. Ebazpen-epea aurreratu da, eta % 79 ebatzi dira. Gainerakoak likidazio-fasean daude. | |
| 74 | 4.690.000 euro, zero eta hiru urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioentzako diru-laguntzen 2016-2017 ikasturteko deialdian. | |
| 75 | Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen eskola-garraiorako diru-laguntzen deialdia, 2016-2017 ikasturtekoa. Zenbatekoa: 1 milioi euro | |
| 76 | Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak ikasten dituzten ikasleek erabili beharreko material didaktikoak eta curriculuma garatzeko baliabideak babesteko programa. 2017-2018 ikasturtea. 4.860.902 euro. (Lehen Hezkuntza: 2.499.342 euro. DBH: 2.361.560 euro). | |
| 77 | Eskola-garraiorako banakako diru-laguntzetarako 2017ko deialdia, desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten ikasleentzat, baldin eta eskolatuta badaude etxebizitzaren arabera dagokien ikastetxe publikoan edo Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak berariaz adierazitako ikastetxe publiko edo itundu batean, eta ezin badute ohiko eskola-garraioa edo ikastetxeak espezifikoki antolatutakoa erabili. Zenbatekoa: 3.004.000 euro. | |
| 78 | 2017ko laguntzen deialdia, Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetako obrak finantzatzeko (Udalaguntza-2017). Zenbatekoa: 6.000.000 euro, 2018ko aurrekontuan. | |

| | |
|---|---|
| 79 | Titulartasun pribatuko haur hezkuntzako lehen zikloko eskolei emateko laguntzen deialdia, 2017-2018 ikasturterako. Zenbatekoa: 24.627.322 euro. Milioi bat euro gehiago emango da. |
| 80 | Hezkuntza Sailaren mendeko Bizkaiko ikastetxe publikoetara joateko eskola-garraioko laguntzaileen zerbitzua kontratatzea, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteetarako. Zenbatekoa: 5.027.616 euro. |
| | **95. Konpromisoa. Irakasleen eginkizuna sustatu, Hezkuntzaren hobekuntzaren eta aldaketaren eragile nagusiak diren aldetik** — **Hezkuntza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Komunitate hezitzailearen prestakuntza bultzatu** |
| 81 | 2017-2018 ikasturterako deialdia, irakasleen etengabeko prestakuntza berrikuntzaren bidetik eramateko eta praktika profesional onak partekatzeko proiektuetarako, itunpeko ikastetxeei eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren titulartasun publikoko ikastetxeei zuzendua. |
| 82 | Deialdia, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Prest_Gara Plana garatzeko 2017-2018ko ikasturtean zehar proiektuak aurkeztuz, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi duten erakunde publikoei eta pribatuei. |
| 83 | Deialdia, Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxe publikoek bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten, 2017-2018 ikasturtean. |
| 84 | Kanpo-ebaluazioetan zehaztutako gabezien inguruko jardunbide egokiak txertatu dira Partekatuz Ikasi programan. 90 ikastetxek programaren jardunbide egokietako batzuk eskatu ditu. Guztira 268 ikastetxe aurkeztu dira deialdira. |
| 85 | Deialdia, ikastetxe publikoek hezkuntza zientifiko eta teknologikoan eta ekintzailetzan berrikuntza-proiektuak eta prestakuntza-ekintzak egin ditzaten. |
| | **3. Ekimena. Irakasleen egonkortasunaren alde egin, urtero enpleguko eskaintza publikoen deialdiak eginez.** |
| 86 | 2017ko Lan Eskaintza Publikoaren deialdia otsailean egin zen, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 740 plaza eskaini ziren: lehenengo azterketa ekainaren 17an egin zen, BECen 6.122 pertsonak izena eman dute.<br>2018ko Lan Eskaintza Publikoaren deialdian 1.511 plaza eskaintzen dira, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako mailetan. |
| | **4. Ekimena. Zuzendaritza-taldeen lidergoa, egonkortasuna eta jarraitutasuna sustatu, eta ikastetxe publikoen autonomian irmoki aurrera egin.** |
| 87 | Zuzendaritza-taldeen prestakuntza zonakako Berritzeguneetako mintegietan. Zuzendaritza-taldeen prestakuntza, Berritzegune Nagusiaren eskutik. |
| 88 | Zuzendaritza proiektuak dituzten zuzendaritza-taldeen laguntza, jarraipena eta prestakuntza-ebaluazioa egitea eta Hezkuntzako Ikuskaritzari amaiera ematea. |
| 89 | Zuzendaritza-taldeak indartzea, ikastetxe publikoetako eta ikastetxe itunduetako zuzendariekin bilerak eginez (800 zuzendari parte-hartzaile baino gehiago). Bilera horiek egingo dira, sailak ezarritako ildo estrategikoen eta lehentasunen berri ematea, ikastetxeetako zuzendaritza-kudeaketan eragina izan dezaketelakoan. |
| 90 | 262/2017 DEKRETUA, abenduaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendariak |

| | |
|---|---|
| | aukeratzeko, eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko eta kargua uzteko prozedurari buruzko dekretua hirugarrenez aldatzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendari-karguaren berariazko ordainsari-osagarriaren zati bat finkatzeko Dekretua aldatzen duena. |

| | | |
|---|---|---|
| | **96. Konpromisoa. Hezkuntza-azpiegiturak sortu, berritu eta egokitu** | **Administrazio Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Hezkuntza-azpiegitura berriez hornitu, eta daudenak handitu.** |
| 91 | Hezkuntza Azpiegituren Plana: Azpiegituren Planean jasotako obren % 83 egin dira, edo administrazioan izapidetzen ari dira. Jarduketa berriak sartu dira, 45 milioi euroko balioa ezarrita. |
| 92 | Eskoletan honako jarduketa hauek egin dira: |
| | Eraikuntza berriko obrak:<br>- Lehen hezkuntzako hiru lerro eta haur hezkuntzako hiru lerro dituen ikastetxe bat eraiki da, Gasteizko Errekabarri HLHI ikastetxean. Zenbatekoa: 7,2 milioi.<br>- Haur hezkuntzako Iruarteta HLHI ikastetxe berria eraikitzea. Zenbatekoa: 5,8 milioi.<br>- Zestoako Arroa Beheko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxerako, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako sei unitate dituen eraikina eraikitzea. Zenbatekoa: 2 milioi.<br>- Dulantziko DULANTZI HLHIn haur-hezkuntzako eraikin berria eraikitzeko lanak. Zenbatekoa: 1,2 milioi.<br>- Alkiza, Oikia, Arroa eta Lemoiz herrietako eskola txikietan inbertsioa egitea.<br>- Ermuko BHI: Batxilergoa eta DBHko 3. eta 4. mailak Errabe eraikin berrira lekualdatzea. |
| | Handitzeko eta eraldatzeko lanak:<br>- Modulu-gelen % 40 murriztea: 107 ziren, eta 59 dira gaur egun.<br>- Beasaingo BHI handitzeko lanak amaitzea. Zenbatekoa: 2,2 milioi euro.<br>- Egokitze-lanak, 256 ikastetxe publikotan, udan. Zenbatekoa: 4,2 milioi.<br>- Barakaldoko Antonio Trueba BHI handitzeko eta eraldatzeko lanak. Zenbatekoa: 2,5 milioi.<br>- Bilboko San Adrian BHI handitzeko lanak. Zenbatekoa: 3,2 milioi.<br>- Pasaiako Karmengo Ama HLHIko lau unitate eraldatzeko eta handitzeko lanak. Zenbatekoa: 820.000 euro.<br>- Beasaingo Lizeo Alkartasuna HLHIko eraikina eraldatzeko lanak. Zenbatekoa: 581.000 euro<br>- Eibarko Armeria Eskola GLHBIko estalkiak birgaitzeko lanak. Zenbatekoa: 877.000 euro<br>- Azkoitia-Azpeitiko UROLA IKASTOLA BHIn lau ikasgela gehiago eraikitzea. Zenbatekoa: 496.000 euro.<br>- Lasarteko LANDABERRI BHIko estalkia birgaitzeko lanak. Zenbatekoa: 200.000 euro<br>- Ordiziako Oianguren BHIko estalkia eraldatzeko lanak. Zenbatekoa: 424.000 euro<br>- Zaldibarko HLHI handitzeko lanak. Zenbatekoa: 647.000 euro |
| | Proiektuak idaztea eta lizitazioak egitea:<br>- Aldaialde Zabalgana ikastetxearen proiektua, Gasteizko Errekabarri HLHIko eta Bilboko Iruarteta HLHIko obrak lizitatzea. Zenbatekoa: 15,7 milioi.<br>- Gasteizko Salburua BHIn DBHko 7 linea eta Batxilergoko 4 linea izango dituen ikastetxe berria eraikitzeko lanen zuzendaritza fakultatiboak, lan osagarriak eta egikaritze-proiektua idaztea. Zenbatekoa: 700.000 euro<br>- Gasteizko Aldaialde HLHIn Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako hiru linea izango dituen ikastetxe berria eraikitzeko lanen zuzendaritza fakultatiboak, lan osagarriak eta egikaritze-proiektua idaztea. Zenbatekoa: 500.000 euro.<br>- Derioko DERIO BHIn eraikin berri bat eraikitzeko lanen zuzendaritza fakultatiboa, lan osagarriak eta egikaritze-proiektua idaztea. Zenbatekoa: 600.000 euro. |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena Azpiegituretarako sarbidea hobetu.** |
| 93 | Epaltzaren Alarguna, Tomás Camacho eta horrelako ekintzak, eta obra handiagoak, hala nola Tolosako Orixe ikastetxe berria eraikitze-proiektua. |
| 94 | Bilboko Tomás Camacho HLHIn arkitektura-oztopoak kentzea. Zenbatekoa: 198.000 euro |
| 95 | Portugaleteko Antonio Trueba IPIn arkitektura-oztopoak kentzeko eta joko-zelaiko estalkia. Zenbatekoa: 355.000 euro |
| | **3. Ekimena. Udalekin lankidetzan aritzeko mekanismoak indartu eta erakundeen arteko lankidetzako beste tresna batzuetan aurrera egin, dauden premiak antzemateko eta baliabideak optimizatzeko.** |
| 96 | Udalaguntza deialdia:<br>- Udalaguntza 2016 deialdia ebatzi da, eta 99 udalerritako 167 ikastetxetako 298 ekintza diruz lagundu dira.<br>- 2017ko Udalaguntza deialdia abian jartzea, Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak dauden udal-jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziazioari buruz. Eskabideak aztertzeko fasean. |
| 97 | Bilboko Udalarekin hitzarmena sinatzea, Bilboko Haurreskolen kopurua handitzeko. Lau haurreskola abian jarriko dira, eta plaza publikoen eskaintza % 26 handituko da, lau urtean. Sánchez Marcos e Iruarteta (handitze-lanak) eta Zamakola eta San Inaxio (erakin erantsiak). Bilbon, guztira, 15 haurreskola eta 670 plaza egongo dira. |
| 98 | Deialdia, zero eta hiru urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioentzako diru-laguntzen 2017-2018 ikasturteko deialdian. Zenbatekoa: 3.500.000 euro. |

| | | |
|---|---|---|
| | **97. Konpromisoa. Irakaskuntzaren modernizazio teknologikoa bultzatu.** | **Administrazio Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Irakaskuntzaren eraldaketa teknologikoa eta pedagogikoa bultzatu** |
| 99 | Deialdia, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoek baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan proiektuan parte har dezaten. Behin-behineko ebazpena: 70 ikastetxe. 274.996€ |
| 100 | Deialdia, itunduen sareko ikastetxeek eta unibertsitatez kanpoko ikastetxeekin estatutu- zein erregelamendu-harremanak dituzten erakunde eta federazioek 2017-2018 ikasturtean parte har dezaten, baliabide digitalekin irakasteko eta ikasteko Sare_Hezkuntza Gelan izeneko berrikuntza-proiektuan. Ebazteko zain: 35 ikastetxe. 305.000€ |
| 101 | Deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoek eta itunduek IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskura ditzaten. Ebatzia: 369 ikastetxe |
| | **2. Ekimena. Ikastetxeen sare bidezko ikaskuntzako komunitate birtual bat sortzen jarraitu** |
| 102 | Diru-laguntzen deialdia, 2017-2018an gailu digitalak erosteko, ikasleek erabil ditzaten. Zenbatekoa: 1.255.600 euro. |

| | |
|---|---|
| | **3. Ekimena. Azpiegiturak modernizatu, baliabide digitalak gehiago eta hobeto aprobetxatzera zuzendutako komunikazio bizkorrak eta seguruak errazteko, eta, halaber, sare bidezko ikastetxeak bultzatu.** |
| 103 | Esparru-akordioa, EAEko ikastetxeetan informatikako materialak emateko, instalatzeko edo konfiguratzeko, datozen lau urteetan. Zenbatekoa: 16.600.000 euro. |

| | | |
|---|---|---|
| | **98. Konpromisoa. Euskadik Bikaintasunezko Lanbide Heziketan duen lidergoari eutsi. Euskal Lanbide Heziketaren Legea** | **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Lanbide Heziketaren eremuan, Kualifikazioen eta Espezializazioen Euskal Esparrua garatu. Eremu horren barruan, espezializatzeko programa berriak diseinatzeari ekin, bereziki landuz Euskadiko Espezializazio Adimentsuaren Estrategian (RIS 3) definitutako eremuak** |
| 104 | Prestakuntza handiko profesionalak behar dituzten baina aurkitzen ez dituzten enpresei nahierarako erantzuna emateko espezializazio-programak garatzea. Hamabi espezializazio-programa argitaratu dira 45 enpresarentzat. 22 ikastetxetako 285 ikaslek parte hartu dute, 2017ko abenduan. |
| 105 | 2017ko deialdia, lanbide-gaitasunak —profesionaltasun ziurtagiria— egiaztatzeko, lan-eskarmentuaren bidez edo ikaskuntza informalen bidez. 1.540 plaza beteko dira, eta 22 profesionaltasun-ziurtagiriri eta prestakuntza-tituluri lotuta daude.<br>Deialdi espezifikoa, ASPACEko langileei egina; zehazki, "Gizarte-erakundeetako laguntza soziosanitarioa"ko 62 hautagairi.<br>Deialdi espezifikoa, UVESCOko langileei egina; zehazki, "Harakintza, Arrantza eta Merkataritza Jarduerak" profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko 19 hautagairi. |
| | **2. Ekimena. Heziketa-zikloetan ikuspegi eta metodologia berriak sartu, ikasleen gaitasunak hedatzeko eta hobetzeko.** |
| 106 | 225 heziketa-ziklo eskaini dira, ikaskuntza-metodologia aktiboak aplikatuta, 52 zentrotan. 5.625 ikaslek eta 1.650 irakaslek parte hartu dute. |
| | **3. Ekimena. Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa duala bultzatu.** |
| 107 | 2017-2018 ikasturtean, ikas-ekinezko erregimeneko lanbide heziketa dualean 97 ikastegik, 1.122 enpresak eta 1.913 ikaslek parte hartu dute. |
| 108 | EAEn lanbide-heziketa duala sustatzeko kanpaina berria abiarazi da, Confebaskekin batera, ikastetxeen bidez. Horren barruan enpresentzako gidaliburu azkar bat egin da, eta bertan bildu dira egin behar diren urratsak: 1.800 enpresatik gora, eta enpresa txiki eta ertainen % 80. Web-orri bat egin da: www.fpeuskadidual.eus. |
| 109 | Deialdia, 2017-2018 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe itundu pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko diru-laguntzak eskatzeko. Zenbatekoa: 650.000 euro. |

| | |
|---|---|
| | **4. Ekimena. Euskal Lanbide Heziketaren Legearen proiektua onartu.** |
| 110 | Eusko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak legebiltzar-taldeek batera aurkeztu zuten Lanbide Heziketari buruzko lege-proposamen bat, eta Eusko Jaurlaritzak 2017ko maiatzaren 30ean ondo iritzi zion lege-proposamena Eusko Legebiltzarrean izapidetzeari. |
| | **5. Ekimena. Bizitza osoan zehar ikasteko urriaren 10eko 1/2013 Legea garatu, helduen etengabeko heziketa bultzatzeko.** |
| 111 | 420.000 euro bideratu dira 2017an hasiko diren bizi osorako ikaskuntza-jardueretarako. |
| 112 | Nondik nora jo ikusteko gida bat sortu da, Lanbide Heziketa Orienta izenekoa, eta ikastetxe integratu bakoitzak badu lanbidean orientatzeko bere saila. Gaur egun, 32 sail daude. |

| | | |
|---|---|---|
| | **99. konpromisoa. Berrikuntza Aplikatua eta Ekintzailetza babestu, Lanbide Heziketako ikastetxeetan** | **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **1. Ekimena. Lanbide-heziketako ikastetxeetan, berrikuntzaren kultura bultzatu, eta enpresa txiki eta ertainei laguntza gehiago eman.** |
| 113 | Berrikuntza lantzeko arloak:<br>- Nodoak: lau nodo aktibo; lanbide-heziketako 19 ikastetxek parte hartzen dute.<br>- TKGUNE: 5 Tkgune; lanbide-heziketako 34 ikastetxek parte hartzen dute; eta 90 irakaslek baino gehiagok zerbitzu eman dute proiektuak 300 enpresatan baino gehiagotan emanez.<br>- Espezializazio-arloa: 17 arlo; lanbide-heziketako 40 ikastetxek baino gehiagok parte hartzen dute.<br>- Ikastetxeetako berrikuntza-proiektuak: 43 proiektu; lanbide-heziketako 45 ikastetxek parte hartzen dute.<br>- “Berrikuntzarako errutinak” proiektua: 65 ikastetxe; 390 irakasle ari dira proiektuan.<br>- “Lehiatzeko adimena” proiektua: 52 ikastetxe eta 208 irakasle ari dira proiektuan.<br>- 30 ikastetxe, 88 sorkuntza-irakasle. |
| | **2. Ekimena. Berrikuntza-arloan irakasleen prestakuntza indartu.** |
| 114 | 169.000 € bideratu dira, lanbide-heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunduen diru-laguntzetarako, beren ikasleei prestakuntza emateko jarduerak egin ditzaten 2017-2018 ikasturtean |
| 115 | Berrikuntza-errutinak: 632 ordu eman dira, prestakuntzan eta banakako aholkularitzan.<br>Lehiatzeko adimenaren bidezko kudeaketa aurreratua: 560 ordu eman dira prestakuntzan eta banakako aholkularitzan<br>Ikaskuntza-metodologia aktibo berriak: 720 ordu eman dira prestakuntzan. |
| | **3. Ekimena. Lanbide Heziketako ikastetxeetan, ekintzailetzaren kultura bultzatu.** |
| 116 | Ikasempresa: gaur egun 78 ikastetxek parte hartzen dute programa honetan.<br>Ekintzailetza: 2005. eta 2017. urteen artean, 820 enpresa sortu dira, eta biziraupen-indizea % 70ekoa da. 2017an, 86 enpresa sortu dira. Gaur egun 64 dinamizatzaile daude; programan parte hartzen duen ikastetxeetan dinamizatzaile bana. |

| | | |
|---|---|---|
| | **100. Konpromisoa. Lanbide Heziketako euskal ereduaren nazioartekotzea bultzatzen jarraitu** | **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Lanbide Heziketako Euskal Campusa bultzatu.** | |
| 117 | 2017ko deialdia: 1.023 ikasleren (344, Erdi Mailakoak; eta 679, Goi Mailakoak) eta 300 irakasleren (176, Erdi Mailakoak; eta 124, Goi Mailakoak) mugikortasuna. | |
| 118 | EAE aztertzeko bisita egin dute Europako Batzordearen eta Europako 14 estatuko adituek —besteak beste, Finlandia, Austria, Alemania, Suedia, Italia, Lituania, Estonia edo Erresuma Batuko enplegurako prestakuntza-politiken arduradunak dira—, EAEko lanbide-heziketako sistema ezagutzeko. | |
| | **2. Ekimena. Atzerrian egoitzak dituzten euskal enpresei lagundu.** | |
| 119 | Mexikoko Guanajuato estatuko gazteei prestakuntza-emateko programa bat adostu da. TKNIKAren eta Guajanato Estatuko Gobernuaren Garapen Ekonomiko Jasangarrirako Idazkaritzaren artean adostu da (*Secretaría de Desarrollo Económico Sustentable*). | |
| | **101. konpromisoa. Lanbide Heziketako V. Euskal Plana egin.** | **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak, enpresarekiko harremanak eta prestakuntza duala, berrikuntza teknologiko aplikatua eta ekintzailetza bultzatzen jarraitu.** | |
| 120 | Lankidetza-hitzarmena sinatu da 6 erreferentzia-enpresarekin: Mondragon, Danotbatgroup, Petronor, Uvesco, Tubacex eta ITP. Basque Industry 4.0 "Basque Digital Innovation Hub" gidaritza-taldearekin lankidetza egin da. Basque Cibersecurity Centre erakundeko batzorde iraunkorreko kideak, hezkuntza-arloan. | |
| 121 | Lanbide-heziketan integratutako **33** zentro daude; irailean 55 izango dira. Orientazio-sail berria sortu da ikastetxeetan. Enplegagarritasunaren eta lehiakortasunaren eremuan **14** espezializazio-programa jarri dira martxan, eta **9 gehiago garatzen ari dira**, enplegagarritasunaren eskaera berriei erantzun egokia emateko. | |
| 122 | Diru-laguntzen deialdia, 2017-2018 ikasturtean Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten ikastetxe itunduetan berrikuntza eta ekintzailetzako proiektuak egiteko. Zenbatekoa: 770.000 euro. | |
| 123 | Diru-laguntzen deialdia, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe itundu pribatuek 2017-2018 ikasturtean Lanbide Heziketako IV. Euskal Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak gara ditzaten. Zenbatekoa: 1.754.000 euro. | |
| | **3. Ekimena. Lanbide Heziketa eraldatu, beste eredu bat lortze aldera, non planteatzen diren premia berriei erantzungo baitzaie, teknologia aurreratuetan eta ingurune konplexuetan oinarritutako enplegagarritasunari eta lehiakortasunari ekiteko.** | |
| 124 | 750.000 € bideratu dira ikastetxe pribatu itunduen diru-laguntzetarako, 2017-2018 ikasturtean eskaintza partzialeko modalitatean heziketa-zikloak emateko. | |
| 125 | 500.000 euro bideratu dira ERASMUS+ programaren barruan lanbide-heziketaren eremuan irakaskuntzarako mugikortasuneko KA1 ekintzetarako. | |

| | |
|---|---|
| | **4. Ekimena. Errendimendu handiko Lanbide Heziketa diseinatu eta garatu.** |
| 126 | Errendimendu handia. **252** ziklo eskaini dira **52** ikastetxetan, eta **5625** ikaslek eta **1650** irakaslek parte hartu dute. |
| | **5. Ekimena. TKNIKA eraldatu eta berregituratu, Lanbide Heziketari aplikatutako ikerketaren eta berrikuntzaren garapenean liderra den aldetik.** |
| 127 | Tknika —LHri aplikatutako ikerketa eta berrikuntzako EAEko zentroa— bisitatu du UNESCO-UNEVOC nazioarteko zentroko (Bonn) zuzendariak. Bisita horren helburua TKNIKA Unescoko UNEVOC sareko kidea dela berrestea izan da. Hala, Estatu osoan aintzatespen hori jaso duen zentro bakarra bihurtu da. |
| | **102. Konpromisoa. Euskarazko heziketa-zikloak ezartzen aurrera egin eta Lanbide Heziketan eleaniztasuna bultzatzen jarraitu** — **Lanbide Heziketako Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. 2020rako, Lanbide Heziketako ikasleen % 50ek ikasketak euskaraz egin ditzaten lortu.** |
| 128 | Euskalduntzea **2017-18** ikasturtean: LHn matrikulaturik dauden ikasleen % **35,13**k euskaraz ikasten du. Datozen lau ikasturteetarako (2017-2018-2019-2020-2021), LH euskalduntzeko plan bat diseinatu da. Helburua: LHko ikastetxe publiko bakoitzeko eskaintzaren % 50 B edo D ereduan izatea, 2020-2021 ikasturtean. |
| | **2. Ekimena. Heziketa-ziklo hirueledunak ezartzen jarraitu, lehentasuna ingelesari emanez, eta, hala badagokio, frantsesari.** |
| 129 | Hirueleaniztasuna: eskaintza 21 taldetan handitu da. |
| 130 | 2017ko diru-laguntzen deialdia, heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe itundu pribatuetan 2017-2018 ikasturtean atzerriko hizkuntza indartzeko. Zenbatekoa: 146.250 euro. |
| | **103. Konpromisoa. Unibertsitate-mailako oinarrizko politika zientifikoa eta ikertzailea garatu eta talentua sustatu, bikaintasunaren bila** — **Unibertsitate Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Ikertzaileen karrera profesionalaren euskal eredua eta ikertzaileak unibertsitate- sisteman eta euskal bikaintasun-zentroetan integratzea babesteko behar den arau-esparrua garatu.** |
| 131 | 8.765.580 euro doktorea ez den pertsonal ikertzailearen doktoretza-aurreko prestakuntza-programaren diru-laguntzetan erabiltzea, 2017-2018ko ikasturterako deialdian doktore-tesi bat egitera bideratutako ikerketa finantzatzeko. |
| 132 | 2.801.700 euro pertsonal ikertzaile doktorearen doktoretza-ondoko prestakuntza-programaren diru-laguntzetan erabiltzea, EAEko aplikazio-zentroetan pertsonal ikertzaile doktorearen hobekuntzarako eta atzerrira alde batean joateko 2017-2018ko ikasturterako. |
| 133 | 2017ko bigarren seihilekoan egin beharreko kongresu eta bilera zientifikoak egiteko diru-laguntzetarako 200.000 euro eskaintzea. 2017ko lehen seihilekoan 29 kongresu edo biltzar diruz lagundu dira. UPV/EHUk, BCBLk (Basque Center on Cognition, Brain and Language), Deustuko Unibertsitateak, DIPCk (Donostia International Physics Center), Biodonostiak, Biocruces-ek edo BCAMek (Basque Center for Applied Mathematics) eta Zientzia, Teknologia eta Berriztapenaren Euskal Sareko beste erakunde batzuek antolatu dituzte kongresu eta bilera horiek. |

| | |
|---|---|
| 134 | Deialdia, 2018-2020 aldian egin beharreko oinarrizko ikerketako edota ikerketa aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2018-2019 aldiko Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura ikerketa eta berrikuntza teknologikorako laguntzak eskatzeko. Zenbatekoa: 970.000 euro. |
| 135 | UPV/EHUko 161 irakasle-ikertzaileren lanpostu eskaintzeko 2017. urteko lan-eskaintza publikoa . |
| | **2. Ekimena. Ikerbasquen lana sustatu** |
| 136 | Apirilaren 3an Ikerbasqueren 10. urtemuga ospatzea. Eusko Jaurlaritzak 2007an sustatutako Ikerbasque ekimenak 143 ikertzaile finkatu eta 67 ikertzaile gazte ditu egun. Ikertzaile horiek Euskadiko 23 unibertsitatetan eta I+ G-ko zentroetan egiten dute beren lana. |
| 137 | Bikaintasuneko talentu ikertzailea Ikerbasqueren bidez sartzeko berriztapen-fondoaren partida areagotzea (2017an 1,5 M €koa da). |
| 138 | Ikerbasquek 120 ikertzaile kontratatuko ditu 2018-2021 urte artean. |
| 139 | Start up laguntzak, Ikerbasque ikerketarako. Zenbatekoa: 325.000 euro. |
| | **3. Ekimena. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren garapena bultzatu unibertsitate-eremuan eta oinarrizko eta bikaintasuneko ikerkuntza-zentroetan, urtero handituz % 5 politika zientifikoari eta oinarrizko unibertsitate-ikerkuntzari zuzendutako baliabideak.** |
| 140 | 2016ko Euskadi Ikerketa Saria 2017ko ekainaren 13an entregatu zen. |
| 141 | "Achucarro Basque Center for Neuroscience " zentroa UPV/EHUko Parke Zientifikoan (Leioan) inauguratu zen 2017ko ekainaren 21ean. Alzheimer edo Parkinson bezalako gaixotasun neurodegeneratiboetan, garun eta hodietako istripuetan (iktusak) edo esklerosi anizkuna bezalako gaixotasun auto-immuneetan ikerketa-lan bat egiten du zentro horrek. |
| 142 | Berrikuntza-fondotik, ikerketa-jardueretan inbertitzeko partida 4.5 M € areagotzea, honako jarduera hauek egiteko: (1) oinarrizko eta Bikaintasuneko ikerketa-zentroetan proiektu singularrak finantzatzea, nazioartean erreferentzia-zentroak diren aldetik, beroriek eratze eta finkatzeko prozesuari laguntzeko; (2) telekomunikazioen azpiegiturak eta Zientzia, Teknologia eta Berriztapenaren Euskal Sareko eragileei Informazio eta Komunikazio Teknologien Zerbitzuak hobetzea; (3) Euskal Unibertsitate Sisteman ikerketa eta berriztapena sustatzea; (4) talentua erakartzeari eta langileak bikaintasun-irizpideen arabera kontratatzeari laguntzea; (5) Bikaintasunaren eremuan harremanak euroeskualde mailan sustatzea; (6) Zientzia eta teknologia hedatzeko jarduerak sustatzea. |
| 143 | Deialdia, oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileen jarduera ez-ekonomikoa 2018-2021 aldian finantzatzeko (BERC Programa) diru-laguntzak eskatzeko. Zenbatekoa: 42.000.000 euro. |
| 144 | Deialdia, 2018ko lehenengo seihilekoan kongresuak eta bilera zientifikoak antolatzeko laguntzetarako. Zenbatekoa: 200.000 euro. |
| 145 | Diru-laguntzen deialdia, 2018ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko. Zenbatekoa: 200.000 euro. |

| | | |
|---|---|---|
| | **104. Konpromisoa. Euskal unibertsitate-sistema garatzen jarraitu, emaitzetara bideratutako kudeaketaz eta inguru global berrira egokitzeko gaitasunaz** | **Unibertsitate Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskadiko Unibertsitate IV. Plana egin. 2019-2022.** | |
| 146 | Lehendakariak 2017ko ekainaren 6an 2022rako Unibertsitate eta Enpresaren arteko Euskal Estrategia aurkeztea, plana egiteko erreferentziako agiri gisa. | |
| 147 | 2015-2018 Planaren tarteko ebaluazioa egitea. | |
| | **2. Ekimena. Euskal Unibertsitate Sistema bultzatzeko arau-eremua garatu** | |
| 148 | Unibertsitateko heziketa duala egiaztatzeko sistema aurkeztu da. Aitzindaria da Estatuan. | |
| 149 | Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzkoa. | |
| | **3. Ekimena. Gizartearekin elkarreraginean eta gizarteak dituen erronkentzat irtenbideak emango dituen Euskal Unibertsitate Sistema bultzatu.** | |
| 150 | 2018an enpresa eta unibertsitatearen arteko lehen gela jartzeko akordio bat egin da, AIC Automotive Intelligent Centerrekin. | |
| 151 | Lankidetza-hitzarmena, Euskampus Fundazioarekin: Euskampus Agregazioa sustatzeko, Euskal Unibertsitate Sistemaren jarduerak gizartearen eta ekonomiaren arloko eragileekin hedatzeko eta Euskadiren nazioarteko proiekzioa sustatuko duten ikerketa-proiektu bereziak babesteko. Zenbatekoa: 550.000 euro. | |
| | **105. Konpromisoa. Euskal Unibertsitate Sistemaren nazioartekotzearen alde egin** | **Unibertsitate Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Euskal unibertsitateetan eta bikaintasunezko ikerkuntza zentroetan diharduten langileen eta ikasleen nazioarteko mugikortasuna erraztu.** | |
| 152 | 1.560 mugikortasun diruz laguntzea 2016-2017ko ikasturtean. Haietako 932 Erasmus + programaren barruko mugikortasunak dira. 2017-2018ko ikasturtean eusten zaio joan den ikasturtearen hornikuntza ekonomikoari (1.071.200 €). | |
| 153 | Proiektu europar bat gauzatzeko prozesua Confebask-ekin hitzartzea, unibertsitatearen eta enpresaren aipamena duten titulazioetako ikasleentzat nazioartean mugitzeko programak ezartzeko. | |
| 154 | Doktoretza-aurreko pertsonal ikertzailearen egonaldi laburretarako diru-laguntzen deialdiak (Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzen programa) eta unibertsitateei, BERCei eta ZTBESko beste eragile batzuei lotutako pertsonal ikertzailearen mugikortasun-deialdiak aurrera eramatea. | |
| 155 | Deialdia, 2017-2018ko ikasturtean ikasleen nazioarte mailako mugikortasun-programak dituzten EAEko unibertsitateei, goi-mailako arte- eta kirol-irakaskuntzen ikastetxeei eta beste zenbait erakunderi diru-laguntzak emateko. Zenbatekoa: 1.071.200 euro. | |

| | |
|---|---|
| | **3. Ekimena. Nazioartean ere lankidetza areagotzea ahalbidetzen duten irakasteko ereduak eta prestakuntzaren eta ikerkuntzaren kalitatea ebaluatzeko ereduak bultzatu.** |
| 156 | Unibasq-ekin akordioa, nazioarteko osagaia duten unibertsitatearen eta enpresaren arteko aipamenak ezartzeko. |
| | **4. Ekimena. Nazioarteko lankidetza babestu Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten unibertsitateen artean, bai eta haien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Euskal Sareko gainerako eragileen artean ere.** |
| 157 | Europako Batzordeak aintzatespena egin dio Euskadiri, unibertsitate eta enpresaren arteko estrategiarengatik, Europar Batasuneko eskualde eta herrialde guztien artean; eta, halaber, adierazi du Eusko Jaurlaritzak, euskal unibertsitate-sistemako hiru unibertsitateek eta Confebask-ek sustatutako unibertsitate-eredu berria "jardunbide ona " dela Hezkuntzaren eta Prestakuntzaren Monitorean, Europar Batasunaren hezkuntzaren bilakaera jasotzen duen urteko argitalpenean. |
| 158 | BERC bakoitzaren plan estrategikoan nazioartekotze-plana eta euskal unibertsitate-sistemarekiko lankidetza sartzea. |
| 159 | Ikerketa-taldeen atala web science.eus web-atarian egitea. |
| | **106. Konpromisoa Beken politika indartzea ikertzaileen karreran** — **Unibertsitate Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Unibertsitate-prestakuntzan eta ikerkuntza-karreran beka- eta laguntza-programen alde egiten jarraitu.** |
| 160 | Beka orokorra, garraio beka eta bikaintasun beka. 26.000.000 euro. |
| 161 | IKASIKER lankidetza-bekak: 2017-2018ko ikasturteko deialdia. Zenbatekoa: 320.000 euro. |
| 162 | Ikerketa-bekak: lau urtetan doktoretza-aurreko laguntzak eta hiru urtetan doktoretza-ondoko laguntzak finantzatzeko behar den aurrekontu-ahalegina egiten jarraitzen da; urtero behar direnak berritzen dira eta 100 bat doktoretza-aurreko beka eta 25 bat doktoretza-ondoko beka deitzen dira deialdi bakoitzean. |
| 163 | 2017-2018 ikasturterako deialdia, ikertzaileak doktoretza-aurreko kontratuen bidez prestatzeko laguntzak eskatzeko. Zenbatekoa: 8,76 milioi euro. |
| 164 | Deialdia, doktoretza-ondoko kontratuen bidez, ikertzaileen hobekuntzarako laguntzak 2017-2018 ikasturtean emateko. Zenbatekoa: 2,80 milioi euro. |
| 165 | 2017ko deialdia, Ikertzaileak prestatzeko Doktoretza-aurreko Programa aplikatzen den zentroez bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako. Zenbatekoa: 175.000 euro. |
| 166 | Ikertzaile doktoreentzako mugikortasun-programarako 2017ko deialdia. Zenbatekoa: 120.000 euro. |
| 167 | 261/2017 DEKRETUA, abenduaren 5ekoa, jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz Ikerkuntzako Euskadi Saria arautu eta sari horren Gizarte Zientzien eta Humanitateen modalitateko 2017ko deialdia egiten duena. Zenbatekoa: 42.000 euro. |

| | 107. Konpromisoa. Unibertsitate-enpresako programak sustatu. | Unibertsitate Sailburuordetza |
|---|---|---|
| | **1. Ekimena. Prestakuntza- eta jakintza-klusterrak sortzea bultzatu, Zientzia, Teknologia eta Ikerkuntzako 2020ko Euskal Planarekin bat etorrita.** | |
| 168 | Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako klusterra eratu da. Parte-hartzaileak: Eusko Jaurlaritza, EAEko Ingeniaritza, Zientzia eta Teknologiako Eskola eta Fakultateak, CONFEBASK Euskadiko Enpresarien Konfederakuntza eta Industria 4.0ko Gidaritza Taldea (azken hau Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza planean integratuta dago). | |
| | **2. Ekimena Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen eta Euskadiko administrazio publikoen, enpresen eta bestelako eragile ekonomiko eta sozialen arteko harremanak bultzatu, prestakuntzan eta ezagupenaren transferentzian** | |
| 169 | Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko lantalde iraunkorra sortzea, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanari buruzkoa. | |
| 170 | Euskadiko Unibertsitate Kontseiluan CONFEBASK sartzea. | |
| 171 | Unibertsitatearen eta enpresaren arteko Euskal Estrategia 2022 | |
| 172 | 2017ko diru-laguntza UNEDi ematea. Zenbatekoa: 400.000 euro. | |
| | **3. Ekimena. Ikasle ohien kolektiboa lan-merkatuan sartzea bultzatu.** | |
| 173 | 2017ko ekainaren 28an aurkeztu zen 2017-2020ko Enplegurako Plan Estrategikoaren arabera, aurrera eramango diren jarduerak, ikasketak bukatu dituzten unibertsitate-ikasleak laneratze aldera. | |
| 174 | BERCetan sortutako I+G+b dela-eta, ekintzailetza sustatzeko jarduera bat ekintzailetza-planean sartzea. | |

| OSASUNA | | Konpromisoak: 64-89 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **64. Konpromisoa. Osasun-sistemaren estaldura unibertsala eta irisgarritasuna bermatu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Herritarrak osasun-sistemara gerturatzea eta iristea errazten duten zerbitzu telematikoak bultzatu eta aurrez aurrekoak ez diren harreman-bideak finkatu.** | |
| 1 | Osasun Sailaren 2017-2020 Ildo Estrategikoen dokumentua egin da. Honako konpromiso hauek jaso dira dokumentuan: pertsonak sistemaren ardatz nagusi dira, osasun-sistema unibertsal eta kalitatezkoaren sendotzea, profesionalak aintza hartzea, enplegu egonkorrarekiko konpromisoa, hizkuntzaren normalizazioa eta osasunaren alorrean ikerketa eta berrikuntzaren aldeko apustua. | |
| 2 | Pertsonek osasun-sistemarako irisgarritasuna areagotzeko, Osarean osasun-sistemari aplikatutako *e-health* tresnak bultzatzen ari dira. Hala, 2017an, familia-mediku, pediatra, erizain eta emaginentzako hitzordu guztien % 11,50 Osakidetzaren webgunearen bitartez egin dira; % 9,7 gehiago izan dira, 2016ko ekitaldian izandakoen aldean. | |
| 3 | Osakidetzaren osasun-karpetaren funtzionalitateak handitu dira. Horren arabera, gurasoek 16 urtetik beherako seme-alaben osasun-informazioa eskuratzeko aukera dute, eta gauza bera ardurapean ditugun pertsonei edota tutoretzapeko pertsonei dagokienez. Jaioberrien osasun-karpetan sartzeko programa abian jarri da. | |
| 4 | Osakidetzaren Atarian aplikazio berriak diseinatu dira: esaterako, *Mi tratamiento/ Nire tratamendua* izenekoa. Medikazioari buruzko jarraibideei behar bezala jarraitzeko laguntza-tresna bat da. Beste aplikazio bat ospitaletik kanpoko bihotz-geldialdi bati arreta emateko aplikazioa da. | |
| 5 | Aurrez aurrekoak ez diren harremanak sendotzeari dagokionez, Osakidetzaren Kontseilu Sanitarioak % 3 dei gehiago erantzun du 2017an, 2016ko datuekin erkatuta. Dei horien % 80 Kontseiluak berak ebatzi ditu. | |
| | **2. Ekimena. Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen etxez etxeko arretaren zerbitzu telematikoak sustatzen jarraitu; Osakidetzako erakundeen zerbitzu-eskaintzan sartuko dira.** | |
| 6 | Paziente Kronikoen Telemonitorizazioko Programak bultzatu dira seihilekoan. Gaur egun, honako hauek daude jardunean: TelEPOC, Tele Bihotz-gutxiegitasuna, Tele Pluripatologikoak, Taupada-markagailuen jarraipena eta desfibriladoreak. Guztira, 2.991 paziente daude etxean telemonitorizaturik. | |
| 7 | BetiON telelaguntza-zerbitzuak proiektu pilotua egin du, helbideak digitalizatzeko. (2017-10-04a) | |

| | | |
|---|---|---|
| | **4. Ekimena Herritarren parte-hartzeari leku handiagoa eman osasun-zerbitzuen antolaketan eta erabakiguneetan, eta pazienteen elkarteekin lankidetza izatea sustatu, gaixotasuna hobeto ezagutzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko tresnak garatzeko xedez** | |
| 8 | Osasun Saila bildu da bilera eskatu duten elkarte guztiekin. Besteak beste, honako hauek daude horien artean: Elhers Danlos Giltzaduraren Hiperlaxotasun Sindromea duten pertsonen elkartea, ASPANOVAS, Euskal Gorrak, FEATECE, Euskal Herriko Fibrosi Kistikoa Elkartea, Euskadiko Polio Elkartea, Jehovaren lekukoak, ADELA, etab. | |
| 9 | Eusko Jaurlaritzak, Luzón Fundazioak eta Adela Euskal Herria elkarteak hitzarmena sinatu dute, alboko esklerosi amiotrofikoa ikertzen laguntzeko lankidetza-esparru egonkorra bultzatze aldera. EAEn 150 pertsona inguruk dute gaixotasun hori, 2017ko abenduaren 27ko datuen arabera. | |
| | **65. Konpromisoa. Itxarote-zerrendak ezarritako ratioen azpitik mantendu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Abian jarritako neurrietan sakondu, arreta espezializatuko kontsultetara eta proba osagarrietara iristeko itxaron beharreko denbora laburtuta.** | |
| 10 | Osakidetzak itxaron zerrendak hobetzeko ekin-plana diseinatu du. Bestalde, EAEko itxaron zerrendak txikienak dira, Estatu osokoekin erkatuta, nahiz eta bertako laguntza-eskaera gero eta handiagoa izan. | |
| | **66. Konpromisoa. Osasunaren zainketan pertsonen erantzukidetasuna sustatu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. "Osasun Eskola" ekimena indartu, haurtzarotik bizitza-estilo osasuntsuagoak sustatzeko, baita osasun-zerbitzuen erabilera egokia ere.** | |
| 11 | Elkarte eta kooperatibei zuzendutako laguntzetarako deialdia egin da, 2017-2018 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak gara ditzaten. Zenbatekoa 94.000 eurokoa da (2017-06-06an). | |
| 12 | Osasun-Eskolak biltzen ditu herritarren ahalduntzea helburu duten ekimenak. Hauxe da helburua: herritar guztiak, orokorrean, zein gaixotasun kronikoa duten pertsonak eta zaintzaileak ahalduntzea. Hona hemen ekimen batzuk: ijitoen osasuna zaintzea; Informazioa agintzea eta osasun-aholkuak ematea eta min kronikoa eta akutua kudeatzea. 2017an, 107 tailer egin dira. | |
| 13 | Monitoreak prestatzeko lehenengo tailerra antolatu da, autozaintzarako programa gara dezaten. Helburua minbizia sendatu duten pertsonei laguntzea da. (2017-11-22a) | |
| | **2. Ekimena. Herritarrak gaixotasuna ezagutzen, prebenitzen eta kudeatzen inplikazio handiagoa edukitzea sustatu.** | |
| 14 | "Nire tratamendua" aplikazio berria aurkeztu da. Hauxe da helburua: pazienteei beren osasun-prozesuan esku hartzeko aukera ematea eta tratamendu medikoa kudeatzen ere laguntzea. (2017-03-20) | |
| 15 | Irabazi-asmorik ez duten eta gizarte-ekintzak egiten dituzten elkarteei 300.000 euroko diru-laguntza eman zaie. Gaixorik dauden pertsonek eta haien senideek osatzen dituzte elkarteak, eta haien jarduerak kolektibo bien bizitza-kalitatea hobetzea da. (2017-06-13a) | |

| | |
|---|---|
| 16 | Osakidetzak diabetesak jota dauden 18 urtetik beherako herritarrak monitarizatzeko sistema berri bat ezarri du. Injekzio gutxiago jarri behar dira, eta bizitzaren kalitatea hobetzen da. (2017-11-11) |
| 17 | Biocruces-ek parte hartu du iktusaren, parkinsonaren eta bihotzeko gaixotasunen urrutiko zainketa hobetuko duen entrenatzaile birtual baten sorreran. (2017-11-10) |
| | **3. Ekimena. Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteei "Paziente Bizia" programaren bidez lagundu, haien osasun-arazoen kontrol handiagoa izan dezaten. "Paziente Bizia" programa.** |
| 18 | Osasun Sailak eta Euskadiko Farmazialarien Elkargoek hitzarmen bat sinatu dute Paziente Kroniko eta Polimedikatuen Jarraipen Farmakoterapeutiko Osoa Egiteko Programa Pilotua abian jartzeko (2017-05-17a) |
| 19 | 2017ko urtarriletik, programa hori beste kolektibo batzuei aplikatzen hasi da: paziente onkologikoei edo bihotz-gutxiegitasuna dutenei. |
| | **4. Ekimena. C hepatitisa duten paziente guztiei kasu egin, gaixotasuna sendatzeko tratamenduak emateko; eta gaixotasun hori goiz detektatzeko eta ez zabaltzeko plan bat ezarri.** |
| 20 | EAEn guztira 4.781 pertsonak daukate C hepatitisaren birusak sortzen duen hepatopatia kronikoa. Osakidetzak birusen kontrako medikamentu berriak erabili ditu, pertsona horiek artatzeko (2017-12-31). |
| | **67. Konpromisoa. Ekitatea babestea osasun-arretan, arreta berezia jarriz genero-ikuspegian eta giza talde ahulenetan.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Osasun-zerbitzuen ekitatea bultzatu, eta herritarren osasunari arreta egokia ematen zaiola bermatu, prestazioak eta horien iraupena homogeneizatuz.** |
| 21 | Azaroaren 21eko 252/2017 Dekretuaren bidez, Estatuko Osasun Sistemako osasun-prestazioen erregimenari buruzko Dekretua aldatu egin da Euskal Autonomia Erkidegoan. Ondorioz, osasun-laguntza jasotzeko eskubidea aitortzeko, aurrerantzean nahikoa izango da EAEko edozein udalerritan hiru hilabetez erroldatua egon izana. |
| 22 | Euskal Autonomia Erkidegoak eta Errioxako Autonomia Erkidegoak laguntza sanitarioaren arloko lankidetza-hitzarmenaren esparruan, 2017an honako hauek adostu eta gauzatu dira: Errioxan Osasun Aholkua ezartzeko, Osakidetzak hainbat protokolo lagatzea; elkarrekin erabil daitezken informazio-sistemak garatzea; bi erkidegoen arteko lankidetza organo-emateen eta transplanteen arloan; eta Errioxako Osasun Zerbitzuak Arabako Errioxako biztanleei proba eta ebakuntzak modu azkar eta efizientean egiteko aukera ematea. |
| | **2. Ekimena. Osasun maila baxuagoak dituzten pertsonei bideratutako jarduketa espezifikoak garatu, desberdintasunak saihesteko. Hala, arreta berezia emango zaie adineko pertsonei, desgaitasunen bat duten pertsonei, immigranteei, gaixotasun mentalak dituzten pertsonei eta askatasunik ez duten pertsonei.** |

| | |
|---|---|
| 23 | 2017ko otsailaren 21eko Aginduaren bitartez, gaixotasun- eta beharrizan- egoeran dauden pertsonek errezeta bidez hartutako medikamentuen ordainketa bidez aurreratutakoa ordainduko da. Horretarako, 2017an 6 milioi euroko partida bideratuko da (handi daitekeena) gizarte-egoera ahuleko pertsonek beren tratamendu medikoak mantendu ahal izateko. Halaber, 2017ko martxoaren 3an, 2016ko bigarren seihilekoan medikamentuan ordaintzeko aurreratutakoa ordaindu zen, hau da, 3.070.416 euro. |
| 24 | 247/2017 DEKRETUA, azaroaren 14koa, zeinaren bidez aldatzen baita Euskadiko osasun sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen dekretua (2017-11-17a) |
| | **3. Ekimena. Osasunaren Tokiko Sareak finkatu eta zabaldu, Lehen Mailako Arretako zerbitzuen, Osasun Publikoko zerbitzuen, udalen eta tokiko sektore eta elkarteen artean lankidetzan aritzeko egitura gisa.** |
| 25 | Red Local de Salud – Osasunsarea Portugalete jarri da abian. Horren helburua hauxe da: osasuna sustatzeko esparru komuna eraikitzea, politika eta jardueren artean sinergiak sortu eta udalerriko biztanleen parte-hartzea eta ahalduntzea hobetzea. (2017-05-19a) |
| | **4. Ekimena. C hepatitisa duten paziente guztiei laguntza eman, gaixotasuna sendatzeko tratamenduak erabiliz; eta gaixotasun hori goiz detektatzeko eta ez zabaltzeko plan bat ezarri.** |
| 26 | C Hepatitis Kronikoari lotutako Jardun Plan Terapeutiko berria onartu da. Hauxe da helburua: HCC tratamendua VHC bidez egitea fibrosi > 2 graduan duten pazienteengan, baita fibrosi < 2 duten pazienteengan eta egoera kliniko zehatzak dituztenengan ere. (2017-05-02a) |
| | **5. Ekimena. Genero-ikuspegia sustatu osasun-arloko jarduketa guztietan, desberdintasunik egon ez dadin.** |
| 27 | Osasun Sailak bultzatutako Zaindu –Genero Indarkeriaren Kontrako Osasun Arloko Profesionalak– programan ezarritako jarduketa-protokoloen bidez, Osakidetzak, guztira, 853 genero-indarkeria kasu detektatu ditu, 2017an. |
| | **68. Konpromisoa. Pazienteari informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatezkoa eman.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Informazio eta arreta pertsonalizatu osoa eta kalitatezkoa eman pazienteari, osasun-sistemaren baliabideak eta funtzionamendua hobeto ezagut ditzan, eta, horrela, osasun-arreta pertsonal eta indibidualizatua bultza dadin.** |
| 28 | Osakidetzaren osasun-karpetaren funtzionalitateak handitu dira; horren arabera, gurasoek 16 urtetik beherako seme-alaben osasun-informazio eskuratzeko aukera dute, eta gauza bera ardurapean ditugun pertsonei edota tutoretzapeko pertsonei dagokienez. |
| 29 | Web-aplikazioak Smartphone bezalako sistemetarako garatu dira. Haietako bat Osakidetzaren Ataria da. Horren harira, 2017ko lehen seihilekoan ere aplikazio berriak garatu dira: esaterako, “Mi tratamiento/ Nire tratamendua”. |
| | **2. Ekimena. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartu, herritarrek harreman arinagoa izan dezaten osasun-sistemarekin egiten dituzten kudeaketetan, ahalik eta segurtasun eta konfidentzialtasun handiena bermatuz.** |

| | |
|---|---|
| 30 | Historia Kliniko Digitalaren (Osabide) bidezko bertaratu gabeko interkontsultek gora egin dute, eta bertaratu gabeko kontsultak handitu dira ondorioz. Lehen mailako arretako sendagile baten eta ospitaleko sendagile baten arteko kontsultak dira horiek, paziente jakin baten osasun-arazoa aztertzeko hura ospitalera joan beharrik gabe. |
| | **3. Ekimena. Osasun Karpetaren bidez, osasun-sistemetara sarbide pertsonala izatea sustatu, segurtasun eta konfidentzialtasun osoa bermatuta.** |
| 31 | 2017ko lehen seihilekotik, Osakidetzak aukera ematen die ospitaletan jaioberrien gurasoei euren seme-alaben historia klinikora *online* sartzeko, osasun-karpetaren bidez. (2017-05-24a) |
| 32 | Telefono mugikorretarako aplikazioaren bertsio berria aurkeztu da, eta zerbitzu berriak ematen ditu, hala nola Aurretiko Zita, Osasun Karpeta, Aholku Sanitarioa, Osasun Eskola edo inkestak. Gainera, 2017ko apiriletik aurrera, “Nire tratamendua” aplikazioa ere eskuragarri dago Euskal Autonomia Erkidego osoan. (2017-03-20) |
| | **4. Ekimena. Herritar guztiei osasun-arreta bere lehentasunezko hizkuntzan, euskaraz ala gaztelaniaz, emango zaiela bermatu.** |
| 33 | Osakidetzak “Lagundu egiguzu hobetzen. Aukeratu zure hizkuntza!” kanpaina abiarazi du. Horren helburua da Osakidetzako erabiltzaileei jakinaraztea osasun-laguntza euskaraz ala gaztelaniaz jasotzeko aukera dutela. 2017ko abenduan, 190.000 pertsona inguruk euskara aukeratu zuten Osakidetzarekiko harremanetarako lehentasun-hizkuntza izan dadin. |
| 34 | Osasun-karpetan ere erabiltzaileek lehentasun-hizkuntza aukera dezakete (euskara ala gaztelania). |
| | **5. Ekimena. Osasun-sistemaren prestazioetan izandako atzerapenei buruzko aldizkako informazioa eman, eta prozedura kirurgikoei buruzko informazioa eskuratzeko gardentasuna sustatu, osasun-karpetaren bidez** |
| 35 | Osasun-karpetaren bidez, kirurgia-prozesu gehienen Kirurgiako Itxarote Zerrenda kontsulta daiteke. Lehen seihilekoan gora egin du kontsulta daitekeen kirurgia-prozesuen kopuruak, Osakidetzak egiten dituenaren % 60 izan arte. |
| 36 | Osakidetzak sei hilez behin aurkezten du jardueraren balantzea eta itxaron zerrenda. Urtarrilean, 2016ko bigarren seihilekoaren balantzea aurkeztu zen; eta uztailean, 2017ko lehen seihilekoari buruzkoa. |
| | **69. Konpromisoa. Osasuna sustatu ingurune komunitarioan.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Elikadura osasuntsua, ohiko ariketa fisikoa eta bizitza-estilo osasuntsuak sustatu. Elikadurari dagokionez, Elikadura Osasuntsuaren Estrategia egingo da.** |
| 37 | 400.000 euro inguru bideratu dira 2017. urtean, hirietan eta herrietan ariketa fisikoa sustatzeko eta eskoletan ikasleen osasuna eta autonomia hobetzeko, mugikortasun aktiboa sustatze aldera. (2017-05-23) 2017ko azaroaren 14ko Ebazpena, 2017-2018 ikasturtean EAEko ikasleen mugikortasun aktiboa sustatzeko ekintzak garatzeko laguntzak onartzen dituena. |
| 38 | Kerik gabeko Gelak deituriko programa berritu eta eguneratu da. Horren arabera, 2017-2018 ikasturtetik, Kerik gabeko Gazteak deituko da (KGG), baina helburu bera izango du: tabakoa ez kontsumitzea edo erretzen hasteko adina ahalik eta gehien atzeratzea. |

| | |
|---|---|
| 39 | EAEko toki-erakundeek, tokiko erakunde autonomoek eta tokiko merkataritza-sozietateek diru-laguntzak eskatzeko deialdia zabaldu da, helburu hau ezarrita: jarduera fisikoa sustatzeko proiektuak garatzea, ingurune egokiak sortuz eta tokian-tokian ekintza komunitarioa sendotzea (292.000.-€) (2017-05-23a). |
| 40 | Proiektu berritzailea abian jarri da, osasuna elikagaien bidez sendotzeko ekimen zehatzak proposatze aldera. EAEn elikadura osasungarria bultzatzeko ekimenak (2017-10-30) |
| | **2. Ekimena. Haurren Obesitatea Prebenitzeko Plana egin. Informazioan, osasun-heziketan, jarduera fisikoan eta elikadura osasuntsuan oinarritutako neurriak bilduko ditu, gizartea kontzientziatzeko eta obesitatea prebenitzeko jardunbideak ezartzeko.** |
| 41 | Haurren obesitatearen oinarri molekularrak deszifratzeko ikerketa-proiektua (2017-11-13a). |
| | **3. Ekimena. Gazteen artean alkoholaren kontsumoa prebenitzeko ekintza instituzionala indartu, ingurune komunitarioan, hezkuntzan, osasunean, arau-esparruan eta gizartearen sentsibilizazioan neurriak hartuta. “Adingabeak eta alkohola” programa.** |
| 42 | Programa bat garatu da, adin txikikoen alkohol kontsumoa prebenitzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko osasun-sare publikotik modu integralean jorratzeko. Hori jarrera osasungarrien sustapenaren esparruan egin da, eta osasun-arlo ezberdinetatik jarduerak definitu dira. 2016-2017 ikasturtean, 36 ikastetxetako 1.186 ikaslek parte hartu dute Iceberg programan, alkoholaren kontsumoari aurrea hartzeko, hezkuntza-eremuan. “Adingabeak eta alkohola” programa, Osakidetza sarean. (2016-12-15a) |
| | **4. Ekimena. Txertaketa-egutegiak etengabe berrikusi eta eguneratu, irizpide zientifikoak eta datu epidemiologikoak kontuan hartuta.** |
| 43 | Osakidetzak berriz banatuko die EAEko haurrei kukutxeztularen aurkako txertoa. Gainera, 2015eko irailaz geroztik, eta Europan banatzeko arazoak direla eta, atzeraeraginez aplikatuko zaie sei urte zituztenean jaso ez zuten haurrei. (2017-03-08) |
| 44 | Agindua, 2017ko urriaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko txertaketa-egutegi ofiziala eta herritarren txertaketa onartzen dituena. |
| | **70. Konpromisoa. Osasun publikoa sustatu eta zaintza-sistema integrala abian jarri.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Zaintza-sistema integral bat abian jarri, hobeto erantzun ahal izateko gaixotasun-agerraldien, gaixotasun berrien eta osasun publikoko alerten aurrean.** |
| 45 | Euskadin gripeari aurre egiteko helburuz, 2017ko urtarrilean eta urrian Kontingentzia Espezifikoko Plana jarri zen abian, egoeraren jarraipen zehatza egiteko eta laguntza-eskaerari behar bezala erantzuteko behar ziren baliabideak aplikatzeko. |
| 46 | Jardun-protokoloa abian jarri zen, Deustuko Unibertsitatean tuberkulosi kasu bat antzeman ostean. Horrez gain, histaminak eragindako elikadura-intoxikazio bati aurre egiteko neurriak hartu ziren. (2017ko maiatza) |

| | | |
|---|---|---|
| | **71. Konpromisoa. Koordinazioa bultzatu, osasuna hobetzeko.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. ekimena. 2013-2020 Osasun Planetik eratorritako ekintzak ezarri, eta tokiko osasun-sareei bultzada eman.** | |
| 47 | 2016-10-16tik aurrera abian jarriko da EAEko ama-esnearen bankua. | |
| | **2. ekimena. Osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzen jarraitu, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren lidergotik abiatuta eta 2017-2020 Ildo Estrategiko Soziosanitarioen testuinguruan** | |
| 48 | Eguneratu egin da Osasun Sailaren eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren **Atari soziosanitarioa** editatzeko sistema. Herritarrei eta profesionalei zuzendutako komunikazio soziosanitarioko behatokia eta erreferentea da atari hori. (2017ko apirila) | |
| 49 | Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2017-2020 Arreta Soziosanitarioaren gaineko Lehentasun Estrategikoak onartu ditu. (2017-11-27a) | |
| | **5. ekimena. Gaixoen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak egiteko elkarteen proiektuei lagundu** | |
| 50 | Gobernu-kontseiluak laguntzak emateko deialdi bat onartu da: EAEn jarduten duten eta irabazi asmorik ez duten erakundeek jaso ahal izango dituzte, hain zuzen, gaixoek eta haien familiek osatutako kolektiboen entitateek. 300.000.- € (2017-06-13a) | |
| | **72. Konpromisoa. Arreta berezia eman mendekotasun-arazoak dituzten pertsonei.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Adikzioei buruzko Euskadiko VII. plana egin; adikzioak prebenitzeko programak eta ekintzak bilduko ditu, bereziki familia-, hezkuntza-, erkidego- eta lan-eremuetara bideratutakoak.** | |
| 51 | Gobernu Kontseiluak Adikzioei buruzko Euskadiko VII. Plana onartu du (2017-07-04an). | |
| 52 | Diru-laguntzen deialdia 2017an egin da, talde teknikoak sortu eta mantentzeko, adikzioen prebentzio komunitariorako programak garatzeko, arriskuak eta kalteak prebenitu eta gutxitzeko programak egiteko, bai eta 2017ko ekitaldian jarduera-eremu horietan ohitura osasungarriak sustatzeko ere. (2.618.400 euro) | |
| | **2. Ekimena. Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legea garatzeko dekretu bat onartu. Besteak beste, honako gai hauek jorratuko ditu: koordinaziorako eta parte hartzeko bitartekoen antolaketa eta funtzionamendua; tabakoaren, zigarro elektronikoaren eta alkoholaren eskaintza murrizteko neurriak, eta Mendekotasunen Behatokiaren arauketa.** | |
| 53 | 1/2016 Legean aurreikusten diren Adikzioen Euskal Batzordea, Adikzioen Erakundearteko Koordinazio Batzordea, Laguntzeko eta Asistentzia emateko organoa eta Adikzioen Behatokia arautzeko dekretu baten zirriborroa egin, eta izapidetzen ari da. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **73. Konpromisoa. HIESaren eta beste gaixotasun infekzioso batzuen prebentzioa.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Sexu-transmisiozko infekzioen prebentzioari buruz kontzientziatu gizartea, talde zaurgarrienei arreta berezia emanda** | |
| 54 | 2017ko bigarren hiruhilekotik aurrera, berrantolatu egin da Sexu-transmisiozko Infekzioen Gasteizko Kontsulta (Arabako ESI), horrelako gaixotasunengatik laguntza eskatzen duten paziente guztien integrazio asistentziala hobetzeko asmoz. | |
| 55 | 2016-2017 ikasturtean, 84 ikastetxetako 6.100 ikaslek parte hartu dute gazteei espezifikoki zuzendutako programa batean. Programak sexu-harremanei lotutako balizko arrisku guztiei aurrea hartzeko helburua ezarrita dauka. | |
| | **2. Ekimena. GIBa ez kutsatzeko prebentzio-programak sustatu arrisku-taldeetan.** | |
| 56 | EAEn GIB, C hepatitisa eta sexu-transmisiozko infekzioak prebenitzeko eta kontrolatzeko planak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei laguntzak emateko deialdia egiten da. Lehentasuna kolektibo zaurgarrienei zuzendutako programei eman zaie. (300.000.- €) (2017-04-11) | |
| 57 | Euskal Autonomia Erkidegoak —Arabako Unibertsitate Ospitalearen Gaixotasun Infekziosoen Zerbitzuaren bitartez—, Kataluniarekin batera, parte hartzen du esposizioaren aurretiko profilaxia (PrEP) nazioko osasun-sisteman ezartzeko bideragarritasunaren ebaluazioan. | |
| | **3. ekimena. Neurri berriak hartu gaixotasun horiek eta, batik bat, C hepatitisa goiz detektatzeko** | |
| 58 | 2017an, beste bost farmazia hasi ziren GIBaren test azkarrak egiteko programa gauzatzen. Horrela, 50 farmazia ari dira elkarlanean. | |
| | **74. Konpromisoa. Osasun-esparruko arreta integratua indartu, Osasun Erakunde Integratuen eredua finkatuz.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. ekimena. Diziplina anitzeko ekipo profesionalak sortu, pazienteei arreta integrala emateko** | |
| 59 | 2017ko lehenengo seihilekoan, talde soziosanitarioak sendotzen jardun dugu. Izan ere, funtsezko elementuak dira, pazienteen kudeaketa integratu egokirako, kontuan hartuta osasun- eta gizarte-sistemetako arretarako eragileek hainbat titulartasun dituztela. | |
| 60 | Lantaldeak osatu dira, zenbait ibilbide berriz diseinatzeko eta hedatzeko, hala nola patologia anitz duten pazienteena, bihotz-gutxiegitasunarena, eta biriketako buxadura kronikoaren gaixotasunari (BBKG) heltzekoa ere | |
| | **2. Ekimena. Ebaluazioaren kultura sustatu, Osasun Erakunde Integratuak kudeaketaren eta emaitza asistentzialen etengabeko hobekuntzara bideratuz.** | |

| | |
|---|---|
| 61 | Debagoienako ESIak lortutako Joint Commission-aren nazioarteko egiaztapena lortu da, asistentzia-kalitateagatik, pazientearen segurtasunagatik eta prozesu klinikoak hobetzeagatik, bai eta integrazio asistentzialagatik Tolosaldeako ESIak lortutakoa ere. |
| 62 | 2017an eman diren sarien artean, nabarmentzekoa da Bamberg Fundazioak Osakidetzari eman diona, bikaintasuna lortzeko egindako ahaleginarengatik. Horrez gain, Bilbo Basurtu Erakunde Sanitario Integratuari "QH (Quality Healthcare) + 2 izar" egiaztagiria eman dio Osasuna Garatzeko eta Integratzeko Institutuak (IDIS). TOP 20 estatuko osasun sarietan honako hauek saria jaso dute: Donostia Unibertsitate Ospitaleak, Zumarragako Ospitaleak eta Debagoiena erakunde sanitario integratuak. Eskualdeetako Jardunbideko Oneko Sarien II. edizioan Osakidetza saritu dute; zehazki, Arabako ESI eta Osakidetzako CareWell proiektua saritu dituzte. Bestalde, Bilbo Basurtu Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) erakunde bikainaren egiaztagiria lortu du presioko ultzeren eta zauri kronikoen kudeaketan. |
| | **4. Ekimena. Paziente kronikoentzako ospitaleratze-unitateak sortzea bultzatu.** |
| 63 | Arabako Unibertsitate Ospitaleko Santiago eraikineko Zainketa Aringarrien Unitateak eta Gaixotasun Kronikoak dituzten Pertsonentzako Arreta Unitateak 2.000 paziente artatuko dituzte, guztira, kalkuluen arabera. |
| | **75. Konpromisoa. Informazio Klinikoko Sistema Bateratua sendotu.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Informazio Klinikoko Sistema Bateratua zabaldu Osakidetzaren baliabide guztietan.** |
| 64 | Osabide Global Primaria (OGP) informazio-sistemak erakunde sanitario integratu guztiei ematen die zerbitzua. 2017ko ekainetik aurrera, lehen mailako osasun arloko profesional guztiek (medikuek eta erizainek) OGP erabili ahal dute, eta gaur egun Osabide APrekin ere bateragarria da. |
| 65 | Osabide Global sisteman funtzionalitate berriak ezarri dira 2017an: esaterako, Adierazi Beharreko Gaixotasunen (AGB) modulua; Antikoagulatzaileen programa korporatibo bateratua (TAONET) ezartzen ari da Bidasoako Ospitalean, eta, geroago, Donostialdeako ESIn ere hasiko da ezartzen. |
| | **2. Ekimena. Informazio Klinikoko Sistemaren erabilera bultzatu egoitza-baliabide guztietan, gizarte- zein osasun-sektorekoetan.** |
| 66 | 2017ko martxotik aurrera, adineko pertsonentzako egoitza eta EAEko zentro soziosanitario guztiak Errezeta Elektronikoko Sisteman daude integratuta. Era berean, tratamendu farmakologikoak eta Historia Klinikoaren beste alderdi batzuk ezartzen ari dira adineko pertsonentzako egoitza eta EAEko zentro soziosanitario guztietan. |
| | **76. Konpromisoa. Koordinazio soziosanitarioa sustatu.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Erakunde Sanitario Integratuetako Batzorde Soziosanitarioak sustatu.** |
| 67 | 2017ko maiatzetik, ESI guztietan batzorde soziosanitarioak eratuta daude. Batzorde horietan jarduten dute Hezkuntza Saileko eragile ordezkariek, hain zuzen ere, gizarte-osasun- eta hezkuntza-arloarekin lerrokatuta. Kontzeptu hori arreta goiztiarraren eremutik hartu eta egokitu da. |

| | | |
|---|---|---|
| | **2. Ekimena. Koordinazio soziosanitarioa bultzatu, pertsonak modu integralean ebaluatuko dituzten lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeak ezarriz eta hedatuz.** | |
| | 2017an, ESI bakoitzean ezarri da erreferente soziosanitarioek osatutako egitura bat. | |
| | **3. Ekimena. Historia Soziosanitarioa zabaldu, osasun- eta gizarte-eragileen artean, guztiek erabili eta partekatzeko moduan.** | |
| 68 | InterRAI CA balorazio soziosanitariorako tresna oinarrizkoa da, eta tresna hori ezartzen eta hedatzen jarraitu da. 2017ko ekainean erreferentzia soziosanitarioko eragileak Osasun Mental arlora, Kontseilu Sanitariora eta egonaldi ertaineko ospitaleetara zabaldu da. | |
| | **77. Konpromisoa. Espezializazio handia eta bikaintasun klinikoa sustatu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Kasuak kontzentratzeko eta profesional adituen jakintza baliatzeko bide ematen duten erreferentziazko unitateak sendotu.** | |
| 69 | Transplanteen EAEko Batzordetik abiatuta, lantalde bat eratu da 2017ko lehenengo seihilekoan, prozedurak bateratzeko, laginen prozesatzea zentralizatzeko eta kalitatea hobetzeko eta, korneako transplanteak egiteko itxaron zerrenda bakarra izan dadin, efizientzia eta ekitatea hobetze aldera. | |
| 70 | EAEko Zilbor-hesteko Odolaren Bankuak Odol-transfusioko, Terapia Zelularreko eta Ehunen Terapiako Kalitatea Ziurtatzeko Fundazioren ziurtagiria jaso du. | |
| | **78. Konpromisoa. Morbimortalitatean eraginik handiena duten arazoentzako prozesu asistentzialak berrantolatu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. "Infartu kodearen" sareko lana sustatu, jarduketa-denborak hobetzeko eta, ondorioz, miokardioko infartu akutuaren morbimortalitatea jaisteko.** | |
| 71 | Bi urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan hirukoiztu egin dira desfibriladoreak: 2017an, 1.466 desfibriladore automatiko instalaturik zeuden. Helburu nagusia desfibriladoreak osasun-esparrutik kanpo erabiltzea da, bihotz-geldialdien % 80 esparru horretatik kanpo gertatzen baita. | |
| | **2. Ekimena. "Iktus kodea" modu homogeneoan eta orekatuan garatu EAE osoan.** | |
| 72 | Biocruces-ek parte hartu du iktusaren, parkinsonaren eta bihotzeko gaixotasunen urrutiko zainketa hobetuko duen entrenatzaile birtual baten sorreran. (2017-11-10) | |
| 73 | EiTB osatzen duten komunikabide guztiek, BIOEF Fundazioaren laguntzarekin, EiTB 2017 Maratoia antolatu dute iktusaren ikerketara eta sentsibilizaziora bideratzeko dirua biltzeko. Guztira 402.000 euro bildu dira. | |
| | **4. Ekimena. Gaixotasun neurodegeneratiboei heltzeko estrategia bat ezarri.** | |
| 74 | Eusko Jaurlaritzak, Luzón Fundazioak eta Adela Euskal Herria elkarteak hitzarmena sinatu dute, alboko esklerosi amiotrofikoa ikertzen laguntzeko lankidetza-esparru egonkorra bultzatze aldera. EAEn 150 pertsona inguruk dute gaixotasun hori, 2017ko abenduaren 27ko datuen arabera. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **79. Konpromisoa. Asistentzia onkologikoa berrantolatu. Plan Onkologiko Integrala** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Euskadiko Plan Onkologiko Integrala garatu. Euskadik onkologian dituen baliabide guztiak bildu eta antolatuko dira, eta helburu eta estrategia asistentzialak ezarriko dira. Horrez gain, Euskadiko onkologiaren bikaintasun-helmuga definituko da.** | |
| 75 | Xede diren pertsona guztiei gonbidapena bidaltzea lortu du Kolon eta Ondesteko Minbizia Goiz Detektatzeko Osakidetzako programak, bigarren bueltan, 2017ko martxoan. Hori dela eta, programak lidergoa hartu du gainerako autonomia-erkidego guztien aurretik. | |
| | **80. Konpromisoa. Zainketa aringarriak bultzatu. Zainketa Aringarrien Plana zabaldu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. EAEko Zainketa Aringarrien Planean (2020) jasotako lan-lerroak garatu, eta bertan proposatutako ekintza guztiak ezarri.** | |
| 76 | Jarduera betean dago 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera zainketa aringarrien unitate berria. Santurtziko San Juan de Dios ospitalean 15 ohe espezifiko ditu. Horrez gain, berariazko laguntza-bide bat ere ezarri da baliabide guztiak Ezkerraldeko, Enkarterriko Gurutzetako eta Barakaldo-Sestaoko ESIetan bil daitezen; horrela, laguntza-maila guztietan arreta osoa, homogeneoa eta kalitatekoa bermatzen da, bai paziente helduei bai pediatriakoei dagokienez. | |
| 77 | Arabako ESIn unitate berria sortu da, eta ospitaleko arreta zein etxez etxeko lehen mailako arreta ematen ditu. Gaixotasun aurreratu eta larria duten pertsonei ahalik eta tratamendu egokienak ematea da haren eginkizuna, halakoek sendatzerik ez dutenean (2017ko otsailean). | |
| | **81. Konpromisoa. Gaixotasun kronikoei, gaixotasun mentalei eta gaixotasun arraroei berariazko arreta eman.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Paziente kronikoentzako ospitaleratze-unitateak sortzea bultzatu, paziente horiei tratamendu globala emateko, eta egonaldi ertaineko eta egonaldi luzeko ospitaletako baliabideen antolamenduari ekin.** | |
| 78 | Europako Batzordearekin batera finantzatutako Joint Action Chrodis (JA-Chrodis) europar ekimenean parte hartu du Euskal Autonomia Erkidegoak. Ekimen horren helburuak Europar Batasuneko estatuen artean gaixotasun kronikoen gaineko jardunbide egokiak identifikatzea, baliozkotzea, trukatzea eta sakabanatzea dira. (2017-03-03a) | |
| 79 | 2017ko otsailean, Gaixotasun Kronikoen Unitatea sortu zen, Arabako Unibertsitate Ospitaleko Barne Medikuntzaren eremuan kokatuta. 2017an 1.300 paziente inguruvi zerbitzua eman die. | |

| | |
|---|---|
| | **3. Ekimena. Osasun mentaleko programa espezifikoen garapena bultzatu.** |
| 80 | 2017ko lehen seihilekoan Gautena elkartea kontratatu da, espektro autistaren nahasmenduak dituzten adingabeak errehabilitatzeko terapia psikokonduktualen zerbitzuak emateko. Aurreikusitakoaren arabera, 500 adingabek jasoko dute zerbitzu hori Gipuzkoan. Horrez gain, Palentziako San Juan de Dios ospitalearekin kontratu bat egin da, paziente oligrofrenikoei egoitza-zerbitzuak emateko. |
| | **82. Konpromisoa. Arreta farmazeutikoa** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Farmazia-bulegoak Euskadiko Osasun Sistema Publikoan eragile gisa sartzea sendotu.** |
| 81 | 2017ko maiatzaren 17an hau sinatu zen: «Lankidetza-hitzarmena EAEko gaixo kronikoei eta polimedikatutako gaixoen jarraipen farmakoterapeutikoa (JFT) egiteko programa gauzatzeko. Programa pilotua da, 2. motako diabetesa duten gaixoentzat pentsatuta. |
| | **2. Ekimena. EAEko zahar-egoitzetan eta zentro soziosanitarioetan artatutako pertsona guztiei farmazia-arreta egokia ematea bultzatu** |
| 82 | Zentro soziosanitarioetan Farmazia Arretarako Plan Funtzionala garatzen ari da 2017. urtean, baita 100 plaza baino gehiagoko adinekoen egoitzak eta zentro soziosanitario publiko eta pribatuak kudeatzeko eredu espezifiko bat ere. |
| | **3. Ekimena. Farmazia-gastua arrazionaltasunez kudeatu, preskripzio efizientea eta kalitatezkoa eginez, farmazia komunitarioaren balioa azpimarratuz, farmazia-arretaren programa garatuz** |
| 83 | Farmazia Komunitarioren Programari jarraikiz —Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzura atxikitako pertsonek sendagaia eskura dezaten eta tratamendua behar bezala bete dezaten erraztea du helburu—, Eibarko Udalak, 2017ko apirilean, bat egin du ekimen horrekin. Jada 140 udalerri dira, eta 690 farmazia egiaztatuta daude. |
| | **83. Konpromisoa. Pazienteen premietara egokitutako osasun-azpiegiturak bermatu.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Eibarreko Ospitalea eraikitzen amaitu eta zabaldu.** |
| 84 | Eibar Ospitalea 21.012 metro karratuko azalera eraikia duen proiektua da; hiru solairu ditu, sestra gainean, beheko solairua eta 2 soto. Lanak 2014ko urrian hasi ziren, eta 2018ko martxo eta apirila bitartean amaituko dira, planen arabera. |
| | **2. Ekimena. Urdulizeko Ospitale berriaren zerbitzu eta ekipamendu mediko guztiak zabaldu.** |
| 85 | Urdulizeko Ospitaleak 2017-05-08an handitu du bere zerbitzuen eskaintza. Zehazki, Larrialdietako zerbitzua, Etxez etxeko laguntza zerbitzua eta espezializazioei buruzko kanpoko kontsultak egitekoa. Abenduan zerbitzuak handitu ditu, ospitaleratzeko oheen zerbitzua ere martxan jarrita (2017-12-18an) |
| | **4. Ekimena. Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu orokorretako eraikin berria eraiki, Gasteizko Txagorritxu auzoan.** |
| 86 | 2017-03-27an Txagorritxu ospitalearen zati baten eraisketa-lanak hasi ziren, Araba Unibertsitate Ospitalea handitzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| 87 | Arabako Unibertsitate Ospitaleko Santiago eraikineko larrialdietako zerbitzuaren azpiegiturak handitu eta modernizatu dira Arabako ESIn. (380.000.- €) (2017-11-25) | |
| | **5. Ekimena. Bilboko Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Kirurgia eta Bizkorketa Bloke berria abian jarri.** | |
| 88 | Kirurgiako bloke berria inauguratu da. Bihotz Kirurgiako eta Kirurgia Baskularreko jarduera irekitzeko behar beste ekipamenduaz hornituta dago, eta bihotza suspertzeko atala ere izango du. (2017-07-05) | |
| 89 | Basurtuko Ospitaleak azken belaunaldiko 6 ebakuntza-gela ditu; era berean, zainketa intentsiboko esparru berri bat. Horiek guztiek Bilbon eta Alonsotegin bizi diren 360.000 herritarrek jasotzen duten osasun-arreta era nabarmenean hobetuko dute. (2017-07-05) | |
| | **84. Konpromisoa. Lehen mailako arreta eta hark sistema sanitarioan jokatzen duen eginkizun nagusia bultzatu.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Lehen mailako arretarako sei zentro berri zabaldu.** | |
| 90 | Kanpezuko Osasun Etxea martxan jarri da, Arabako Mendialdeko arreta sanitarioa hobetzeko. (1.000.000.- €) (2017-07-20) | |
| 91 | Amurrioko Osasun Etxea martxan jarri da, lehen mailako arreta emateko. (3.269.016.- €) | |
| 92 | Laudioko auzokideei osasun-arreta hobea emate aldera, Laudioko osasun-zentroa birmodelatu da (470.000.- €), 2017an. | |
| | **2. Ekimena. Diagnostiko-, terapia- eta segimendu-baliabide teknikoak hornitu, osasun-arazo gehienak konpontzeko gaitasun handiagoa egon dadin.** | |
| 93 | Osakidetzako BioCruces ikerketa-institutuak HR Excellence in Researh Award (Ikerketako Bikaintasunaren HR Zigilua) jaso du; izan ere, sari hori eskuratu duen Estatuko seigarren osasun-ikerketarako institutua da (29 daude). Zigiluak giza baliabideen arloko politika egokiak saritzen ditu. | |
| 94 | 2017an eta 2018an 3 hemodinamika gela berritu eta eguneratuko dira; 5 Ordenagailu bidezko Tomografia Axialerako unitate erosiko dira (haietako hiru 2017an jada instalatu ziren, Donostiako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleetan). 23 X izpi-gela ere mailaka berrituko dira. Eusko Jaurlaritzak Amancio Ortega Fundazioarekin sinatu duen lankidetza-akordioa dela eta, 5 azeleragailu lineal eta 3D mamografo bat erosiko dira. 2017an, RNM ekipo berri bat martxan jarri da, Arabako Unibertsitate Ospitalean. | |
| | **85. Konpromisoa. Osasun-sistemari eutsi, metodoak eta baliabideak optimizatuz** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Ohiko ospitaleratzearen alternatibak bultzatu, telemedikuntza sustatuz, bereziki paziente kronikoentzat.** | |
| 95 | Paziente Kronikoen Telemonitorizazioko Programak bultzatu dira, 2017an. Gaur egun, honako hauek daude jardunean: TelEPOC, Tele Bihotz-gutxiegitasuna, Tele Pluripatologikoak, Taupada-markagailuen jarraipena eta desfibriladoreak. Programen Kudeatzaile Integrala (PKI) izeneko aplikazioa ezarri da 2017ko lehen seihileko honetan bihotz-gutxiegitasuna duten pazienteen jarraipenean erabiltzeko. | |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena. Teknologia berriak ebaluatu, Osakidetzaren ekipamendu teknologikoa eguneratuta egon dadin etengabe. Horretarako, haren finantzazioa bultzatzeko hitzarmenak egingo ditugu Osteba-Ebaluazio Teknologikoko Zerbitzuarekin lankidetzan.** |
| 96 | Osakidetzak IKTak aplikatzen ditu asistentzia emateko jarraitasunean, eta jardunaren ebaluazioa gainditu du. Ebaluazio hori gainditzen duen lehen osasun-zerbitzua da Estatuan (2017-06-19). |
| | **3. Ekimena. Aurrez aurrekoak ez diren zerbitzuen zerrenda zabaldu, pazienteen eta osasun-arloko profesionalen premiak aintzat hartuta.** |
| 97 | Pertsonek osasun-sistemarako irisgarritasuna areagotzeko, Osarean osasun-sistemari aplikatutako *e-health* tresnak bultzatzen ari dira. Hala, 2017an, familia-mediku, pediatra, erizain eta emaginentzako hitzordu guztien % 11,50 Osakidetzaren webgunearen bitartez egin dira; % 9,7 gehiago izan dira, 2016ko ekitaldian izandakoen aldean. |
| 98 | 2017ko lehen seihilekoan jaioberrien osasun-karpetako datuak irakurri ahal izateko programa abian jarri da. Hala, jaioberrien alta ematean, jaioberri horien Osasun Karpeta irekitzeko gakoak eskaintzen dizkiete haien gurasoei; egiten diren proba guztien emaitzak, txertoak jartzeko egutegia eta abarrak horren barruan sartzen dira, eta edonoiz eskuratzeko aukera izango dute horrela. |
| 99 | 2017ko lehen seihilekoan aplikazio berriak diseinatu dira: esaterako, *Mi tratamiento/ Nire tratamendua*, medikazioaren gidalerroei behar bezala jarraitzeko laguntza-tresna bat da; edota Ospitaletik kanpoko bihotz-geldialdi bati arreta emateko aplikazioa. |
| | **86. Konpromisoa. Pazientearen Segurtasun Estrategia garatu.** — **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Pazientearen Segurtasun Estrategia ezarri, haren segurtasun kulturaren sustapena lehenetsiz** |
| 100 | INOIZ plana (Infekzio Nosokomialak Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana). Programa horrek barnean hartzen ditu osasun-laguntzarekin zerikusia duten infekzioak zaindu, prebenitu eta kontrolatzeko jarduera guztiak. 2017an, isolamendu-protokolo bat landu da. |
| 101 | 2013-2016 Pazientearen Segurtasun Estrategiaren ebaluazio-txostena aurkeztu da Legebiltzarrean. Nabarmentzekoak dira honako lorpen hauek: pazienteak identifikatzeko hutsegiteak murriztea, asistentziari lotutako infekzioen kopurua murriztea eta ebakuntza-gelen segurtasuna hobetzea. (2017-06-07) |
| | **2. Ekimena. Sistemek eta esku-hartzeek pazientearen segurtasunean duten eraginkortasuna baloratu, bereziki gizarteari eta pertsonen bizi kalitateari balioa eransten dietenak.** |
| 102 | Kalterik gabeko segurtasun-gertakariak jakinarazteko sistema egokitu eta hobetu da Osakidetzako ESIetan. Jarduketa horri esker, 2017ko lehen seihilekoan, jakinarazitako gertakariak hobetzeko 955 ekintza proposatu dituzte. |
| 103 | Historia kliniko elektronikoan Kirurgiaren segurtasuna egiaztatzeko zerrenda (KSEZ) egokitu da; izan ere, bakarra zen ebakuntza guztietarako, eta orain hiru KSEZ egin dira kirurgia handia, kirurgia txikia eta katarata-ebakuntza espezifikoa bereizteko. |

| | | |
|---|---|---|
| | **87. Konpromisoa. Herritarren partaidetza eta Osasun Sistema Publikoaren gardentasuna bultzatu** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **3. Ekimena. Gardentasuna areagotu aplika daitezkeen tratamenduei buruzko informazioari dagokionez, bai eta kalitateari buruzko adierazleei eta osasun-emaitzei dagokienez ere.** | |
| 104 | Osakidetzak sei hilez behin aurkezten du jardueraren balantzea eta itxaron zerrenda. Urtarrilean, 2016ko bigarren seihilekoaren balantzea aurkeztu zen; eta uztailean, 2017ko lehen seihilekoari buruzkoa. | |
| | **88. Konpromisoa. Osasun-arloko profesionalen inplikazioa.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Osasun-arloko profesionalen lidergo partekatua bultzatu eta profesional horiek zentroen eta zerbitzuen kudeaketan parte hartzeko bide eraginkorrak ezarri, erabakiak hartzeko eta sistema eraldatzeko prozesuetan gehiago inplika daitezen.** | |
| 105 | 2017ko lehenengo seihilekoan lidergo-gaitasunen garapena bultzatzeko esku-hartzeen eredua diseinatzen amaitu da. 2017ko maiatzean, esku-hartze horien proba bat egiten hasi da, eta 25 pertsonak parte hartu dute. Lidergo-gaitasunak garatzeko *online* prestakuntza-ikastaroak ere probatu dira, *serious game* metodologia oinarri hartuta. | |
| 106 | OSAGUNE plataforma diseinatu da jakintza trukatzea eta sortzea ez ezik, profesionalen arteko interakzioa ere bultzatzeko. Adierazleak ezartzeko eta emaitzak ebaluatzeko lana egin da 2017an. | |
| 107 | PARTE HARTU plataformaren egiazko ezarpena, Osakidetzako profesionalek parte har dezaten. Plataforma horretan hobetzeko eta berritzeko proposamenak jasotzen dira. 2017an, Komunikazio Plana landu da, sare osoa kontuan hartuta. | |
| | **2. Ekimena. Osasun-arloko profesionalen gaikuntza eta etengabeko prestakuntza erraztu, profesional horiei zuzendutako prestakuntza ziurtatuz, haien kualifikazioa ziurtatzeko eta garapen profesionala bultzatzeko.** | |
| 108 | Osasun arloko profesionalak prestatzeko laguntzen eta beken deialdia 2017an egin da. Zenbatekoa 108.000 eurokoa izan da (2017-06-06). | |
| 109 | Osakidetzak eta sindikatu-ordezkariek akordio bat lortu dute, aurten lan-eskaintza publikoa antolatu eta 3.335 lanpostu eskaintzeko. (2017-06-23). | |
| 110 | Prestakuntza-ibilbidea ezarri da ospitaleratze mediko-kirurgikoko 101 erizaintza-unitatetan, zerbitzu-erakunde guztietan (1.519 langile). | |
| 111 | Prestakuntzarako Jakinsarea plataforma ezartzeari ekin zitzaion 2016an, eta lan hori amaitutzat jo da 2017ko ekainaren 5ean Osakidetzako erakunde guztietan | |
| | **3. Ekimena. EAEko Osasun Sisteman euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egin. Horretarako, Euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana ezarriko da Osakidetzan, pazienteak aukeratzen duen hizkuntzan eskaintzeko osasun-prestazio guztiak.** | |

| | | |
|---|---|---|
| 112 | Gaur egun, Osakidetzako langileriaren heren batek egiaztatu du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna. | |
| | **4. Ekimena. Erizaintzako profesionalen gaitasunak eta funtzioak bultzatu, erizainen eginkizun eta autonomia profesionala sustatuz.** | |
| 113 | Prestakuntza-ibilbidea ezarri da ospitaleratze mediko-kirurgikoko 101 erizaintza-unitatetan, zerbitzu-erakunde guztietan. Ospitaleratze mediko-kirurgikoko unitateen ibilbideak barne hartzen dituen 1.519 profesionalek prestakuntza-plan pertsonalizatua dute, 2017-2018 aldiko. | |
| 114 | Lehen mailako arretako erizaintzaren ibilbidearen berrikuspena amaitu da, eta 2017ko ekainean hedatuko da erakunde guztietara. | |
| | **5.Ekimena. Erizaintzako profesionalen birbideratzea bultzatu, bereziki ospitale-loturako eta lehen mailako praktika aurreratuetako profiletan.** | |
| 115 | Salburua osasun-zentroak Araba ESIko Salburua Osasun Zentroko Bereizmen Handiko Erizaintzako Kontsulta sortu du. Lehena da, hain zuzen ere. (2017-06-08) | |
| | **7. Ekimena. Osasun-arloko langileen lan-baldintzak hobetu. Horretarako, Euskadiko osasun-sistema publikoko langileen lana eta familia bateragarriak egiteko neurriak garatuko dira.** | |
| 116 | LEPen eta lekualdaketa-lehiaketaren arloan akordioa lortu da SATSE, UGT eta Medikuen Sindikatuarekin, 2017ko ekainaren 23an egindako mahai sektorialean. Osakidetzak lan-eskaintza publikoko behin betiko lanpostuen kopurua onartu du. 2016an onartu zirenei gehitu ondoren, guztira 3.335 lanpostu dira (2017-11-09). Era berean, 3.004 lanpostu eskainiko dira lekualdaketa-lehiaketan. (2017-10-31). | |
| | **89. Konpromisoa. Osasun-arloko ikerkuntza eta berrikuntza handitu. Jakintzaren kudeaketa sustatu, bai eta osasun-arloko ikerketan parte hartzen duten eragileekiko lankidetza ere.** | **Osasun Sailburuordetza** |
| | **2. ekimena. Graduaren aurreko eta graduaren osteko prestakuntza bultzatu, osasun-arloko lanbideen premiak ebaluatuz.** | |
| 117 | EAEko osasun-sistema publikoko graduatu aurreko prestakuntza-gaitasunak berrikusi dira, eta, 2017-2018 ikasturteari begira, gure zentroetan prestakuntza-gaitasun praktikoa handitzea hitzartu da, UPV/EHUrekin. Hori horrela, gehiago izango dira fakultate horretako plazak. | |
| 118 | 2017-06-06ko Aginduaren bitartez, atzerriko zentroetan prestakuntza-egonaldiak egiteko bekak eta laguntzak emateko deialdiak egin dira, bai eta Estatuko unibertsitate-zentroetan ere. (108.010.- €.) | |
| | **3. Ekimena. Osasun-arloko ikerkuntzarako eta berrikuntzarako inbertsioa mailaka handitu.** | |
| 119 | Guztira 2,9 milioi euroko inbertsioa egin da 2017an; 2016an baino % 11 gehiago, beraz. Horren barruan honako hauek sartzen dira: osasuneko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako laguntzen 2017ko deialdia; BioCruces eta Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuen proiektuetarako laguntzak; berrikuntza-proiektuetarako laguntzak, baita Europako proiektuak prestatzeko laguntzak ere. | |

| | |
|---|---|
| 120 | Osasun arloko ikerketa-proiektuei laguntzak emateko deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak handitu dira. Deialdia Osasun Sailburuaren Aginduaren bitartez onartu zen, 2017-06-20an (2, 6 M € ekainean eta 1,4 M € eman berri dira) (2017-10-30). |
| 121 | Gaixotasun neurodegeneratiboak ikertzeko proiektuei laguntzak emateko deialdia onartu da. BIOEF Berrikuntza, Ikerketa eta Osasuna Euskal Fundazioaren deialdia da. (376.948,80.- €) (2017-11-21) |
| 122 | Biodonostia eta Biocruces osasun-ikerketarako institutuei zuzendutako laguntzak onartu dira. Helburua RIS3 Euskadi Estrategia zabaltzea da. (340.000.- €) (2017-12-05a) |
| 123 | Ikerketa-proiektuak egiteko eta gazte ikertzaileak kontratatzeko laguntzen deialdia egin da, osasun arloko ikerketak eta berrikuntza-jarduerak sustatzeko eta pizteko. 437.000.- €. (2017-11-21) |
| | **4. Ekimena. Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategian (2020) jasotako ekintzak ezarri. Haien bidez, ikerketa-zentroen eta entitateen sarearen jarduera indartuko da, bereziki biozeanikoen eta osasunaren eremuan.** |
| 124 | Osasun arloko 2020 Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiaren (OIBE 2020) lau ardatzen ezarpenari dagokionez (Eragina, Integrazioa, Pertsonak eta Baliabideak), 2017ko ekainean, aurreikusitako ekintzen % 56 abian zeuden, eta ezarritako ia helburu guztiak gauzatzeko lana egiten ari zen, % 89,5ek ekintzaren bat baitute bidean. Ekintzen aurrerapena, ardatzen arabera, % 44-% 67 bitartekoa da. |
| 125 | Osakidetzak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta BIOEF-ek hitzarmena sinatu dute, Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua sortzeko, Araba Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) inguruan egindako ikerketa publiko guztia barne hartzen duena, UPV/EHUrekin lankidetzan. Era berean, beste erakunde batzuekin eta ingurune zientifiko-teknikoekin eta enpresarialekin ere lankidetzak sortu dira. Bioaraba ezarrita, Biodonostiak eta Biocrucesek osatzen duten EAEko Osasun Ikerketa Institutuen sarea finkatzen da. (2017-07-12). |
| 126 | Lankidetza-hitzarmen espezifikoa sinatzea baimendu da. Estatuko Ikerketa Agentziaren eta Osasun Sailaren arteko berariazko lankidetzari buruzko hitzarmena da, osasun-arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdiaren ebaluazio zientifiko eta teknikoa egiteko. (2017-07-11) |
| 127 | Kontseilu Errektoreak Tecnalia Bioaraban sartzea onartu du (2017-12-13a). |
| | **5. Ekimena. Osasun-sistemari, haren antolamenduari eta pazienteekin egiten den praktika klinikoari emaitzak transferitzea eta aplikatzea bultzatu.** |
| 128 | Osasun-sisteman sortutako edo batera sortutako I+Gko emaitzak eta ideia berritzaileak kudeatzeko ereduaren arabera (Baliosasun), 2017ko ekainean 247 ekimen aktibo zeuden, garapen-tipologiaren arabera erregistraturik eta haien egoeraren arabera honela sailkatuta. Eskaintza teknologikoan 30 garapen daude (14 teknologia-bioteknologia-diagnostiko molekular; materialak eta gailuak; farma-sendagaiak eta irudia arlokoak; eta 16, Osasun IKTen arloan). Zorroko garapenen % 57 ustiapenean daude. Eskaintza teknologikoan, 2017ko ekainean, bederatzi teknologia eta garapen daude eskuragarri. |
| 129 | Osakidetzak eta Kronikgunek parte hartu duten eta Europako finantzaketarekin 2016an aktibo zeuden 11 proiektuetatik bi Euskal Osasun Zerbitzuan ezarri ziren 2017ko ekainean, proiektuak amaitu ondoren: bihotz-gutxiegitasuneko telemonitorizazio-zerbitzua (United4health-etik datorrena) eta paziente pluripatologikoaren ibilbide integratua (Carewell-etik datorrena). |

| | |
|---|---|
| 130 | Biodonostia institutuak koordinatutako nazioarteko azterlan batek biomarkagailu ez-inbaditzaileak lortu ditu, hiru gibel-gaixotasun motaren diagnostiko goiztiarra hobetzeko. (2017-11-16a) |
| 131 | Burmuineko tumore ohikoenaren garapenean gako den gen bat aurkitu dute Osakidetzako Biodonostia OIIko ikertzaileek. (2017-05-11). Era berean, Biodonostiako azterlan batean nerbio-ehuna hainbat ehun heldutatik (adibidez, larruazaletik) abiatuta sortzen duten zelulen jatorria identifikatu du. |
| | **6. Ekimena. Osasun-arloko profesionalen eta bikaintasun-zentroen arteko harremanak bultzatu, eta profesional horiek diziplina eta erdigune askoko ikerkuntza-sareetan parte hartzea sustatu** |
| 132 | Biocruces eta Biodonostia osasun-ikerketarako institutuek HR Excellence in Research europar zigilua lortu dute. |
| 133 | 2017an, Osakidetzako osasun-erakundeen eta osasun-ikerketarako institutuen bitartez, Europako hainbat proiektutan parte hartu da: ITHACA, ASTONISH, TRANSFUSION AND TRANSPLANTATION; OBINUT; EMPATHICS; LITMUS; VCare, PICCOLO eta ANGELAB. |

| TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA | | Konpromisoak: 28- 32 |
|---|---|---|
| **Zk.** | **JARDUERAK** | |
| | **28. Konpromisoa. Bikaintasuna eta jasangarritasuna sustatu EAEko turismo-jardueran** | **Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza** |
| | **2. Ekimena. Produktu turistiko lehiakorrak sortzea bultzatu, eta turismo-jardueraren esparruan ekimen berritzaileak sustatu** | |
| 1 | Turismo-enpresak modernizatzeko eta haien lehiakortasuna hobetzeko 2017rako laguntzen deialdia antolatu da. (2017-05-23) | |
| 2 | Lurralde-proiektu turistikoak babesteko 2017rako laguntzen deialdia antolatu da. (2017-05-23) | |
| 3 | Produktuen Urteko Planak gauzatzea: Enogastronomia; Touring; MICE; Kultura; Natura; Nautikoa; EAEko kostaldea. | |
| 4 | Udalekin lankidetza-akordioa sinatu da, turismo-erabilerarako etxebizitzen arloan. (2017-09-25) | |
| | **3. Ekimena. Sektorearen pertsonalizazioa bultzatu, eta turismo-lanbideak babestu.** | |
| 5 | Prestakuntza-hitzarmena, Deustuko Unibertsitatearekin | |
| 6 | Erasmus+ proiektua: "Entretour-Torism entrepreneurship as a long time model". E-learning prestakuntza sortzea ekintzaileentzat, haien negozioa finka dadin lehenengo bi urteren ondoren. | |
| 7 | Xede-programa. 27 helmugatako 700 enpresa parte hartzen ari dira. | |
| 8 | 2017ko IKTen erabilerako jardunbide egokien programa: 19 helmugatako 190 enpresa parte hartzen ari dira | |
| 9 | Europako Etiketa Ekologikoa eta Energia-eraginkortasuna Programa, ostatuetarako. | |
| 10 | 2017ko martxoaren 22an, FamTrip egitea Itourbask sareko turismo-bulegoekin, langileei turismo-produktuei eta helmugei buruzko prestakuntza emateko | |
| 11 | 2016an kalitateari, berrikuntzari eta ingurumen-jasangarritasunari lotutako lehiakortasun turistikoko programa bateko edo gehiagotako ziurtagiria lortu zuten 544 enpresei onarpen-agiria ematea. (2017-05-03). | |
| | **4. Ekimena. EAEko turismo-baliabideen sustapena bultzatu.** | |
| 12 | Turismoko lurralde-proiektuetarako laguntza-programa baterako deialdia egin da. Zenbatekoa: 1.291.429 euro (2017-06-08) | |

| | |
|---|---|
| 13 | Hartzaile zuzenei zuzendutako azoketara joatea: Vakantiebeurs Utrechten (urtarrilaren 10etik 15era).<br>- Holiday World, Dublinen (urtarrilaren 27tik 29ra).<br>- FITUR, Madrilen (urtarrilaren 18tik 22ra).<br>- Salon des Vacances, Bruselan (otsailaren 2tik 5era).<br>- FREE, Munichen (otsailaren 22tik 26ra).<br>- Salon du Mahana, Toulousen (otsailaren 24tik 26ra).<br>- ITB, Berlinen (martxoaren 7tik 9ra).<br>- Sevatur, Donostian (martxoaren 17tik 19ra).<br>- MAP, Parisen (martxoaren 16tik 19ra).<br>- B Travel, Bartzelonan (apirilaren 22tik 23ra).<br>- WTM, Sao Paolon (apirilaren 4tik 6ra).<br>- Mundo Abreu, Lisboan (apirilaren 8tik 9ra).<br>- Expovacaciones, Barakaldon (maiatzaren 5etik 7ra). |
| 14 | Ekintzak antolatzea eta kudeatzea prentsarekin eta bidaia-gidariekin:<br>- The Times (urtarrilaren 24tik 27ra)<br>- Cosmos Volta al Mundo (otsailaren 6tik 10era)<br>- Pura Aventura (martxoaren 12tik 17ra)<br>- Guía Morellini (otsailaren 25etik 29ra)<br>- TV RAI Italia (martxoaren 13tik 19ra)<br>- TravMedia, Londresen (martxoaren 13a)<br>- Britanny Ferries (apirilaren 25etik 27ra)<br>- Repsol (apirilaren 28tik maiatzaren 2ra)<br>- Pleine Vie (maiatzaren 15etik 19ra)<br>- Michelin Vert (maiatzaren 18tik 24ra)<br>- Columbus (ekainaren 24tik uztailaren 1era). |
| 15 | Erabilera turistikorako etxebizitza eta logelei buruzko informazio-kanpaina jarri da abian, erabilera turistikorako etxebizitza eta logelen jabeei zuzendutakoa. (2017-06-20a) |
| | **5. Ekimena. Turismo-eskaintzaren merkaturatzea sustatu, bai formatu konbentzionaletan, bai proposamen berritzaileetan; teknologia berriak erabiltzea sustatuko dugu, eskaintza turistikoan proposamen berri baliotsuak prestatzeko.** |
| 16 | Euskadiko Turismo ataria eta gizarte-sareak elikatzea, eguneratzea eta dinamizatzea, edukiak 5 hizkuntzatan emanda. |
| 17 | Euskadiko eragile turistikoekin batera azoketara edo profesionalei zuzendutako ekintzetara joatea:<br>- FITUR, Madrilen (urtarrilaren 18tik 22ra)<br>- Roadshow FTI, Alemanian (urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra)<br>- Workshop Meliá Bilbao<br>- Fam Trip OET Cantón (martxoaren 11)<br>- ITB, Berlinen (martxoaren 7tik 11ra)<br>- Landa turismoko zuzeneko jardunaldia.<br>- Merkatu britainiarra (martxoaren 29tik 30era)<br>- Roadshow, Italiako Iparraldea (maiatzaren 9tik 11ra)<br>- Naturari buruzko alderantzizko jardunaldiak.<br>- Merkatu britainiarra (ekainaren 7tik 8ra). |
| 18 | Erreserben kudeaketa, Euskadiko ostatuen eta turismo-produktuen esperientzia-programaren esparruan. |

| | |
|---|---|
| 19 | Trebatze-bidaiak:<br>- Art Pursuit (urtarrilaren 27tik 30era)<br>- OET Cantón (martxoaren 10etik 12ra)<br>- Cox Kings (apirilaren 3tik 5era) |
| | **6. Ekimena. Kongresu, konbentzio eta azoken segmentuaren alde apustu egiten jarraitu, MICE turismoaren helmuga direnez gero, eta turismo enogastronomikoaren alde ere bai, EAE mundu mailako erreferente bihurtzeko xedez.** |
| 20 | MICE sektorea bultzatzea, ekitaldien, tailerren eta azoken bitartez: - Zuzeneko jardunaldiak: India - Ezkontzak (apirilaren 26an).<br>- Travel the Bidder, Varsovian (ekainaren 20an) Biltzarrak eta ekitaldiak babestea: 21 ekitaldi. Fam-Trip MICE: Amerikako merkatua (maiatzaren 6tik 8ra).<br><br>Turismo enogastronomikoaren arloan proposatu diren zenbait ekintza bultzatzea:<br>- Taste of London (ekainaren 15etik 18ra)<br>- Pintxoaren Eguna, Milanen (ekainaren 15etik 18ra)<br>- Pintxoaren Eguna, Munichen (ekainaren 15etik 18ra)<br>- Ekitaldiak babestea: Miniature Pintxos Congress, Cenas a 4 Manos... |
| | **7. Ekimena. Hainbat turismo-eskaintza sustatu, bikaintasunezko tartean dagoen turistaren "target"-aren arabera dagoen eskaera espezializatuari kasu eginez.** |
| 21 | Azoketan parte hartzea VELOFOLLIES azoka (urtarrilaren 10etik 15era), Kortrijt herrian (Belgikan) Fiets azoka, Wanderberus herrian (otsailaren 18tik 19ra), Ganten (Belgikan). |
| | **9. Ekimena. Euskal turismoaren, merkataritzaren eta sukaldaritzaren arteko sinergiak sustatu, eta ekimen arrakastatsuen balioa azpimarratu (Basque Culinary Center, kasurako)** |
| 22 | Turismo Gastronomikoaren Munduko Foroa egin da Donostian. Basque Culinary Center (2017-05-08a) |
| 23 | Turismo-helmugen sustapen gastronomikoen arloko ezagutza eta jardunbide egokiak trukatzeko akordio bat sinatu zen, EAEren eta Flandesen artean. (2017-05-08) |
| 24 | Euskadi Gastronomika gida berria. |
| | **10. Ekimena. Turismo-sektoreko laguntzak egokitu, jasangarritasunaren irizpidea sartuta.** |
| 25 | EAEk "Biosphere Responsible Tourism Destination" ziurtagiria lortu du. Ziurtagiri horrek jakinarazten du turismo-helmuga arduratsu eta jasangarria dela. ITR-Turismo Arduratsuaren Institutuak egindako auditoria gainditu du; beraz, "Biosphere" estandarraren baldintzak betetzen dituela egiaztatu da. (2016-12-20) |
| 26 | Basquetourrek eta EVEk (Energiaren Euskal Erakundeak) turismo-sektorean energia-eraginkortasuna eta energia berritzaileak sustatzeko konpromisoa berritu dute. (2017-11-15a) |
| | **12. Ekimena. Herri osoan seinale modernoak, ulergarriak eta integratuak ezarri.** |
| 27 | Hondartzetako seinaleak aurkeztu dira, denboraldia hasi bezain laster. Zurriolako hondartzan seinale-ohol bat jarri da. (2017-05-31) |

| | |
|---|---|
| 28 | EAEko lurralde guztietarako turismo-seinaleen eredu homogeneoa eta berria proposatu da. Eredu berri horren helburua da turismo-baliabide guztiak nabarmentzea, kode eta sinboloetan erraz ezagutzeko modukoak diren seinaleen eta ikusmen-identitatearen batasunaren bidez. (2017-10-03a) |
| | **13. Ekimena. Turismo-arloan inguruko lurraldeekin edo gure herriaren antzekoak direnekin lankidetza-harremanak izatea bultzatu** |
| 29 | 2017ko Doc Market-a dela eta, Château de Laàs-en topaketa egin da, Akitaniako turismo-bulegoekin. (2017-05-23) |
| 30 | HERICOAST Europako programan parte hartu da. Horrez gain, EAE sartu da WILDSEA EUROPE sarean. |
| | **29. konpromisoa. Turismo esperientzialaren aldeko apustua.** — **Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Turismo-baliabide eta -esperientzia nagusiak lehenetsi eta definitu.** |
| 31 | Euskadiren turismo-baliabideen sustapena bultzatu. |
| | **4. Ekimena. EAEko eskaintza esperientziala hedatzen eta garatzen lagundu, sustapen-ekintzen bidez.** |
| 32 | EAEko Esperientziak sustatzeko kanpaina Aste Santuan egitea. |
| | **30. konpromisoa. Herriaren turismo-marka: Euskadi Basque Country** — **Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena. Gure helmuga berezi egiten duten elementuak sustatu, Euskadi Basque Country marka turistikoa kokatzeko oinarrizko erreferentzia gisa.** |
| 33 | Lasarteko hipodromoari diru-laguntza izenduna ematea |
| 34 | Nazioarteko proiekzio handia duten ekitaldiak sustatzeko eta merkaturatzeko hitzarmenak sinatu dira (Gasteizko Jazzaldia, Donostiako Jazzaldia, Getxoko Jazza eta Hondarribiko Blues Jaialdia). |
| 35 | Babesak: Saskibaloiko Errege Kopa, gurpil-aulkian egiten den saskibaloiko Euroliga, Balmasedako Pasio biziduna, Zarautz Pro Surf, Espainiako gizonezkoen junior saskibaloi-txapelketa, Arabako Pintxo Astea. |
| | **3. Ekimena. Euskadi marka sustatu nazioarteko foroetan eta azoketan, Euskadi Basque Country nazioartekotzeko estrategiari jarraikiz.** |
| 36 | Euskal Autonomia Erkidegoa Berlineko ITB azokan izan da, turismo-baliabideak aurkezteko. *Stand* bat izan du hiru lurraldeetako erakundeen eta enpresen agertoki izateko. |
| 37 | Routes Europe 2017: Aire-konpainien eta helmugen Europako topaketa. Gainera, EAE helmuga gonbidatua izan zen Routes 2018ren egoitza izango delako, Bilbon ospatuko baita datorren urteko apirilean. |

| | |
|---|---|
| | **5. Ekimena. Euskadi Basque Country helmuga sustatu, euskal turismo-administrazioaren elementu integratzaile eta harmonizatzaile gisa.** |
| 38 | Euskadi Basque Country marka gehitu zaie egin diren jarduera eta argitalpen guztiei. |
| 39 | Liburuxka hauek argitaratu dira: Euskadiri buruzko liburuxka orokorra, eta natura-turismoari, surfari, euskal kostaldeko geoparkeari buruzko orri zabalgarriak. |

| | | |
|---|---|---|
| | **31. Konpromisoa. Euskal merkataritza-sektorearen lehiakortasuna sustatu** | **Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza** |

| | |
|---|---|
| | **2. Ekimena. Tokiko merkataritza bultzatu eta bere lehiakortasuna sustatu, funtsezko elementua baita enplegua finkatzeko eta herriak eta hiriak dinamizatzeko, eta, horrekin batera, hiri-espazioak modu eraginkorrean kudeatu.** |
| 40 | 2017ko deialdia, ezagutza, berrikuntza eta merkataritza-lehiakortasuna sustatzera eta hedatzera bideratutako laguntzak emateko. (2017-06-13an) |
| 41 | 2017ko deialdia, saltokiak modernizatzeko programan ezarritako laguntzak emateko (3.750.000 euro). |
| 42 | 10+ merkataritza-bonua hurbileko saltoki txikiei laguntzeko pentsatuta dago, eta merkatuan 2,5 milioi euro sartuko ditu. (2017-12-11) |
| | **4. Ekimena. Merkataritza-sektorean modernizazio-programak eta kalitatearen, teknologiaren eta jardunbide egokien arloko prestakuntza bultzatu.** |
| 43 | Eusko Jaurlaritzak saltokiak modernizatzeko laguntzen deialdia argitaratu du. Laguntzen aurrekontu-zuzkidura 3.750.000 eurokoa da. (2017-05-30a) |
| 44 | Merkataritzako Bulego Teknikoei laguntzak emateko deialdia martxan jarri da, 2017an. (1.463.000.- €) (2017-07-04an) |
| | **6. Ekimena. Merkataritza-lankidetza sustatu, merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zona-estrategiak sustatuta eta merkataritzako enpresarien elkarteak indartuta.** |
| 45 | Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako Hirigune proiekturako laguntza-programarako arauak ezarri dira, eta 2017ko deialdia egin da. 3.800.143 euro |
| | **7. Ekimena. Ekintzaile berrien prestakuntza eta gaitasuna hobetu, bai eta merkataritza-sektoreko profesionalen trebetasunak ere, sektoreari laguntzeko zerbitzua eta jakintzaren transmisioa indartuta.** |
| 46 | Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailak merkataritza-banaketaren teknikariak gaitzeko beken programa abian jarri da; lehenengo aldiz, Lanbide Heziketako ikasleak ere barne hartu dira. (525.000.- €) (2017-07-04an) |

| | 32. Konpromisoa. Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua | Turismo eta Merkataritza Sailburuordetza |
|---|---|---|
| | **3. Ekimena. Enpresek kontsumo-ekintzetan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideekiko errespetu handiagoa izan dezaten sustatu. Horretarako, Kontsumobideren kontrol-ekintzek aitorpen handiagoa eduki dezaten sustatuko da, eta alertak arinago kudea daitezen bultzatuko da.** | |
| 47 | Kontsumitzaileen eskubideak sustatzen eta babesten dituzten erakundeei laguntzak emateko deialdia egin da (958.570.- €). (2017-12-05) | |
| | **4. Ekimena. Sail arteko eta erakunde arteko lankidetza-sare bat sendotu: batetik, kontsumitzaileen eskubideak defendatzeko ekintza eraginkorragoak bermatzeko; eta, bestetik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak defendatzeko entitateekin sinergiak sortzeko.** | |
| 48 | Kontsumobideren bidez, kontsumitzaileen elkarteei diru-laguntzak eman zaizkie, funtzionamenduko, laguntza juridikoko eta kontsumo-proiektuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak 2017ko ekitaldian gauzatzeko gastuak ordaintzeko. (367.065.- €) (2017-07-04an) | |

| KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA | | Konpromisoak: 108 - 115<br>116 - 124 |
|---|---|---|
| **Zbk** | **JARDUERA** | |
| | **108. Konpromisoa: kultura dinamizatzeko eta sustatzeko estrategia sustatu, 2020. urteari begira** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **3. Ekimena: euskal produkzio kulturalaren kontsumoa eta irisgarritasun ekonomikoa pizteko neurriak bultzatu.** | |
| 1 | Kulturaren bisibilizaziorako eta publiko berrien sorkuntza eta erakarpenerako egitasmo berrientzako deialdia. | |
| 2 | "Bidaiariak zinera" promozioa: astero euskal zinea, euskerazkoa edota europearra den film bat aukeratzen da takillan beherapena aplikatuz. Zinequiz: EZAE sareko (euskal zine aretoak) sarreren zozketa. | |
| 3 | Kultura Live: aretoetako musika kontzertuetarako, on line erositako sarreretan deskontua. | |
| | **109. Konpromisoa: Euskadiko sortzaileen sarearen alde egin, sortzaileei eta kultura-industriei lagunduz.** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: kultura- eta berrikuntza-sorkuntza lagundu eta bultzatu.** | |
| 4 | Arte plastiko eta ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko 2017ko ekitaldiko diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 416.000 euro. | |
| 5 | 2017. urtean dantza sustatzeko diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 450.000 euro. | |
| 6 | 2017ko ekitaldiko musika-jarduera profesionaletarako diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 500.000 euro. | |
| 7 | Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko Gure Artea sariak arautu eta horietarako 2017ko deialdia. Zenbatekoa: 54.000 euro. | |
| 8 | Komikiak, nobela grafikoak edo irudidun liburuak sortzeko 2017ko ekitaldia. Zenbatekoa: 105.000 euro. | |
| 9 | 2017. urteko ikus-entzunezkoen arloan proiektuen garapenaren aldeko diru-laguntzak argitaratu dira. Zenbatekoa: 300.000 euro. | |
| 10 | Kultura sorkuntza bultzatzeko 2017. urtean diru-laguntzak emateko deialdia. Deialdiak bi modalitate berri ditu: 'gazteentzako euskarazko literatura-testuak' eta 'euskarazko ipuin eta nobela laburrak'. Osora: 333.600 euro. | |
| 11 | Diru-laguntzak kultur eta sormen industriak bultzatzen dituzten enpresentzat. Zenbatekoa: 485.000 euro. | |
| 12 | SAREAko antzerki egonaldietarako deialdia. Euskal Autonomia Erkidegoko konpainia egoiliarren eta udal titulartasun publikoa duten harrerako gune eszenikoen arteko lankidetza-programak garatzeko diru-laguntzak. 80.000 euro | |

| | |
|---|---|
| 11 | EREMUAK. Deialdi etengabeko egitasmoa testuinguru garaikide batean ekoizpenera zuzenduta. 240.000 euro |
| 12 | Musika Bulego sarien bigarren edizioa. 67.600 euro |
| 13 | EIEk bultzatutako idazleentzako egonaldia. |
| | **2. Ekimena: kultura-industrien garapena indartu.** |
| 12 | Antzerki-produkziorako 2017. urtean diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 850.000 euro. |
| 13 | 2017an, Kultura eta Sormen Industrien alorreko enpresentzako, KSI Berritzaile 2017 egitasmo pilotua jarri da abian. |
| 14 | Ikusentzunezko garapenerako laguntzak: dirulaguntza eredu berri bat diseinatu da egitasmoen garapen prozesua finkatu eta talentu berriak laguntzeko. 2.660.000 euro |
| 15 | 319.600 euroko inbertsioa Arabako kultur enpresak bultzatzeko. Proiektuen artean, sormen lantegiak, Gasteiz Film Office edota Araba Games izeneko ekimen berria aurkitzen dira. Guztira 500.000 euro. |
| | **3. Ekimena: sormen-sarea profesionalizatzea bultzatu.** |
| 16 | Formakuntza programazioa, programazioaren artean komunikazio ez sexistan formakuntza editoreentzat (EEE). |
| | **4. Ekimena: kultura- eta sormen-industrien finantziazioa erraztu.** |
| 17 | Finantzial ardatzaren (finantzial aholkularitza) garapena Elkargiren eskutik, kultura eta sormen industrei zuzenduta. |
| 18 | Kultararen kitapen fiscal berriak jasoko dituzten aldundiko araudiaren diseinu elkarlana Aldundiekin. |
| | **5. Ekimena: sortzaileak eta kultura-industriak nazioartekotzen lagundu.** |
| 19 | Berlinale-an eta Cannes-eko MITV Festibalean euskal zinemagintza bultzateko “Basque Audiovisual” stand-a bultzatu, EIKEN ikusentzunezko klusterra lagundu. |
| 20 | Valladolid-eko arte eszenikoen azokan partehartu, gure sortzaileen bisibilizaziorako zuzendutako laguntza emanez. |
| 21 | Bolognako nazioarteko ume- liburu-azokan, eta Frankfurt-eko eta Mexikoko Guadalajarako (Mexicon) nazioarteko luburu azoketan partehartu, eta euskal sortzaileak laguntza aldera. |
| 22 | Filming Basque Country, hiru Euskal film commissionak batzen dituen marka amankomunaren diseinua. |

| | | |
|---|---|---|
| | **110. Konpromisoa: Euskadiko kultura-produkzioaren ikusgarritasuna eta irisgarritasuna indartu** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: euskal produkzio kulturala prestigiotsu bilakatu, eta ikustarazi.** | |
| 23 | Hainbat ekimen bultzatu euskal produkzio kulturala prestigiatzeko eta zabaltzeko (Kulturklik, Hitzen uberan, Kultura Flash, sariak…). | |
| | **2. Ekimena: audientzien fidelizazioa eta publiko berriak sortzea bultzatu.** | |
| 24 | Hainbat ekimen bultzatu audientzien fidelizazioa eta publiko berriak sortzeko ("Zinema euskaraz" Dantzaldia, Lekuz Leku, Musuka bulegoa). | |
| | **111. Konpromisoa: sormen-industrien sektorearen antolakuntza bultzatu** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: Euskadiko kultura- eta sormen-industrien garapenaren nazioartekotze-estrategia areagotu.** | |
| 25 | KSI-entzako 2017-2020 estrategiaren diseinua | |
| 26 | Berrikuntzarako RIS3 fondoaren ematea | |
| | **3. Ekimena: Euskadiren sortzaile irudia nazioartekotu** | |
| 27 | Creadis 3-Smart Creative Districs proiektuaren gidaritza izango du Jaurlaritzak 2017-2021 aldian. | |
| | **112. Konpromisoa: Erreferentziazko azpiegituretan egiten diren ekitaldien eginkizun eragilea eta nazioarteko hedadura finkatu.** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: Kultura-azpiegituretarako eta nazioarte-mailako ekitaldietarako diru-laguntza handitu.** | |
| 28 | Euskadiko Museo Sistema garatzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia, Euskadiko Museoen eta Bildumen Erregistroan izena emanda dauden museo eta bildumei zuzenduta. Zenbatekoa: 600.000 euro | |
| 29 | 2017. urtean kultura-arloetako jaialdiak antolatzeko diru-laguntzak emateko deialdia. Zenbatekoa: 350.000 euro. | |
| 30 | Euskadiko Orkesta Sinfonikoaren 2017-ko balantzea da:<br>- abonoen kopurua: 6.900<br>- ekintzen kopurua: 171<br>- ikusentzuleen kopurua: 132.000 bertaratuak + 436.400 digitalak (Klasikat on line)<br>- zuzendari eta artista gonbidatuak: 18 zuzendari, 20 instumental solista; 46 ahotz solista, 15 abesbatza eta beste 10 gonbidatu gehiago. | |

| | | |
|---|---|---|
| | **2. Ekimena: erreferentziazko proiektu estrategiko berriei ekin, kultura- eremuan, lurraldeen arteko oreka bereziki zainduz.** | |
| 31 | Araban kultura sustatzeko, Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin izenpetu da akordio ba. Zenbatekoa: 500.000 euro. | |
| 32 | IRUDIKA lehen nazioarteko ilustrazio jardunaldia Gasteizen | |
| | **113. Konpromisoa: ondare kulturala babesteko politikak gehiago zabaldu, bai eta haien eragin soziala ere.** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: Euskadiko ondare kulturalaren babesaren eta baloratzearen ikuspegi integrala areagotu.** | |
| 33 | Kultura Ondarea Sariaren hirugarren edizioa sustatu du, gazteen artean euskal ondarearen ezagutza indartzeko. | |
| 34 | Toki-erakundeei beren artxibo sistema jartzeko edota sendotzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako 2017ko ekitaldirako deialdia argitaratu da. Zenbatekoa: 290.000 euro. | |
| 35 | 2017an eta 2018an euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 160.000 euro. | |
| 36 | Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko 2017-2019 aldirako diru-laguntzetarako deialdia. Zenbatekoa: 2.400.000 euro. | |
| 37 | 2018. urterako «Kultura Ondarea» sariaren deialdia. | |
| 38 | Iruña-Veleiako harresiaren parte bat sendotzeko diru-laguntza. Zenbatekoa: 100.000 euro. | |
| 39 | Bilboko Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu-multzoaren kategoriarekin izendatzeko tramitazioa bultzatu. | |
| | **2. Ekimena: Kultur Ondarearen Euskal Legearen proiektua egin eta onartu, babesaren ikuspegi integrala areagotzeko eta euskal kultur ondarearen balioa azpimarratzeko.** | |
| 40 | Euskal Kultura Ondarearen Lege-aurreproiektua onartu da, babes-eredu eraginkorragoa sustatzeko eta kultura-ondasun immaterialei balioa emateko helburuarekin. Legebiltzarrera igorri da, lege-ekimen gisa. | |
| | **4. Ekimena: Euskadiko Liburutegien Sarea berritzea eta dinamizatzea sustatu.** | |
| 41 | Irakurketa sustatzeko, eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegi publikoen zerbitzuak erabiltzeko diru-laguntzen deialdia argitaratu da. Zenbatekoa: 258.000 euro. | |
| 42 | Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntzaen 2017ko deialdia. Zenbateakoa: 350.000 euro. | |

| | | |
|---|---|---|
| 43 | Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea udal-liburutegi guztietara iritsi da, Santurtzikoa gehitu ondoren. | |
| | **114. Konpromisoa: Euskal kulturaren espazio digitala indartu, kultur ondarearen politika publikoak berrituz, eta irisgarritasunean eta herritarren partaidetza aktiboan arreta jarrita.** | **Kultura sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: Euskadiko Kultur Ondarea digitalizatzeko Plan Integrala definitu eta abian jarri.** | |
| 44 | 2017. urtean Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko diru-laguntzen deialdia: Zenbatekoa: 670.000 euro. | |
| 45 | Publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzen 2017ko deialdia. Zenbatekoa: 170.000 euro | |
| | **115. Konpromisoa: gobernantza partekatua areagotu kultura-arloan** | **Hizkuntza Politikarako sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza antolatu.** | |
| 46 | Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza bultzatu elkar-lanerako harremanak indartuz bileren eta laguntzen bitartez. | |
| | **2. Ekimena: sektoreko elkarte profesionalekiko eta eragileekiko lotura optimizatu.** | |
| 47 | Sektoreko elkarte profesionalekiko eta eragileekiko lotura optimizatu elkar-lanerako harremanak indartuz bileren eta laguntzen bitartez. | |
| | **116. Konpromisoa: euskararen gizarte-hazkundea finkatu, euskal hiztunen kopurua handituz eta haien hizkuntza-gaitasuna hobetuz.** | **Hizkuntza Politikarako sailburuordetza** |
| | **1. Ekimena: helduen euskalduntzea sustatu eta babestu.** | |
| 48 | Ikus: HABEk eta Lanbidek hitzarmen bat sinatu dute langabeek euskara ikasi eta, horrela, euren enplegagarritasuna hobetu dezaten. | |
| 49 | Ertzainek lan orduetatik kanpo euskara doan ikasteko aukera izateko akordioa. Zenbatekoa: 200.000 euro urtean. | |
| 50 | HABE eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko “EUSKARA ESKURA TXARTELA” izeneko lankidetzarako hitzarmena. | |

| | |
|---|---|
| 51 | Euskaltegiei, beren Curriculum Proiektua eguneratzeko, aholkularitza-zerbitzu teknikoa eskaini zaie. |
| 52 | Teknologia berriez baliatuz, etengabeko hobekuntza sustatu euskararen irakaskuntzan:<br>- IKASBILeko ikasteko dokumentu didaktizatuen bankua osatu da 322 entzungai, irakurgai eta bideo berri eskainiz. Gainera, 225 jarduera didaktiko berri sortu dira.<br>- IKASTEN autoikaskuntza plataforman 44 euskaltegiri 710 ikastaro online emateko azpiegitura eman eta horren kudeaketa burutu da.<br>- IKASTEN autoikaskuntza plataforman 41 Euskal Etxeei 90 ikastaro online emateko azpiegitura eman eta horren kudeaketa burutu da.<br>- Aisa ikastaro irekiaren ingelesezko bertsio berria sortu eta argitaratu da berrikuntza informatikoa burutu da teknologia berrietara hobeki egokitzeko. |
| | **2. Ekimena: helduen euskalduntzea kudeatzeko sistema bakar bat bultzatu.** |
| 53 | Curriculumaren A1,  A2 eta B1 mailak eta egiaztatzeko bi garai ezarri dira, eta dagozkion agiriak banatzeari ekin zaio. |
| 54 | Curriculumaren beste hiru mailak egiaztatzeko azterketen bi deialdi diseinatu eta burutu dira. Deialdiotan, 11.697 azterketarik hartu dute parte: 4.596 azterketari B2 mailan, 6.545 C1 mailan eta 556 C2 mailan. |
| 55 | B1, B2, C1 eta C2 mailetan deialdi irekia diseinatu eta burutu da. Deialdian, 3.096 azterketarik hartu du parte, 440 B1 mailan, 1.340 B2 mailan, 1.037 C1 mailan eta 279 C2 mailan.<br>B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko ohiko deialdiotan, 565 aztertzaile eta 32 tutore aritu dira. |
| 56 | 2017-2018 ikasturtean Eusko Jaurlaritzak, HABEren (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bitartez, 31,1 miloi erabiliko ditu helduen euskaldutzerako, euskaltegi pribatuen eta publikoen lana diruz lagunduz, eta ikasleei laguntzak emanez. |
| 57 | 2017ko urria eta 2018ko iraila bitarteko euskara-ikastaroengatik, Euskal Etxeei esleituko zaizkien dirulaguntzen deialdia. Zenbatekoa: 234.000 euro. |
| | **3. Ekimena: helduek B2 maila lortu arte euskara-ikaskuntza doakoa izateko prozesua amaitu.** |
| **58** | HABEren euskara-mailak edo baliokidek gainditu dituzten ikasleentzako diru-laguntza deialdia argitaratu da irailaren 5ean (Ebazpena, 2017ko abuztuaren 23koa). |
| | **4. Ekimena:  Tituluak lortzeko sistema hobetu, euskaraz hitz egiten duten pertsonen kopurua handitzeko eta pertsona horiek ahalduntzeko.** |
| 59 | HABEk gaitasun-mailak egiaztatzeko deialdi irekiak C1 eta C2 mailetara zabaldu ditu. |
| 60 | Baliokidetzeen dekretuaren aldaketa onartu da, eta euskararen ezagutza egiaztagiriak Europako Markora egokitu ditu. |

| | 117. Konpromisoa: Aisialdian eta formalak ez diren eremu funtzionaletan zabaldu euskararen erabilpena. | Hizkuntza Politikarako sailburuordetza |
|---|---|---|
| | **1. Ekimena: euskararen erabilpena aisialdian sustatu.** | |
| 61 | ‘Mingaina dantzan’ udalekuak aurkeztu dira, erabileran eragiteko estrategiak diseinatzeko baliogarria den proiektua. | |
| 62 | 2017-2018ko aldian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) garatzeko diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 2.771.000 euro. | |
| 63 | 'Bihotzetik ezpainetara' euskara sustatzeko kanpaina. | |
| 64 | 2017. urtean gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzen deialdia (Euskalgintza deialdia). Zenbatekoa: 979.200 euro. | |
| 65 | Euskal Kirolari proiektua euskara sustatzeko kanpaina. | |
| | **2. Ekimena: Euskararen Agenda Estrategikoa (2017-2020) bultzatu.** | |
| 66 | 2017-2020 epealdirako Euskararen Agenda Estrategikoa onartu da. | |
| 67 | Ikus 119. Konpromisoa, 1. ekimena: Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak hitzarmen bat sinatu dute euskara sustatzeko. | |
| 68 | Soziolinguistika Klusterrari diru-laguntza zuzena, euskareren arloan proiektuak bultzatzeko. | |
| | **3. Ekimena: Interneten eta tresna digitaletan euskarazko edukiak sortzea eta sartzea bultzatu, unibertsitateekin, eta hezkuntza-, kultura-, eta aisialdi-arloko edukiak sortzen dituzten erakundeekin eta pertsonekin lankidetzan.** | |
| 69 | 2017an ingurune digitalean euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko diru-laguntzen deialdia. Zenbatekoa: 807.000 euro. | |
| 70 | Euskarazko doktorego-tesi digitalizatuen corpusa eguneratu da. Euskarazko 47 tesi gehiago integratu dira corpus horretan. | |
| 71 | Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin Wikipedian kalitatezko artikuluak sustatzeko hitzarmena (2017-2020), 12 eta 16 urte bitarteko ikasleentzat baliagarriak izan daitezkeen euskaraz 1.000 artikulu baino gehiago sustatzera bideratuta. Zenbatekoa: 600.000 euro. | |
